



Estante _____

Plúteo _____

VISITA

EGUNOROCOAC,
ALDARECO SACRAMENTU
SANTUARI ETA MARIA
SANTISIMARI,

San Ligorioren liburutic S. Francisco ordenaco Religioso batec
F. C. L. eusqueraz jarriac. Gañera ondo confesatzeco, ta comnlgatzeco oracioac.
Acto Fedecoaec, Esperantzacoac ta Caridadecoaec. Meza ondo euztako oracioac.
Azquenean calvarioco estacioac.

IRUGARREN ALDIZ GERRA

Beardau licenciarerquin.

TOLOSAN:

MENDIZABALEN ALARGUNAREN MOLDIZ
TEGULAN 1867 GARREN URTEAN.





SARRERA.

Nere iracurle maitea: liburu chiqui
onen asiera onetan esaten dizut, jarri
zaiteala consideratzen zure fedea edo si-
nistea, ta devocioa berdiñac otediran.
Sinisten dezu Aldareco Sacramento San-
tuan arquitzen dala Jesus, Jaungoico ta
guizon egiaztea, Ceruan dagoan bece-
la biciric, eta gloriaz beteric: baita ere
sinisten dezu, guri digun amorio azquen
gabeac daucala Sagrario artan estadu ain
humillagarrian: beguira ezazu bada
orain, zure orandañoco devocioa Sacra-
mentu veneragarri oni izan diozuna, no-



4

SARRERA.

Iácoa izandu dan. Billatzen badezu zure devocioia ez dala allegatu izandu sinistearen mallara edo gradura; epela ta zabarra izandu dala: emen suplicatzen dizut, artu dezazula gogo eguiazcoa gaurdanic egunero ordu laurdencho bat bada ere liburn chiqui au iracurtzen pasatzeko Sacramentu miragarri onen aurrean. Onetaraco billatuco dituzu egun bacoitzerao oracio egoquiac, lembici Sacramentu Santuarenac, ta guero Maria Santisimarenac, San Ligorio gloriosoac esribitú cituanac. Elizara ecin eterri baldin bacera, orobat da zure echean eguitea, Elizari beguira belaunico jarrita. Visita oec eguiñ bear dituzu iru arrazoi edo motivo gatic: lembicioa, gure Jaun eta Jaungoicoari graciac, eta alabanzac emateagatic, bidez adoratzen, ta amatzan dezula, alaoco mese-deac eguiñ izan dizquigulaco Sacramentu Santu onetan guelditu citzagunean: bigarrena, consideraturic Ostia Sagradu onetan cembat burla ta desprecio sufritu bear izaten dituan; Gentillac, Juduac,

SAREERA.

5

eta Héregeac gandic; baita nolaco naigabeae eristau pecatariac, ta batez ere gaizqui comulgatzen diranaegandic, naigabe ta desprecio oen alderaco alditzaquezun adoracioac, eta alabanzac emateagatic; eta irugarrena, escatzeagatic fede biciarequin, eta confianzareqain humillaturic, eta damuturic zure pecatuen barcacioa, eta beragana osoro convertitzeco, ta azquenera arte bere adisquidetasunean irauteco gracia.

Eguia da, Jaungoicoac aditzen ditu-la cristauen oracioac edocein lecutan eguiñiac izanagatic; baña baita ere da egui, Jesu-Cristo gure Jaunac Sacramentu Santu onetan ugariago comparazio gabe partitzen dituala bere graciea visitatzera etortzen zaizcan anima devotoea artuan; Cein desberdiña, edo diuerentea izango litzque cristauen bicitza, ta cembat anima Infernurako bidezte atera, ta jarrido, liraque Ceruraco bidean, Sacramentu Santu au visitatzera egunoro, edo ma etorrico balira! Eguiaz deñotio qutien



SARRERA.

arteau, Jesus Sacramentu Santu onetan adoratzera etortzea da Jaungoicoaren tzaco estimagarriena ta gure animentzaco mesedegarriena. ¡Cein ondasun miragarriac atera dituzte beti Santuac iturri aberats onetatic! Cembalet anima pecatari garbitu, ta sendatu dira iturri Jaungoicozco onetan! Eta jergatik zue esperatu bear ezdezu graci au Jesus amoroso onengandik, egunoro visitatzera etortzen cerala? Asi ezazu bada gaur devocio eguiazco au, ta segui guero beñere zabartu ta epeldu gabe, eta laster icusico dezu zure burua, baña; ¡cein diferentea! Cerori gueldituko cera arrituric zure mudanza zoragarria icusita. San Alfonso Maria Ligorioe jarri cituan visita oee Italiako hizcuntzan; Sacerdote veneragarri batec gaztelanian; eta nic icusiric euscal errietan ere liburucho onen cein premia, ta egarri aundia dagoan, persona devota batzuec suplicatu didelaco jarri det eusqueraz. Eguingo diuzu bada visita oec orain esango dizudan moduan.


SARRERA.

7

Lembici billatuco dituzu Ofrecimenduac eta egunoroko oracioa, *Gure Jesu-Cristo Jauna: etc.* oyec eguingo dituzu egunoro visitaren asieran, eta guero esango dezu egunari datorquiona: ondorean comunio espirituala eguingo dezu pascabatean consideratzen dezula, cer eguin dezun: azquenik Maria Santisimari eguingo diozu visita lembici egunari datorquiona, ta guero egunorocoa; *Gure Ama Maria Santissima: etc.* asitzen dana.

Eguin ezazu bada onelañše, ta nic esqueintzen dizut Jaungoicoaren laguntasuna, ta bicitza beticoa. Amen.





ALDARECO
SACRAMENTU CHIT SANTUARI, ETA MARIA
SANTISIMARI VISITAC,

Aldareco Sacramentu Santuari, gure adoracioac errecibitzeco jarrita dagoan arte, equiten zayon visita gatic dauden indulgenciac irabazteco, egun bear dan ofrecimentua.

Jauna: nai nituzque irabaci, aldare orretan zu adoratzea gatic, Aita Santu Erromacoac, eta Elizaco Obispo Jaunac emanie dauzcaten indulgencia guztiac; one-



OFRECIMENTUA.

taraco escatzen dizut zabaldu, ta indartu dedilla mundu guztian gure fedea, ta religio santua; acabatu ditecela heregeac, eta religioaren etsay guztiac; izan dedilla b开辟que eguiazcoa erregue, ta principe Catolicoen artean: izan dezatela osasuna Aita Santo Erromacoac, ta Obispo Jaunac, baita ere arguitasuna, ta gracia beren konturna dauzcaten Eliza Santuac ongi gobernatzeo. Gañera Jauna, izan dezatela parte oracio onetan gure gurasoac, senideac, aideac, adisquideac, gaizqui nai digutenac, gure obra onetan encomendatuac, eta purgatorioco animac. Eta zu izan zaite honratua, ta alabatua Ceruan, ta munduan. Amen Jesus.

ORDU ERDICO VISITARI ASIERA
ONA EMATECO ORACIO EGOQUIA.

Nere biotzeco Jesus, Aldareco Sacramentu Santuan aiñ humillaturic zaude-

OFRECIMENTUA.

na guri diguzun amorioaren andiz: consideraturic nere barrengo samintasun andairequin, cemba bat burla, ta desprecio sufriten zauden Sacramentu veneragarri orretan ez bacarric Gentillac, Juduac, ta misterio chit adoragarri au sinistu nai ez duten Heregeac gandie, baita ere cembait cristau esquer gaiztoeo gandie: ¡Ay Jauna! ¡Cemba bat dabiltza zu gandie iguesca, Zu visitatzena etortzena deshortera, ta lotsa garritzat artzen dutela, dembora non eta nola eman ezaquitela, ez baldin bada berriquetan, murmuraciontan, gaiztaquerietan! Beste cemba bici dira gueyegui ichutuac beren artu emanetan, saldu erosietan, egunquinquizunetan, egun ta aste guzlian Zutzaz oroitu ere gabe! Beste cemba etortzen dira Elizetara Zu gueyago ofenditzera beren pensamentu gaiztoaqin, hitzqueta lasayaquin, ta lotsa gabequeriaquin! Beste cemba cristau bici dira Jauna, Comunio Santuan Zu artzera urtean beñ, edo chit bacan allegatzan diranac, eta orduan ere

EGUNOROCO

cer artzen duten ezdaquitela! Eta beste cembał allegatzzen dira pecatu mortalean zure mai sagradura, Zu gueyago ta ascoz gueyago ofenditzera! Zuc daquizu Jauna, Zure biotz amorosoa cembał erdiratzen dizuten, ta beren anima urricarriai ceiñ calte negar garrizcoac eguiten dizaten.

Bada nere biotzeo Jesus: Zuc Sacramentu veneragarri orretan egunoro erañman bear izaten dituzun desprecio, ta naigabe samiñ oen alderaco, nator orain Eliza onetara sede bici biciarequin Zu adoratzera, consianza osoarequin nere biotza escaintzera, ta amorio iracequiarequin Zuc diguzun naitasun zoragarriari graciac ematera. ¡Ay Jesus! Erremediatu al banitzaque nere devocioarequin Zuc Sacramentu Santu orretan egunoro artzen dituzun ofensac! Ona bada Jauna, cerc nacaren gaur Zure oñetara, Zu visitatzen!

*Onetaraco daucat Jauna auqueraturic
ordu erdi au nic.*

ALDARECO

SACRAMENTU SANTUARI EGUITEN ZAYON VI-
SITAREN ASIERA EGUNOROCOA.

Gure Jesu-Cristo Jauna: guri diguzun amorioaren andiz Sacramentu Santu orretan humillaturic, eta guzaz urriquituric, gabaz ta egunez, ordu ta instante guztietan arquitzen cerana: eta zu visitatzen, adoratzera, zuri esquerrac ematera, ta mesede gueyago escatzera zugana datocenen zai besoac zabalik zaudena, beti pronto edocein ordutan datorquizunari laztan gozoac emateco. Guc sinisten degu Jauna, Aldareco Sacramentu Santu orretan zaudela Ceruan daueazun aunditasun, ta gloria guztiarequin. Criatura argal urricarriac guerala bada adoratzzen zaitugu, ta ematen dizquitzugu graciac, egun dizquigutzun mesedeaç gatic; eta batez ere eman diguzulako aimbeste aldiz Sacramentu Santu orretan ja-



EGUNOROCO

ten ta edaten zure gorputz sagradua, zure odol preciosa, zure anima gloriosa, ta zure Jaungoicotan guztia. Ematen dizquitzugu graciac gañera, zure Ama Maria Santisimaren seme ta alaba eguin gaituzulaco. Ematen dizquitzugu graciac azquenie, orain zu visitatzena ta adoratzera Eliza Santa onetara ecarri gaituzulaco. Adoratzen zaitugu bada Jauna, eta nai degu zure aunditasuna ta ontasuna orain batez ere adoratu, ta maitatu iru arrazoi edo motivo gatic: lembicicoa, Comunio Santuan gure biotzetara etortzen ceranean eguiten dizquigutzun gracia esquerrac emateagatic: bigarrena, Sacramento Santu orretan zure etsayagandic artu bear izaten dituzun esquergabequerien, ta ofensen alderaco, zue mereci dituzun alabanzac emateagatic: eta irugarrina, visita santa onetan deseatzen degulaco zure amorio santua adoratza, errespeto guchirequin, ta desprecio andiac sufritzen zauden Eliza guztietan. Gure Jesus ona: guc maite zaitugu

VISITAREN ÁSIERA.

biotz guztiarequin: damu degu Jauna biotzetic orandaño aimbeste aldiz ofenditu bearra zure ontasun azquen gabea, baita ematen dizugu hitza zure laguntasunaren bidez emendic aurrera obeatzango guerala. Oraindano pecatari argal urricarriac izan baguera ere, gaurdanic jartzen guera osorò zure mendeau, ta eguiten zaitugu gure entendimentuen vorondatearen, sentidu guztien, animaren, ta biotzaren jabe. Emendic aurrera zuri esquerrac Jauna, pensatzen, deseatzen, esaten, ibiltzen, ta eguiten ditugun gauza on guztiagatic. Eguin ezazu gaurdanic gurequin gauza guztietan zuri ongiiena derizquierdozuna, ta guri conveni zaiguna. Zue nai dezuna, izango da guc ere naico deguna. Baita orain escatzen dizuguna da zure amorio santua, zure vorondate santuari obedecitzeo virtutea, ta zure adisquidetasunean iltzeco gracia. Oroitu zaite ere Jauna, Purgatorioko anima bedeineatu aezaz, baña batez ere Sacramento Santu onen, ta zure Ama



16

LENENGO EGUNECO

Maria Santisimaren devoto eguiazcoac izandu diran aezaz. Baita ere escatzen di zugu gracia, ta urriquitasuna Cristau peccatari guztientzaco. Azquenic gure Jesus maitagarria: deseatzen degu animatic, gure biotz argalac zure biotz Jaungoicoz coarequin bat izatea: zurearequin batean gureac ere zure Aita Eternoari esqueintzea, zure biotz gozoaren icenean artuditzala gurecac ere beretzaco. Zuri beguiratu ta garbitu ditzala gure barrengo eiquinqueria guztiac, ta eman dizagula gracia bere bildur santuan bicitzeco, ta ultzeco. Amen Jesus.



VISITAC.

17

LENENGO EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Ona emen ;Oh Cristau devotoac ! eguiazco ondasun guztien iturria, iturri bedeincatua, Jesus Sacramentu Santu onetan. Jaun maitegarrizco onec esaten digu: egarriac acabatzen zaudenten anima gaišsoac: atozte nigana, ta nic emango dizutet ur gozoa, egarri andi ori betico quenduko dizutena. ¡Cemba! gracia, ta cein ugari atera izan dituzte Santuac dembara guztietaan Sacramentu veneragarri onec ematen duan iturri Jaungoicozco onetatic! Emen Jesus amorooso onec ematen dizquigu bere pasio santuaren bidez irabaci izan cituan Ceruco ondasun guztiac, Isaias Profeta Santuac asco urtez lenago aditzera eman izan zuan becela, esan zuanean: allega zaitezte egarri andarequin zuen Salvatzallearen iturri gozora,

2

ta edango dezute ur bedeincatu ura egarri guztia itzaltzeraño, zuen barrenac aseztzeraño. Santa Clararen ordenaco religiosa veneragarri bati esaten cioten Sacramentu Santu onen esposa zala, egunac dituan orduric gueyenac Jaun onen aurrean igarotzen citalako: ta galdeturic hein batec, cer eguiten ote zuan Elizan aimbeste demboran: eranzun eion berac: nere atseguiun ta zoriontasun guztiac izango liraque Jaun Ceruco ura adoratzen Eliza batean eternidade guztian egotea: ¿Ez aldago edocein Elizetan Jaungoico eguiazeo ura bera, Ceruan Aingueruac, ta Santuac atseguintasunez, zoriontasunez, ta gloriaz betetzen dituana, ta eternidade guztian beteco dituana? ¿Cer eguingo degu Elizan, galdetzen dute ascoc, cer eguingo degu Sacramentu Santuaren aurrean? Cer eguingo dezuten? amatu Jauñaren ontasuna animatican; alabatu Jauñaren anditasuna mingañarequin; eman esquerrac onguille zoragarrizco ari biotzarequin oraindaño here escuetatic artu

izan dituzun mesede ain estimagarriac gatic; ta escatu barrengo confianza andia-requin emendic aurrera zure premiac erremediatu ditzala. ¿Cer eguiten du escale hatega aberatsaren atefan? ¿Certara dijoa gaizqui arquitzen dana medicuaren billa? ¿Cerc eramatzen du egarri dana iturri ederrera? ¡Ah Jesus gure biotzec prendaric maitegarriena; gure bicitzaren Jauña ta jabea; gure esperanzaren pozgarria, ta gure maitetasun guztia ondo mereci dezuna! Cembañ costa izan citazun zuri Saeramentu Jaungoicozco orretan gurequin guelditza! Saeramentu veneragarri orretan guelditu ciñanean, baciñaquizun zuc Jauna, baita ongi ala ere, cembañ farra ta burla eguingo cizquitzen gentil zuregan sinistric ez dutenac: cembañ desprecio herege esquer gaiztoco soberbio-soac: cembañ ofensa pecatari ichutuac: ta cembañ sentimentu emango cizquitzen Cristauric gueyenac ere: baña alaz guztiaz ere, zuc gure animai izan ciñien ongi nai ura, amorio iracequi ura Saeramentu



Santu orretan guelditu izan ciñanean, an-diagoa ta miragarriagoa izandu zan, gui-zonen gaiztaqueri, ta esquergabequeri guztiac baño. Bai Jauna, zuc guri izan ciñiguzun amorio iracequi arc venzutu cituan dificultade guztiac, ta guelditu ciñan Sacramento orretan, alaco despre-cioac izango ciñituala jaquiñaren gañean, gure biotz argalac noiz edo noiz zugana eramango ciñituala uste ta poz andiare-quin. Atoz bada Jauna, atoz gure biotz barrenera, ta sartu zaite, araco eche Jaun ta jabe bat bere echean sartzen dan bece-la: ichi itzatzu guero gure biotzaren ate ta leyo guztiac, sartu ez dedin beiñere gueyago biotz onen barrenera zure of-en-saco gauzarican, cergicat deseatzen degu guzia zurea izatea. ¡Oh gure salvatzalle maitegarria! gure Arzai eguiazcoa! otse-guin zaiozu gaur gure biotzari, bada orain arquitzen da izan aldezakean prestaera-ric onenarequin zure dei gozoac aditze-co. Aguindu bada Jauna, aguindu guri, guraso batec bere humeari becela, cer-

gatic arquitzen guera zuri obedecitzeco obligacio zoragarrizcoan; eta iñoz obe-decitzten ezpadizugu beardan becela, casti-gatu Jauna, biurtu gaitecen len bait len berri zure obedienciaren mendera, ta lotu guero urezco cate amorosoarequin gure vorondatea, berri igues eguin ez dezan zure mendetican. Zu beti servitza, zu ascotan visitatzena etortzea, ta aldeza-quegun guztilan zu comunio santuan ar-tzea: ona emen Jauna: emendic aurterra gure pensamentuan, ta biotzean eduqui-co degun gogoric audiiena. Billa dezala nai duanac beste edocein ganza, baña gure biotzeco ondasuna baearrie izango da zure vorondate santua. ¡Oh Ainguera santuac! etzaituztet embidiatzen Ceruan ain andiac, ta aberatsac ceratelaco, baña bai Sacramento Santo oni amorio ain ira-cequia diozutelaco. Lagundu bada arren guri amatzen, ta servitzen emen bici gue-ran arte guztian, guero amatu ta gozatu dezagun zuequin batean erreinu orretan, ta eternidade guztian. Amen Jesus.



*Comunio espirituala egunoro eguin
bear dana.*

Guc sinisten degu Jauna, Sacramentu Santu orretan zaudela, Ceruan zauden becela biciric, ta gloriaz beteric: maite zaitugu biotz guztitican, ta beste gauza guztiac baño gueyago: damu degu biotzetic zure ontasuna aimbeste aldiz ofenditua, ta artzen degu gogo eguiazcoa berriaz ez ofenditzeko: orain nai guenduque zu errecibitzea, baña comunio santuan ecin artu zaitugulaco, atoz arren amorioz berriaz gure biotzetara: ¡Ay Jesus! lenago il, berriaz zu ofenditu baño.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Oh Maria, Doncella chit ederra! ¡Oh Jaungoicoaren Ama, Aingueruen Erre-guña, ta pecatarien defensore consolagaria! Zu zaude Ceruco Erreinuan beste

Santu, ta Aingueru guztien gañean. Zu cera, Jesu-Cristo Zure Seme ta gure Jau-nac, anima pecatariac Cerura eramateco, señalatu zaituen laguntzalleric onena, ta bideric zabalena, ta gozoena; baita anima santa guztien alaitasuna. Zuc egun dituzu paque zoragarritzocoac Jaungoico ofendi-tuaren, ta guizon peccatariaren artean, betico eternidadean iraungo dutenac. ¡Oh Señora miragarria! artu gaitzatzu arren zure beso zabaletan, zure biotz urriqui-tsaren barrenean. Zuc laguntzea nai de-gu, baita bear ere, emengo peligro guz-tietan. Zure defensa bear degu gure eguno-roco premia andietan. Zure escu Jaun-goicozcoac eldu bear digu gabiltzan, ta arquitzen gueran toqui guztietañ, Luci-ferréc cein eraman ez gaitzan betico in-fernura. Mundu onetan bici guera Se-nora, Infernuco etsayen erdian, araco ardi, ta bildots gañsoac animalia izu-garrien artean arquitzen diran becela, alde guztietatic inguratzten gaituztela. Pe-ligro negargarritzco onetan, estadu zori-

24

LENENGO EGUNECO

gajiztoco onetan consideraturie gure anima urricariac, zu gana gatoz Señora, laguntzailearen, ta libratzaurrearen billa, baña confianzaz beteric. Zure Seme Jesu-Cristo gure Jauna, ta Jaungoicoa dago chit aserrea, ¡Oh Ama urriquitsua! gure contra, asco aldiz ofenditu izan degulaco. Etsai Infernuoa berriz dago izugarrizco aoa zabal zabalik duala, noiz illico ote gue ran zai, gure anima urricariac berarequin batean infernuco calabozotara eramateco deseoric andienarequin. Ea bada Señora: arren urrical zaite guzaz: urrical zaite bai, gure oraindañoco gaiztaqueria beguiratu gabe. Onela egun ditzagun pa queac gure Jaungoico aserratuarequin, libratu gaitecen etsayaren atzaparretatik, ta mereci dezagun Ceruan guretzaco prestatua dagoan gloria. Amen Jesus.



VISITAC.

25

Suplica Maria Santissimari egunoro visitaren azquenean eguin bear zayona.

G

Gure Ama María Santísima, ta donecela chit garbia: zu ceralaco Jesus, gure salvatzalearen Ama, Aingeruen Erreguiña, ta pecatarien defensore consolagarria, gure esperanza; zugana gatoz gaur confianzaz beteric gu pecatari argal urricariac. Adoratzen zaitugu guztioc; ¡Oh Erreguiña guztien señora! ta zure aurrean humillaturic ematen dizquitzugu milla esquer, oraindaño zure escuetatic artu izanditugun gracia, ta mesede guztia gatic; baña batez ere gure pecatuaquin aimbeste aldiz merci izan degun infernautic libratu izan gaituzulaco, ta orain zu adoratzena. Eliza Santa onetara ecarri gaituzulaco. Amatzen zaitugn, ¡Oh Señora chit maitagarria! ta zuri dizugun amorio andiaren señaletzat ematen dizugu itza emendie aurrera sayatuco guerala zu servitzera, zu ama-



tzen, ta beste Cristau guztiak ere zure servicio, ta amorio santura eracartzera. Zugan ¡Oh Ama urriquitsua! Jesu-Cristo gure Jaun, ta gure salvatzallearen ondorean, zugan daucagu salvatuco guerala esperanza goztia. Artu gaitzatzu ¡Oh Ama biotzecoa! artu gaitzatzu zure mantuan, ta libratu gure etsai gaitzoac gandic. Zu cera Jaungoicoaren Ama Santa escubide chit andicua Ceruan, Lurrean, ta infernuan: lagun zaiguzu bada venuzten gure tentacioac, mortificatzen gure griña gaitzoac, ta deseguiten pecaturaco cateac: onela pasa dezagun emengo destino au zure amorio zoragarrian, ta zure Semearen bildur santuan eriotzaco ordura arteraño. Escatzen dizugu Señora, amorio eguiazcoa zure Seme Jesucristo gure Jaunarentzaco; ta zu bitarteko cerala esperatzen dega eriotza on bana. ¡Oh Señora, ta gure Ama! Zuc Jaungoicoari diozun amorio andia gatic escatzen dizugu urrireal zaiteala guzaz; ta lagundu arren ¡Oh Ama! gure peligroetan, baña batez

ere gure azqueneco asnasetan. Ez arren desamparatu Ceruan arquitzen gueran arteraño, alabatzen, ta cantatzen zure urriquitasun zoragarrizcoac betiko eternidade guztian. Amen Jesus.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Elsaten du religioso devoto veneragari batec ece, Jaungoicoac, araco munduaren asieran, ogua eguin izan zuan becela gure gorputzaren janaritzat, eta gordetzeko virtutearequin: alaſſe Jesu-Cristo gure Jaunac, araco cristandadearen asieran, eguin izan zuala Sacramentu Santu au gure animaren janaritzat, baita aldaretan edo gordeta iduquitzeo, edo Elizara joaten diranen beguen aurrean paratzeko virtutea, ta licencia ematen zuala, gue naico guenduan guztian janari Jaungoicozeo au artzera etortzeco, ta Aldaretan adoratzeco, aldezaquegun guztian visitatzen degula; gauza ain eslima-



garri au eman ta eracusten digula, guri digun amorio leyalaren aunditasuna. San Paulo Apostoluac esaten digu ece, Jaungoicoac, guizon egun izandu zanean, bere anditasun guztia ecer ectara biurtu izan zuala. Guc bada g̃eet eran bear degu, ecusiric aren Magestadea, ez bacarric guizon egun ta, baita ere bere guizorañen, ta Jaungoicoaren izatea oguaia baltz becela jarrita edo obeto esateagatic, oguiaren antza artuta, gure janaritzat servitzen digula? Ecin iñore ere jaquin dezaque, dio Santu Veneragarri batec, Jesu-Cristo gure Jaunac bere gracian arquitzen dan anima batí dion amorioa cein aundia dan; beragatican Ceruko Esposo zoragarrizco onec, mundu au utzita, Cerrura joan bear izan zuanean, ecin partituriac iñolako moduz ere gure anima bere esposagandic, pensatu zuan gurequín emen bera guelditza, beldurten zala gañera, bera joaten bacitzagun emen bacarric utzita, Jaun onezaz laster aztuko zala gure anima. Guelditu zan bada aren

Magestadea Sacramento Santu onetan gure anima ta bere esposarequin, asco aldiz etorri gaitecen comunio Santuco mai sagraukan ogui bedeincatu au berarequin batean jatera, ta beste cemba aldziz bere laguntasun zoragarrizcoan dembora pasatzena. ¡Oh gure biotzeco Jesus! Bada zaudet preso becela Aldare orretan, ta guiltzapean pecatari urricarrien escariac, eta oracioac aditzeko belafrriac zabal zabalik dituzula; aditu itzatzu arren orain gure oracioac ere, beguiratzen diezula gure premia chit andai. Damuturic ieusi nai bagaituzu zure oñetan belaunico jarrita, ezagutzen ditugula gure oraindañoco gaiztaqueriac, ona emen Jauna nun dauzcatzun gure biotzac damutasunaren aundiz negarrez urtutzen oraindaño eman izan dizquitzugun naigabeac gatic. Lembici bada gure oracioetan, epelac badira ere, escatzen dizuguna da, barca dizaiquiguzula gure pecatuac. ¡Ay Jauna! Eguin izan ez baguendu beñ ere zu ofenditzeko gauzarican. Orain bada emenche zure



aurrean humillaturic, lotsaturic, eta zure ontasuna ezaguturic, deseatzen degu zu gauza guztietan servitzea, ta sentitzen degu orain bertan gure barrenean zu biotz guztiarequin emendic aurrera amatzeko gogo iracequi bat, alako moduz ece, uste degu Jauna gaurdanican zuri bide zuenetik jarraitzea. Baña zuc ¡Oh Jesus, gracia guztien emallea! Zuc laguntzen ez badiguzu, gure uste, izate, ta gogo guztiac utsac izango dira, oraindañoco gueyenac izandu diran becela. ¡Ez alzagu bada Jauna, emendic aurrera guertatuco onelacorican! Gloriaz betetaco erreinu orretan zurequin dauzcatzun Aingeruai, ta Santuai eracutsi zayezu Jauna, gaur Eliz onetan arquitzen gueran pecatariaquin eguiten dezun urriquitasuna. Gure oraindañoco argaltasunari, ta gaiztaqueriari beguiratu gabe, zure esclubide, jaquinduria, ta ontasun paregabe orretzaz baliatuta, atera itzatzu gure animac Infernuco etsayaren mendetic, ta eraman zure servicio ta amorio santura.

Zue esan cenduan Evangelio Santuan ece, Ceruan Aingeruac festa andiac celebratzen dituztela, anima pecatari izandako bat Ceruraco bidean jartzen danean. Eman zayezu bada Jauna poz audi au Aingeru ta Santu ayei, gure animac bide zorioneco onetara ecarrita. Zuc egun dezaquezu Jauna, zuc badaquizu nola egun alditequean Jauna, zure ontasunac ecin faltatu dezaque Jauna, eta gue ere ala deseatzen degu Jauna. ¡Ceri beguirira egongo guera bada, gaur ez asitzeco biurtzen pecatutic graciara, ta Infernuco etsayaren mendetic zure beso Jaungoicoz coetara? Ala izan dedilla.

Comunio espirituala oguei ta bigarren orrian.

VISITA AMA SANTISIMARI.

O
ren i Oh Maria Ceruen, ta mundu gucia-
ren Erreguiña, Infernuco etsay guztiac
ere zure mendean dauzcatzuna burnizco



catearequin lotuta! Zu cera pecatarien defensore Ceruan bertan ere pareric ez de-zuna, zure Seme Jesu-Cristo gure Jauna apartatu ezquero. Jaun ura degu Aita Eternoaren aurrean bitartecoric onena, pecatarien alde bere host llagac instanteko aguertzen diozcala; ta zu zaude Seme Jaungoicoaren aldamenean zure bular Cerutic izandaco oriec eracusten diozatzula. Aita Eternoac bada bere Seme Jaungoicoaren laga precioso pecatariagatic artu izan cituan aei nai ts nai ez beguiratu bear dien becela; alaſſe zure Seme Jaungoicoac berac ecin utzi dezague beguiratu gabe, berac edan izan cituan zure bular gozoai, gu pecatari urri-carriren bitarteko paratzen diozatzunean. Zu cera mundu onetaco ichaso zabal peligroz betetako onen erdian galtzeo, ta itotzeco zorian dabilzanac sartzeko ichas baster zoragarritzcoa. Zu cera mundutican gabeco illumpe ta tristura guztia deseguiten dituzun izar argui eder ura. Zu cera infernuco etsayac pecatuarequin

ain gogorqui lotuta dauzcaten anima urri-carriac libratzen dituzuna. Zu cera oyan luzaro gaizqui arquitzen diranen naigabeac alaitzen dituzuna. Zu cera neque andietan estuturic egoten diranac animatzen dituzuna. Zu cera azquenie gure religio santuari Cerutic alaco graciaec ecartzen diozcan iturri bedeincatu ura. ;Oh doncella graciaz betea! Arguitu itzatzu arren gure entendimentuac zure virtute pareric ez dutenac ecusteco: zabaldu itzatzu gure aoac, ta lagundu gure mingañai zure alabanza Jaungoicozoac cantatzeco, baña balez ere San Gabriel Aingueruac eman izan eizun berri on zoragarri ura gue ere emateco asco aldiz, ta beñere aspertzen ez guerala: Jaungoicoac gorde zaitzala Maria, graciaz betea; Jauna da zurequin, ta bedeincatua cera andre guztien artean. ;Oh Jaungoicoaren Ama Santa! Prestatu itzatzu gure belarriac aditzen egoteco, bai mundu onetan vici gueran artean anima bedeincatu zure devoto



34

IRUGARREN EGUNECO

eguiazcoac beñere iššildu gabe ematen dizquitzuten alabanzac; ta bai guero Cerura joaten gueranean erreinu artan Aingueruac ematen dizquitzutenac; aequinbatean guc ere alabatzen zaitugula. ¡Oh Maria zoriontasunec betea! Eternidade guztian. Amen.

IRUGARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Ona emen nun daucagun Jesus, gure animen salvatzallea: contentu ez izanicaren Magestadea gure animae gatic bere bicitza eman ta calvarioco mendian, ill ezquiero ere beti gurequin izatea gatic guelditu citzaigun Sacramentu Santu onetan, bere biotzetic intendaco amorio leyal ta estimagarri onequin aditzera ematen digula, beti gurequin izatean billatzen ditnala bere barrengo alaitasun guztiac. ¡Oh guizonac! deadar eguiten du emen Santa Teresac arrituric dana guztsia, ta arrazo!

VISITAC.

35

andiarequin: ¡Oh Cristauae! ¿Nola daucazute biotz ain gogorra ofenditzeco Jesus adisquide ain leyala, guraso ain urriquitsua, Erregue ain gozoa, Esposo ain biotzeoa, Jaungoico ain maitea, beti zuequin izateco alako deseoaoc eracusten dituana, zuen artean bere barrengo atseguntasunac billatzen dituana? Jesus Ceruco Erreguea alako deseorequin beti gurequin izateco, adisquide maite eguiazcoae beti alearrequin izatea deseatzen duten beela: ¿Eta guc alako oztasuna Ceruco Jaun audi onequin dembora pasatzeco? Ceruan Aingueruac adoratzen duten Erreguea gu combidatzen puntuau bein, esaten digula: zorionecoac eguiaz izatea nai dezutenac, atozte nigana, nere palacio ederrera, nere Templo Santura, ta nic emango dizuet deseatzen dezuten zoriontasun ura: alaz guztiaz ere gu ibillico guerala iguesi Jaun onen gandie, Jaunaren Palaciotic, Jaunaren Templo Santutic? ¿Nore aditu izandu du beiñere onelaco esquer gabequeriaric? ¡Ah! Cein zorionecotzat iduquitzen dituzte

beren buruac munduco Erregueac beren Palaciora, ta serviciora eramatzen dituzten guizonac, berac eceren faltaric ez duten ondasun aundien jabe badira ere. Aimbeste estimatzen da munduco Erreguea guzaz oroitzea, Aman ministro soberbioso arc estimatu izan zuan becela Asuero Erregueac, ta Ester Erreguiñac beren mayan jatera eramatea. Ona emen bada Eliz onetan Erregue guztien Erreguea, ta ondasun guztien jabea, Jesu-Cristo gure Jauna gu combidatzan gaituana, ez bacarric bera servitzera baita ere bere adizquide maite izatera, berarequin batean mai sagradu onetan jatera, bere biotzeco seme ta alaba izatera. Icasi dezagun Jaun oni nola esquerrac eman bear zaizcan, ta nolaco confianza, ta amorio iracequiarequin berari itz egun bear diogun. Emenche bada gauzcatzu, ¡Oh Ceruco Erreguea, ta gure salvatzalle maite! Guri diguzun amorioaren aundiz, zu arquitzen ceran aldare onen aurrean gauzcatzu Jauna, prest zure vorondate santua eguiteco, ta zure biotz

amorosoari aldezaquegun atseguiña emateco, emendic arrerra beintzat. Zu cera gauza guziac aiñ ugari ematen dituzen iturri bedeincatua. Zu cera pecatuac animan utzitaco manchac garbitzen, ta llagac sendatzen dituzun medicu jaquintsua. Zu cera gure premiac erremediatu alditzaguezun Jaún aberatsa, ta chit prestua. Ea bada ¡Oh iturri bedeincatua! Eliz onetan orain arquitzen gueranac gaude zure bendicioaren egarri andiarequin. Ea medicu besteric ez becelacoa: atoz len bait len gure animen llaga ciquiñac garbitzerá, ta cendatzen. Ea ondasun guztien emallea: aberastu ta apaindu itzatzu arren gure anima urricarriac zure gracia ta virtuteaquin. Aundia da Jauna gure premia, baña baita ere da chit aundia zugan daucagun confianza, ecusiric egunoro jachitzen cerala Sacramento Santu onetara gure animen oneraco. Adoratzen zaitugu, alabatzen zaitugu, amatzen zaitugu, ta orain nai hadezu Jauna, gue mesede berri bat zuri escatzea, aditu ondo Jauna



gure escari au: gue biotzetic deseatzen deguna da zu ez ofenditzea; milla bider ere iltzea nayago izatea pecatu mortalean beiñic beiñ erortzea baño. Arguitu itzatzu Jauna gure entendimientuac, zare ontasun maitagarria ezagutzeco; ta eman bear diguzu asco adiña gracia zure biotz Jaungoicozcoa amatzeco, Ceruan Aingueroac amaizen zaituzten becela. Eman guri Jauna; asco adiña gracia ari gaitecen esaten Ceruan eternidade guztian, amatzzen zaitugula, Aingueru ta Santuarequin battean. Ea Virgiña Maria: ea Aingueru Guardacoac: ea Ceruco Santuac: arren lagun zaiguzute amatzzen Jesus, eguiaz maitegarria beste gauza guztiac baño gueyago. Amen Jesus.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

O María, gure Señora! Zu ceralaco Jaungoicoac negarrezco mundu onetan

niñi izan cigun atseguintasunic audiencia: zu ceralaco mundu gaizto onetan izaten ditugun eramanquizunac gozatzen dizquitzun Cerotic jachitaco alibioa: zu ceralaco gure barrengó illumpeac arguitzen dituzun izar ederra: zu ceralaco gure argaltasunai indar aundia ematen diezuna; gure premiac erremediatzen dituzuna; gure erorquerac jasotzen dituzuna; gure biotz llagaz beteac sendatzen dituzuna; gure suspirio samiñac gozatzen dituzuna; ta gure beguietaco negar malcoac legortzen dituzuna; zu ceralaco pecatuan erortzeco peligroac deseguiten dizquigutzuna; ta iñoiç pecaturen batean erortzen gueranean, negargarrizco estandu artatic ateratzen gaituzuma: azquenik zu ceralaco gure animac zucen Cerura eramatzen dituzun bide zabal zorioneco ura: itzuli itzatzu arren gugana zure begui urriquitsu oriec. Zu becelaco Señora prestu, ta ama urriquitsu batec ecin despreciatu ditzaque bere seme ta alaba urricarrien escari humillac, eta amoro-



soac. Irichi bear diguzu bada gaur es-
catzen dizugun gracia, ¡Oh Erreguiña
aberatsa! ¡Oh Doncella zoragarria! ¡Oh
Ama urriquitsua! ¡Oh Maria maitegar-
ria, Ceruco Ainguera guztiak baño ere
gueyago! Zorionecoac eguiaz zure ega-
pean bici diranac. Zabaldu itzatzu bada
ega Jaungoicozeo oriec gure gañean ere;
ta gorde gaitzatzu alde guztietafic Infer-
nuco etsayac ēein arrapatu ez ditzan gu-
re anima gaiššoac, guero zurequin izan
ditecen Ceruco Erreinuan eternidade guz-
tian. Amen Jesus.

LAUGARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Mundu onetaco adisquideac, batez-
ere aspaldian alcar icusi izan ez dute-
nean, alaco atseguintasunac billatzen di-
tuzte alcarrequin itzquetan egotean ece,
pasatzen dituzte ordu ta egun osoac, bata
besteagandic ēein partitu izaten dirala;

alaco poza sentitzen dute barrenean alcar-
requin daudela, Jesu-Cristo gure Jauna-
requin bada Sacramentu Santu onen aur-
rean ordu laurden bat ere ez pasatzeko
billatzen, edo sumatzen ditugun aitzā-
quiae, sentitzen ditugun naigabeac, eta
Elizan gaudela iruditzen zaigun dembora
ain luceac, ēcer aditzera ematen digu oz-
tasun, edo epeltasun onec? ¡Ay Jauna:
cer aditzera emango digu! Chit guchi
amatzen degula zure ontasuna, ta argatic
ain laster aspertzen guerala zure aurrean.
Orain Ceruan zurequin dauzatzun San-
tuac mundu onetan bici izandu ciranean,
Sacramentu Santu onen aurrean billatzen
cituzten beren zoriontasen guztiac, beren
barrengo gloria guztia. Santa Teresac itz
eguin cion Cerutic here ordenaco Reli-
giosa bati modu onetan: gu Ceruan gau-
deniac, eta zuec munduan bici ceratenac
izan bear guenduque gauza bat garbita-
sunean, ta amorio Santuan, gu gozatzen
Ceruan, ta zuec sufrizten Ceruco gloriaren
egarria: baita gue eguiten deguna Ce-



LAUGARREN EGUNECO

ruan Jaungoicoarequin, eguin bear cenduquete zuec Sacramento Santuarequin. ¡Oh Bildots humilla, iſſill iſſillican Gurutze batean azqueneco 'asnasa eman-cenduana! Oroitu zaite ¡Oh Arzai eguiaz-coa, ta ona! gure animac dituzula erio-tzaco orduan zure odolarequin erosi cini-tuan ardi galdu aec. Gu zure artaldeco ardiac izatea, ta zu gure Arzai maitea izatea, Jauna, da guc mundu onetan gueyen gueyena deseatu bear guendu-queana. Zuc eman cenduan gure pecatuen zor guztia; zuc erosi guinduzun Calvario-co mendian zure zañetaco odol balioso-arequin; argatic zureac gaituzu alde guz-tietatic beguiratuta; eta alaſſe guc ere nai izan bear guenduque osoro zureac izatea gaurdanic asita eternidade guztian. Zure escuetan jarri bear guñaque osoro, zuc eguin dezazun gurequin naī dezun guztia. Zu izan bear ciñaque gure voron-datearen jabe; zuc lotu bear ciñituke amoriozco calequin gure sentido guztiac beñere gueyago iguesi eguin ez dezaten

VISITAC.

zugandic, eta beti zure vorondate santua-ren mendean igaro dezaten emengo bi-citza eguiaz negargarrizcoa. Mortificatu bear guenduque beti ta osoro gure vorondatea zurearen contra jaiquitzen da-nean, sinisturic vorondate au degula gure etsay guztien artean gaiztoena. Cergatic badia Jauna, eguin bear ez degu? Norc eragotzi bear digu emendic aurrera egui-ten zuc esaten diguzuna? ¡Oh ichumen negargarria beguietako argui guztia quen-zen diguna, cein icusi ez dezagun eguz-qui ederra, ta erori gaitecen noiz nai pecatuetan, illumpetan dabiltzanac eror-zen diran becela! Ayenatu ezazu arren Jauna, gure beguien aurretican obei beltz origaiztoco au, icusi dezagun emendic aurrera zuc aguintzen diguzuna, ta guri conyeni zaiguna. Lagun zaiguzu atera-zen len bait len gure barrendican orain-año pecatu eraguin izan diguten nayera quin guztiac, lenago Jerusalengo Tem-ple Santutican bota izan cinituan becela, emple artan egon bear etzuten gauzac.



44

LAUGARREN EGUNECO

Garbitu itzatzu gure biotzac, ura garbitizan cenduan becela, gaurdanic izan ditecen Espíritu Santuaren Templo biciac. Gure pensamentuac izan ditecela zu nola ongiiena obedecituco dizugun, u gure deseoa beti zu servitzecoac. Amatu nai zaitugu. ¡Oh gure Salvatzalle maitegarria! Amatu nai zaitugu biotz guztia requin, zu gure amorioaren billa zabitzalaco: amatu nai zaitugu, gure biotz guztiac ondo mereci dituzulaco. Eta ecei honra andiagoric gure biotz argalaren tzaco, cein gloria honragarriagoric guretzaco, zure biotz amoroso orren barrenean izatea baño? naigabe aundia datcagu Jauna, oraindaño amatu, ta servir bearrean, ofenditu izan zaitugulaco. ¡Ce zorionecoac izango guñian orain, ta etenidade guztian, beti zure amorio, ta servizio santuan bici izan baguiña! Bai; cein zorionecoac izango guñiaque oraidian, gaurdanic asiko baguiña guoraindañoco esquer gabequerien penitenciae eguiten, ta pecatuen zorra pagatzel

VISITAC.

45

Ala bada Jauna, asitzen guera mereci dezagun zoriontasun au, eternidade guztian iraungo duana. Amen Jesus.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Oh Maria, gure Señora! Zu batez ere zaitugulaco gure animen defensore consolagarria, zue eraman bear gaituzu erreinu orretara, zuc gozatzen dezun gloria admiragarrizcoaren parte chiqui bat bida ere, gozatzeria. Bay, ¡Oh Aingueruen Erreguiña, ta gure ondasuna, gure bicitza, gure atseguintasun eguiazcoa, gure prenda zoragarria, gure gaztelu segurua ta gure biotzaren onguille mailegarria! Zu cera Ceruraco bidea; eraman gaitatzu bada bide orretatic, escutie elduta bada ere. Zu cera izar arguia; arguitu itzatzu bada gure beguiac, bilatu dezagun Ceruraco bide zucen au. Zu cera gure animen bicitza, biurtu gai-



itzatzu bada pecatutic graciara, epeltasunetic berotasunera, munduko gauza debecatuen naitasun eiquiñetic Jaungoicoaren amorio santura. Esnatu gaitzatzu Señora, oraindaño lurrean gure atseguntasunac billatu izan ditugun becela emendic aurrera alchatu ditzagun gure biotzac Ceruco atseguntasun eguiazcoetara. Zure esperanzan bici guera mundu negargarrizco onetan. Zuri beguiratzen dizugu emengo olatu chit peligroso oenartetik, araco illumpetan ichasoaren erdian daudenak ifar aldeco izarrari beguiratzen dioten becela. Izar argui arcera maten ditu zücen zucen beren bidean deseatzten duten errira allegatu arte guztian: alaſſe bada zue ere, ¡Oh goiz aldeco izar miragarria! alaſſe eraman gaitzatzu gu ere Cerurako bide zucenetikan; erreinu orretan gure betiko zoriontasunac irichi arterao. Zu cera Trinidad de Santismoaren aurrean iduqui aldezaguegun bitartekoie onena, Jesu-Cristo gure Jaunaren urrena: ¿Nola bada zuri falta-

tuco dizu escatzen diozan mesederic zure devotoentzaco izan ezquero? ¿Cer ucatu aldeiquio Aita Eternoac bere Alaba maiteari, Seme Jaungoicoac bere Amaria, ta Espiritu Santuac bere Esposa biotzeoari? Ea bada Maria, Alabaric ederreña, Amaric maitegarriena, ta Esposaric zoragarriena: jarri zaite bitarteko zure Aitaren, zure Semearen, ta zure Esposoaren aurrean, onela mereci ditzagun betiko zoriontasunac, Ceruan Aingueruac eta Santuac gozatzen dituztenac zurequinbatean. Amen Jesus.

BOSTGARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

¡Ah gure Jauna, ta Jaungoicoa! ¡gure Erreguea, ta gure Jabe maitegarria! ¡gure sentidu guztiac balira biotzac, eta mingañac, zuc Sacramentu Santu orretan eracusten diguzun ongui nayari,

amorio zoragarriari esquerrac ecin conta
ala gau ta egun ematen aritzeko; zuc
mereci dituzun alabanzac cantatzen ordu
ta instante guztietan egoteco! Bada beti
billatzen zaítugu prest Jauna, guc nai
degun guztian, zu beti zaude beguiac za-
balic, gure premiac ecusteco; belarriac
prestaturic, gure escariac aditzeco; escuac
graciaz beteric dituzula, gure nai gabeac
deseguiteco: ta biotzeco atea idiquitzen
diguzula, guc nai degun guztian zure
barrenean sartzeco, gure estutasunetan
asnasa artzera, biotzeco suspirioac alai-
tzen, ta beguietaco negar malcoac legor-
tzen. ¿Cein atrebituco ez da Jauna esa-
tera, ecusi ezquiero zuc aldare orretan
ematen dizquigutzun señaleac, nor-
esango ez du, zuc guri diguzun amorioa
gueyeguizcoa ere badala? Ecusi ezquiero
Sacramento orretan ematen diguzula al-
dezaquezun guztia? Ecusi esquiero eguiten
dituzula aleguin guztiac, zure amorioare-
quin gure biotzac erosteco? ¡Ah Jesus,
gure biotzeco prendaric maitegarriena!

Eman bear diguzu amorio andia, amorio
iracequia, bada ez du fedeac eracusten,
ez du legueac aguintzen, ez du arrazoyac
esaten, oraindañoco epeltasunarequin
amatu bear dala zure biotz Jaungoicoz-
coa. Ecarri gaitatzu zugana nai ta nai
ez bada ere: eraman Jauna zugana amo-
riozeo socaquin lotuta; ta arguitu itzatzu
gure entendimentuac, ecusi dezagun zu-
re edertasuna, bada aušše dezu Jauna
moduric onena gure biotzac erosteco, zu-
re edertasuna nolacoa dan guri eracustea.
¡Oh aunditasun miragarrizeoa! ¡Oh on-
tasun azquen gabea! Zuc maitatzen ditu-
zu cristau guztiac: zuc egun dituzu ala-
co gauzac Cristauai zure amorioa eracus-
teagatic: Zuc sufritu dituzu alaco tormen-
tuac, cristauac beren peçatuaquin zure
Aitari emandako ofensen zorra pagatzea-
gatic: zu beti zaude gure animen gañean,
infernuco etsayac cein galdu ez ditzan,
araco arzai eguiazcoa bere artaldeari con-
tu eguiten egoten dan becela, otso gaiz-



toen atzparretatic bere ardiac libratzea, ta defenditza gatic: baita zuc dauzcatzu Ceruan alaco ondasunae cristauai emateco, mundu onetatic ateratzen diranean: Alaz guitziaz ere cemba cristau billatzen dira, bear dan becela zu amatzera, ta servitzera sayatzen diranae? ¡Oh Adanen seme ta alaba esquer gaiztocoac! Baña ez degu Jauna, urratira joan bearrie esquer gaiztocoen billa; Eliz onetan arquitzten dira zorigaiztoco oec: gu guera Jauna, oraindaño ain gaizqui eranzun izan diogunac zure amorio santuari; ala ere lorrac mantendu izan gaitu, ta criatura guztiae servitu izan gaituzte, zuc alaſſe aguindu izan diezulaco. Ez bada arren Jauna, ez arren onelaco esquergabequerriac emendic aurrera. Gaur dauzcazu Jauna, gure biotzac, oraindaño ain esquer gaiztocoac zuretzaco izan badira ere; gaur billatzen dituzu prestaera onean, zuc nai dezuna eguiteco. ¿Cer nai dezu bada Jauna, gaur danic guc eguitéa? Ecusi dezagula ondo, nolaco graciae artu izan ditu-

gun oraindaño zure escuetatic? Considera dezagula ondo, cemba aldiz zuri itza eman dizugun, onduco guerala, bai onduco guerala? Pensa dezagula ondo, itz oec nore esan izan ote dituan, edo mingaÑac bacarric, edo biotzarequin batean? Orra bada Jauna, ezagutzen, consideratzen, ta aitortzen ditugu egui oec gure barrengo samintasun andiarequin. Aitortzen degu oraindañoco itzac bacarric mingaÑarenac izan dirala. Gure vorondate engañañagarriac eracutzi izan digu Jauna, esaten oituraz becela, zu amatzen zaitugula; ondu bear guerala; zu servitu nai zaitugula; pecatariac guerala; oitura gaiztoac utzi bear ditugula; ta onelaco itz eguiaz engañañagarriac esaten icasi degu Jauna. ¿Baña itz oec atera izandu dira biotzetic? ¡Cemba obeto izango litzaque galde oni eranzutea ez mingaÑac baña bai biotzetic aterataco suspirioac, ta beguie-taco negar malcoac! Atera dedilla bada Jauna, orain ematen dizugun itza biotz barrendican. Ez dezagula gaurdanic emen



52

BOSTGARREN EGUNECO

deseatu beste gauzarican, baicican orain-dáño egindako pecatuen, ta gure esquer-gabequerien penitenciak egitea, ta emen-dic aurrera zure amorio santuan des-tierro au pasatzea, josita becela pensa-mentuan daucagula zure Pasio Santua, ta eriotza gu gatic sufritu izan cenduana-Munduko ondasunac eman Jauna, dese-atzen dituanari, edo zuc nai dezunari; bada gaur danic gue billatuco, ta deseatuco de-guna da zure amorio zoragarria. Zu ! Oh Jesus, anima garbien esposo biotzecoa! Zu izango cera gure biotzeco prendaric one-na, ta gu izango guera zure biotzaren bici lecuac, Templo Sagraduac. Zure bio-tza izango da gure biotzen ondasuna, ta gure biotzac izango dira zure biotzaren atseguntasunac orain ta beti. Amen Jesus.

Comunio espirituala.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Oh Maria, mundu guztiko Erreguina

VISITAC.

53

gu aguertu bearco guera zure Seme Je-su-Cristo gure Jaunaren aurrean, aim-beste pecatu ta gaiztaqneri egun ezquero. ¡Nore egungo ditu paqueac Jaun ain ofen-dituarequin? Ecin billatu dezaquegu zu becelacoric, ¡Oh Erreguiña guztiak Señora! ecin izan dezaquegu zu becelako hi-tartecorie, Jauna gana biraltzeo: bada Jaun arc amatzen zaitu zu ¡Oh Ama biotzecoa! Jaun arc berac amatzen zaitu zu beste criatura guztiak, baita Ceruco Aingueruac baño ere gueyago; baita zuc ere diozu Jaunari berari, Ceruan ta lur-rean arquitzen diran criatura guztiak baño ere amorio andiagoa. Prestatu zai-te bada, ¡Oh Amaric urriquitsuena! idi-qui itzatzu belarri oriec gure oracio ta escari premi aundico oec aditzeko. Gu-gatoz zure beso zabaletara infernuco etsai gaiztoen iguesi, zuc defendituco gai-tuzula uste osoarequin, ta pozarequin. ¡Cer eranzungo diogu zure Seme Jaun-goikoari eriotzaco orduan arquitzen gue-ranean, ta etsai infernucoac eraguindaco



54

SEIGARREN EGUNECO

pecatuen kontu ain estua artzen digunean? Job Patriarca Santuac esaten di guña da, eriotzaco ordu estu artan aren Magestadeac milla galde eguiten badizquigu, galde batí eranzuteco gauza izan-
go ez guerala. ¿Cein bestec bada, zuc ezpada, ¡Oh gure Ama urriquitsua! ordu estu artan lagunduko digu eranzuten galde aei? Zuc ez dezu despreciatzen pectaria, danic gaiztoena izandacoa ere, daturic belaunico zure oñesan ecusten dezunean. Zuc zure escu bedeinecatuarequin ateratzen dezu desesperaciotic; paratzen dezu Ceruraco bide zorionecoan, ta ez dezu desamparatzan alie eta bere anima erreinu orretara eraman arteraño. ¡Cembat dauzeatzu orain gloria orretan, manduan pecatari aundiak izandacoae, denboraz zu bitarteko artu izan cinduztelaco, bestela Infernura dudaric gabe joan bearco zutenac! Ea bada Maria, Amarie gozoena; urrical zaite arren guzaz ere: eguin itzatzu paueac Jesus zure Seme, ta gure Juez aserraturic daucagu-

VISITAC.

55

narequin, aimbeste aldiz ofenditu izan degulako; alcanzaturic emen gure peca- tuen barcacioa, ta Jaunaren adisquideta- suna, mereci dezagun zurequin batean guretzaco daukan gloria gozatzen egotea eternidade guztian. Amen Jesus.

SEIGARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Jesu-Cristo gure Jaunac esaten digu Evangelio Santuan ece, bacoitzac bere ondasunac dituan lecuan izaten duala bere biotza ere. Argatican Santuac mundu onetan bici izandu ciran artean nola es- timatzen, ta amatzen etzuten beste onda- sunican, baicican Jesu-Cristo gure Jau- na bera, beren biotzeo naitasun guztia- ceuzcaten josita becela Sacramentu San- tu au arquitzen zan toquian, edo Elizan. Gure Jesus chit maitegarria: Sacramentu orretan aimbesteraño humillaturic zau- dena, gure biotzaren jabe noiz edo noiz



eguingo ceralaco pozarequin: ¡Cembat costatzen zazu Jauna, gure vorondate osoa zure mendera eramateal! ¡Ay Jauna! eza-gutzen degu bai; ondo aguirri da lurrean bici guerala, gure biotzac lurrezcoae dirala, lurrac beti bereganha eramaten gaituala, ta lurretican inolako moduz ere ecin atera guerala. Ondo aguirri da lurrean gabiltzala emengo ondasunen ta atseguntasunen billa, emengo ondasunetan, ta atseguiñetan gure betico zoriontasunac arquituco balira becela. ¡Cein gauza negargarria, Jauna, guchiena uste izaten danean, nai ta nai ez utzi bear izaten diran gaucen billa alaco gose ta egarriarequin ibiltzea, ascp aldiz gure betico ta Ceruco zoriontasunac galtzeco peligroan jartzen guerala. Ea Jesus: gure biotzac erosteko bear dan guztia emana daucazu: zure aunditasun pareric ez duana ya ecer ecetara ecarri cenduan: zure gloria guztia utzi cenduan: lurraren gañean arrastaca dabiltzan arraquin zure burua bat eguin cenduan: zure zañetaco odol guztia

eman cenduan: eta cer gueyago Jauna? Zure bicitza ain baliosoa, zure asnasa Jaungoieozcoa saldu cenduan gure bioitzac erosteagatik. Ona emen Jauna, nola daucazun eguiña bear dan guztia, gure biotzac zugana eramateco berac nai ez datela baldin bada ere. ¡Cer falta da boda orain Jauna? ez eguiaz beste gauzaric, haicican zuc gogotic nai izatea, ta guri ois eguitea. Zuc esan cenduan Evangelio Santuan ece: zure laguntasuna gabe ecin iñor ere ondo ditequeala. Badaquigu Jauna, laguntzen diguzula, baña orain-dañoco laguntasunae ez ditu bigundu izandu gure biotz gogorrak, ezditu bero-tu izandu gure barren gelatuac. Emen-dic aurrera bada Jauna, arren presta zai-guzu laguntasun pisca bat gueyago gure vorondate pisuac lurretik alchatu ta zu-gana eramateco: emendic aurrera amorio gueyago zure pasio santua, ta eriotza cruel ura consideratzeko, damutasunaren aundiz barren guztia erdiratzen zaigula. ¡Oh Sacramentu veneragarria! ¡Cein an-



điac, cein miragarrizcoac dira zure amorio santuac eguin izan dituan, ta beti eguiten dituan, aleguiñac gure animetan sartzeko! ¡Oh Aita Eternoaren Seme Jaungoicoa! etzan contentu izandu zure biotz maitagarria gugatik guizon eguin da eta hein bacarric gurutzean ill ta baicican guri ciñiguzun amorioaren aunditasunac ematen cizun barrengoa egarria nolabaitean asetzeagotic, guelditu ciñan Sacramentu Santu onetan beti gurequin izateko, gu mantentzeco, guri laguntzeco, eta guri, Cerurako izango guerala, aditzera emateko. Zu aguertu ciñan gure artean estalpe batean aur humill bat eguiñe; guero eche chiqui pobre batean ain bearzua zure gaztetasun guztia igarotzen dezu; eta azquenik jarri ciñan cincilika gurutze batetikan pecatari chit andi bat izan baciña becela; baita orain aguertzen cera egunoro Sacramentu Santu onetan, gungandican iñolako moduz ere ecin partitu cerafa, aditzera emateagotic. ¡Cer beseric asmatu alcezaquean, cer gueyago

eguin alcezaquean zure ontasun zoragarrikoac gure biotzac beren toquitik atera, ta zurearequin bat eguiteco, ta Cerura eramateko? ¡Oh ontasun azquengabea! ¡Noiz asiko oteguera eguiaz, ta gógotik zu amatzen! Ea Jesus: quendu bear diguzu gaur edo bicitza, edo biotza. ¡Certaraco bicico guera gaurdanic munduan zu amatzeko ez baldin bada? Eta cer eguin bear dute gure sentiduac emen bici gueran arte guztian, zu servitu, ta maitatu ez baldin bada! Emendican aurrera ez dezagula Jauna iduqui beste deseoric, baicican zura vorondate santua nola eguingo degun. Bas ta Jauna, oroitzen gueranean zu jayotako estalpe humil artzaz, zu bicitutace eche pobre artzaz, eta zu ildako Gurutze cruel lotsagarrizko artzaz, piztu dedilla orduan gure biotzean zure honran, ta alabanzan gauza aundiak eguiteco gogo ira cequi bat, zuc gure oneraco gauza ain miragarrizkoac eguin cinducen becela. ¡Ay Jesus! ¡cein gauza aundiak eguin dituzu, ta cemba samintasun zure biotzari



eman dioceazu guri diguzun amorioaren andiz! Gue ere bada maitatu dezagula zure biotz eguiaz maitegarria, gure biotzac zure amorio santuan urtutzeroño emen bici gueran artean, guero gozaizco Ceruan zure gloria. Amen Jesus.

Comunio espiritualak.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Zu cera, ¡Oh Maria, Doncella chit garbia! Zu cera eguiaz emacume zorjonecoa. Zure biotzean billatu cituan Jesu-Cristo gure Jaunac bere barrengo atseguintasunac, ta zuri eman cizquitzun bere ondasun guztiac. Arrazoi oni beguiratuta mundu guztiac ezagutzen zaitu, ta aitorzen du zu cerala Trinidad Santísimoaren bicilecua, ta Templo Sagradua. Zure sabel bedeincatuan izan zuan asiera zorionecoa guizon galduaren erremedioac; eta zu bittarreco ciñala eguin ciran betico paqueac Jaungoico Juez ofendituaren, ta guizon pecatariaren artean. Zu cera Escritura Sa-

graduac esaten duan lore ederrezz apaindutaco, ta inguru guztiticondo ichitaco baratza miragarrizco ura, ¡Oh Jaungoicoaren Ama Santa! Zure edertasuna, ta usai gozoa galdu eracitzena beñere iñor sartu izan eztana. Zu cera virtute guztien ispilla, arguia. Zukan para cituan Jaungoicoac jardin chit eder batean bcela, zugan para cituan aren Magestadecak bere jaquinduriarequin asmatu izan cituan loreric ederrenak, ta usairic gozoena ematen dutenak; baña batez ere araco clavelin usai ain gozoa ematen duan ura; arrosa zuri gorri eder ura; eta lore eder munduan beñere pareric izan ezduan ura. Au da, zu cera virtute guztien Erreguiña, baña batez ere humiltasunarena, garbitasunarena, ta amorio santuarena. ¡Norequin berdinduko zaitugu, edo nun billatu dezaquegu zu bcelacoric! ¡Oh Aingueruen Erreguiña! ¡Cemba gracia écarri dituzu Cerutic mundura, iturri ugari batec ur gozoa, ta otza errira ecartzen duan bcela! Zu cera



Aita Eternoaren Alaba eguiaz atseguiñagarria: zure sabel garbitic atera zan Ceruco ondasun guztien emallea: ta zure esuetan daúcazu ondasun oec gordeac dau-den Cerueo cucharen guiltza. Idiqui ezazu bada arren cucha Jaungoicozeo ori, ta za-baldu itzatzu gure artean graciac, animac salyatzeco bear ditugunac, eta conveni zaizquigunac. Badaquigu Señora prestua, ta aitorzen degu alašſen eguiten dezula zure biotzeco devoto maiteaquin, egun bada gurequin ère, zuc biraltzen dizqui-gutzan gracieng laguntzarequin mereci de-zagun beti zurequin izatea. Amen Jesus.

ZAZPIGARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Jesus gure animen artzai maitegarri gugatic bere bicitza eman izan zuan Jaun onec, ecin sufrituric ill ezquero ere gu-gandic alde eguitea, asmatu zuan Sacramentu veneragari au, beti gure ar-

tean izateagatic. Ona emen naucazute ne-re biotzeo ardiac, esaten digu aren Magestadeac Aldare artatican, emen daucaze zuen arzai maitegarria beti zuei beguira: zuec gatic guelditu nintzan Sacra-mentu onetan emengo bicitza negargar-rizcoa zuei ondo pasaeracitzen laguntzea-gatic. Emen billatuco naznute beti prest zuen naigabeac gozatzeco, ta zuen bio-tzac poztutzeco. Etzaituztet desampara-tuco mundoço peligroetan bici ceraten artean. San Pedro Alcantaraco Santu gloriosoac esaten du ece, Jesu-Cristo gure Jaunac deseaturic utzitzea adisquide, ta laguntzalle loyal bat gure Eliza Ama Santuari, mundoço peligroac, eta etsayac ven-zutzen lagunduço ciona, esposo batec be-re esposa gayari, urrutira dijoanean, utzi-tzen dion becela; consideraturic aren Magestadeac adisquideric, ta laguntzalle-ric onena bera izango zala, pensatu zuan bera guelditzea Sacramentu Santu onetan, artean izan cion baño ere amorio andia-goaren señaleac ematen ciozcala. Ah gu-



re Jauna, ta gure animen salvatzalle chit maitegarria! Orain gatoz Jauna, Aldare orretan zu visitatzeria, ta adoratzeria, baña zue pagatzzen diguzu visita au amorio eguiaz zoragarriarequin, batez ere Communio Santuan gure biotzetara etortzen ceranean. Orduan ez bacarric jartzen cera gure beguien aurrean orain zauden becela, baita ere sartzen cera gure biotzaren barrenean, gure animaren janari gozoa eguiten cerala. Zorioneo ordu artan zu guztia gurequin bat eguiten cera, ta gue esan dezaquegu eguiaz, orain Jesns, zu guztia gurea cera. Bada ¡Oh arzai amoriotsua! Zuc zure biotz guztia guri ematen badiguzu, arrazoi da Jauna, gue ere zuri gurea ematea. ¡Oh Jaungoico aundia! ¡Oh gure animen jabe mai-tegarria! ¿Noiz esango degu gue biotzetic eguiaz osoró zureac guerala? ¿Zureac guerala ez bacarric mingañarequin, baita ere biotzarequin? Zuc bacarric Jauna, zuc bacarric eguiñ dezaquezu gure biotzaren aldaera zoragarri au. Eman zayozu bada

indarra, eman Jauna virtutea gure biotzari, zu emendic aurrera gueyago amatzeco. Mesede au escatzen dizugu zure pasio santuan gu gatic iSSHuri izan cendoan odol Jaungoicozco ura bitarteko paratzen dizugula. Zureac izan bear guera Jauna, eriotzaco ordura allegatu baño lenago: zureac izan bear dute gure pensamentuac, gogoac, itzac, eta eguiten ditugun gauza guztiac. Zuc aditzen dituzu guztien escaciac, aditu itzatzu bada orain gureac ere, ergotic deseatzent degu zu biotzetic amaztea, zureac izatea. Bai Jauna, deseatzent degu zu amatzea, ta zure vorondate santnari obedecitzea, baña obedecitzea zuc aguntzen diguzun guztian, zure adisquidetasunean bici izateagatic, beste ganzaric deseatzent ez degula; bada obediencia amoriootsu au, ta gueyago zor diogu zure biotzaren leylatasunari. Amatu nai zaitugu, zure amorioari amorioarequin eranzun bear zayolaco. ¿Nore eguiñ dizquigu beiñezre zuc becelako mesedeac? Eta zure escue-



tatic artutaco mesedear eranzun bear zatela epeltasunarequin, oztasunarequin, desprecioarequin? ¡Ay Jauna! gu zuretzaco ain esquer gaiztoocac izan baguera ere, guero besteac gandic artu bear izaten ditugun esquergabequeriac ondocho sentitzen ditugu. Ea bada Jesus: emendic aurrera ez sentimenturic gueyago zure amorioari: zu batez ere amatucu zaitugu; zu billatuco zaitugu; zure adisquidetasunaren egarriarequin bicico guera azque-neko asnasa eman arteraño, guero izateco beti zurequin. Amen Jesus.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Oh Ceruco Ajngueruen Erreguiña! Zure gañean itz eguiten du escritura sagraduac, esaten duanean, arrituric: ¡Cein da, goiz aldeco Izar argua becela, mundu onetara aguertu dan emacume miragarriori, illargua becin ederra, ta eguzquia-

ren apaiaduriarequin? Bai Señora: zu sortu ciñan munduan, araco goiz aldea ateratzen dan Izar arguiaren edertasunarequin, aditzera ematera guizonai, laster datorquitela Jesu-Cristo eguzqui eder miragarri ura, emengo illumpe guziac argitzera. ¡Oh egun zori onecoa zu mundura etorri izandu ciñana! eguiaz esan dezaquegu, izandu zala ura salvacioco eguna, ta graciaz betea. Zu ¡Oh Erreguiña paregabea! Zu comparatzen zaitu Escritura Sagraduac Illarguiarequin, bida Illargua nola dan Eguzquiaren antze-coa, alašsen cera zu, beste criatura guztien artean. Jesu-Cristogana gueyena alderatzen cerana. Illarguiac arguitzen ditu gabeco illumpeac, eta zuc arguitzen ditu zu gure entendimendu illonac zure virtutequin. Baña zu ¡Oh Señora zoragarria! zu cera Illargua baño ere ederragoa ta arguiagoa. Illarguiac baditu mancha batzuec, contuz beguiratu ezquiero icusten zaizcanac; baña zugan, ta zure virtute- etan ez da billatzen batere mancharican,



Aingueren beguaquin, ta atencioric andienarequin beguiratzen bazaitzu ere. Zu cera Eguzqui beraren antzeco; au da, Jesu-Cristo Jaungoico eguiazcoari bere pauso guztietan iñorc baño obeto seguitu izan diozuna, bere virtute guztiac miragarrizco moduz imitatu izan dituzuna. Jesus da guizon guztien Erreguea; eta zu cera criatura guztien Señora. Iza zaite bida gure defensore consolagarria ere. Amen Jesus.

ZORTZIGARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Jesus, Sacramentu Santuan visitatzen duan edocein animari esaten dio aren Magestadeac, lenago Jaun aren ganaco amorio Santuan deseguiten cegoan anima devota zorioneco bati esan izan cion becela: Jaiqui zaite nere adisquide maitea: atoz lasterca nere biotzeco prenda estima-garria: atoz. Ni visitatzera zatocen ; Oh

anima devota! atera zaite estadu argal negargarri orretatic, eta atoz nigana; bada neronec bacarric sendatuco ta aberastuco zaitut, eta eguiaz zorionecoa izango cera: emenchen billatuco nazu besoac zaballic, zuc nai dezun guztian, zure premiac erremediatzeco. Atoz lasterca: allega zaite nigana: ez bildur izan, nere anditasunari beguiratzen diozulako; bada emenchen naucazu ain humilla, ostia chi-qui onen barrenean nere Magestade guzta ezcuztaten dedala, zuri beldur gueye-guizcoa quentzea, ta esperantza osoa emateagatic. Damotasun eguiázcoarequin ni gana biurtu ceran anima zorionecoa: etzera orain nere etsaia, eta bai nere adisquidea; orain cera nere alaba, ni biotzetic amatzen asi ceralaco, eta nic ere amatzen zaitudalaco. Arrosa ederra, nere graciak orrela apaindu zaituana: atoz nere besartera, laztan gozoac artzera, eta nai dezun guztia confianzarequin escatzera. Santa Teresac esaten du ece, Ceruco glo-riaren Erregue miragarrizco onec artu nai



izan zuala Sacramento veneragarri onetan oguiaren, ta ardoaren antza, edo irudia, gure animac gosetzen, ta egarritzen cira-nean, allega citecen pozarequin, mai sanguadu onetara, premia guztien erremedioa izango dutela siniste osoarequin. Allega gaitecen bada confianza andiarequin, eta biotzeco naitasun, edo afecto guztiarequn, Jesus amoroasoagana, bat egun gaitecen berarequin, eta bear degun guztia escatzen. ¡Oh Jaungoicoaren Seme eguiazcoa, Maria Santissimaren entraña garbietan guizon eguiña, ta Sacramento Santu onetan miragarcizco moduz guelditua! Nolakoac izan bear dute orain gure barréngoa pozac, jaquiñic gure mediku ja-quintsuaren, gure Maizu eracuslearen, gure Erregue defensorearen, gure Aita amoroosoaren, ta gure Esposo biotzeoaren aurrean arquitzen guerala, eta aren Magestadeak bere beguia baño ere gueyago estimatzen gaitual? Ceruan, ta lurrean arquitzen ceraten ¡Oh Aingueruac, eta anima Santac! amatu arren zuec gure

partetic beñere aspertu gabe, alaco amo-rioac mereci dituana, eta lagundu guri ere amatzen, gure biotzac urtutzeroño.

¡Oh Virgiña María Jaungoicoaren Ama Santa, ta gure Señora Erreguiña! lagundu bear diguzu amatzen biotzelic zure Seme, ta gure Erregue au Ostia sagradu onetan. Eta zuc ¡Oh gure Jaun eguiaz maiñegarria! eraman itzatzu zugana gure biotzac, nai ez luquetela bada ere: egin zaite gaur gure vorondatearen jabe: zure mendean paratzen ditugu gaurda-nic gure entendimentuac, peasatu ez de-zaten beste gauzaric, baicican zure biotz amoroosoaren ontasunaren gañean. Ema-ten dizquitzugu gure gorputzaren senti-duac, izan ditecen zure servicio santuraco, baita ere Jauna, or dijoaz zure mendera gure animac ere, emendic aurrera osoró zureac izatera. ¡Ay Jesus amorio guziac mereci dituzuna! Cembat nai guenduque, mundu onetaco guizon guziac izatea zu czagutzeco bear duten arguitasuna, ta bi-ci izatea zu honratzen, ta alabatzen zai-



72

ZORTZIGARREN EGUNECO

tuztela cerorrec deseatzen, ta ongi mereei dezun becela. Guc beñic bein auñšen da Jauna, gaur artzen degun gogoa, beñere joango etzaiguna, zu servitzeco, zu honratzeco, zu alabatzeco, zu amatzeco, eta zure vorondate santuari, emen bici gueran arte guztian, seguitzeco, zue laguntzen diguzula. Amen Jesus.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Oh Maria, gozotasunez betea! Oh Erreguiña, gloriaz apaindual! Oh Ama, guztia beti maitagarria! Ecin iñore ere esan dezaque bear dan becela zure icen zoragarria, bere biotzean zuganaco amorio iracequia artu gabe; eta zuzaz acordatzeara bacarririk da asco adiña, biotz epelac, eta otzac berotzeco, surtara allegatzen diranac berotzen diran becela. Lagundu bada Señora, guri ere, gure argaltasunetan: alibiatu gure premiac: eldu gure escutic

VISITAC.

73

zure escu bedeincatu orrequin. bidean gabiltzanean, echean gaudenean, lanean ari gueranean, ta batez ere peligroren batean arquitzen gueranean. Ez gaitatzu arren desamparatu, ez galdu beñere zure beguien aurretican, erori ez gaitecen ateraco ez gueran putzuren batean, gabaz illumpean dabiltzanac erortzen diran becela. ¿Cein arquitzen da Ceruco Erreñuan zu baño alderago zure Seme Jaungoicoaren aldamenean? Ainguerurik ere ez, Señora. Zue bacarririk gozatzentzu Jaunaren atseguntasun gloriosoak, Aingueru ta Santu guztiac baño gueyago. Itz eguiñ bada Señora, itz eguiñ beti gure alde zure Semeari; bada dudarik gabe obedecituco dizu Semeric humillena dan becela, ta muudu onetan alcarrquin bici izan ciñatenean, obedecituoi izan eizun becela. Emango dizu esactzen diozun guztia zure seme ta alaba devotoen oneraco izan ezquiero. Zorionecoak eguiaz, bai zorionecoak beren confianza guztia zugan paratzen dutenac. Alañše



74

BEDERATZIGARREN EGUNECO

bada gucere paratzen degu Señora, izan
gaitecen orain ta beti zurequin. Amen
Jesus.

BEDERATZIGARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Aita Alvarez religioso veneragariac
icusi zuan Jesus Sacramentu Santu one-
tan escu biac graciaz beteac eituala; eta
nola ibilli izandu zan animen billa gracia
eder aequin apaintzeco deseorequin,
donecella gazte bat desposatzen dan eguna
nean apaintzen dan becela. Santa Catalina
Senacoa comulgatzan zanean allegatzan
zan mai Sagradu artara bicitasun ta alai-
tasun andiarequin goseac egoten dan aur
gaztechua bere amaren bularretara joaten
dan becela. ¡Oh Aita Eternoaren Seme
bacar chit maitagarria! Ezagutzen degu,
zure biotza dala Jaungoicoaren escuetatik
secula atera izandu dan gauzarie mira-

VISITAC.

75

garriena ta zoragarriena, batez ere amo-
rio Santuan; eta argatic deseátsen degu
zure biotza amatzea, zure ontasun azquen
gabeac mereci duan aimbat, edo beinic
bein anima batec amatu aldezaquean adi-
ña. Ondo ezagutzen degu Jauna, orain-
daño ain esquer gaiztoocoac, ta legue char-
recoac izan gueralaco, ez degula mereci
zuc zure mai sagradura combidatzea, eta
zu visitatzea, Elizara etortzea zu adora-
tzera, orain eterri gueran becela. Ba-
daquigu, ezdegula irabaci izan onelaco
combite amorosoric: baña Jauna, orain
bertan gaude aditzen gure belarriaquin,
zue esaten diguzula: nere seme biotzecoa:
nere alaba maitea: eman bear didazu zu-
re biotza; amatu bear dezu zure Jauna,
ta Jaungoicoa, baña biotz guziarequin.
¡Ay gure biotzeco Jesus! Oraindañoco bi-
citza eman badiguzu; oraindaño ill ez
bagaituzu, eta gure anima esquer gaizto-
coac infernura biraldu ez badituzu, asco
aldiz mereci izan duten becela, bacarric
izandu da Jauna, argitu ditzagun bein

edo bein gure animen beguiac, iensteco zure edertasun zoragarria, ezagutzeko zure ontasun ain maitegarria, ta biurtzeco osorò zugana. Bada zuc orrelaco empenñuarequin nai dezun ezquero, gure biotzen jabe eguitea, alaſſen nai degu gure, gure animac, gure gorputzac, gure sentiduac, gure biotz guztia zure escuetan paratzea, zare biotz Jaungoicozcoarequin bat eguitea. Ona emen gauzcatzu Jesus, pronto zuc nai dezun guztiraco: zure mendera gatoz: zure adisquide izatea nai degu: zure vorondate santuari obedeci bear diogu: gure biotz argalaren jabe egun nai zaitugu. Zuc escatzen diguzu alaco amorioarequin, bada Jauna, izango litzateque esquergabequeriarie andiena, ta negargarriena, guc zuri eman nai ez izatea; gure biotza zuretzaco ezaucagula zure amorioari eranzutea. Ez dizugu emango ez, onelaco sentimenturian. Zuc gure biotzaren jabe egun nai cenduque, ona emen bada gure biotza, gaiſſoa ta argala bada ere.

Gogorra da eguiaz gure biotza arria becela: otza da elurra becela: ausicorra da cristala becela: legorra ta beltza da icatza becela: baña Jesus, zuc bigunduco dezu bere gogortasuna; berotuco dezu bere oztasuna: sendatuco dituzu bere llagac, eta zuc gozatuco dezu bere legortasuna Cerutie ecarri izan cenduan ur bedeincantuarequin, janari gozoarequin, ta su amoroosoarequin. Biotz berriac bida Jauna, biotz berriac, eta obeac bear ditugu gaur danic, oraindaño baño obeto gure egunac zureganaco amorio santuan empleatzeco. ¿Certaraco bicico guera munduan zu ez amatzeco? Carobi iracequian arriac auts biurtzen dira; susco labean elur gelatua iraquitzen da; olao suteguian burnia urtutzen da. Bada Jauna: zure biotzeco su Jaungoicozcoac indar eta virtute guchiago aldaueca, carobiaec, labeac, eta suteguiac baño, gure biotzac urtutzeco, ta deseguiteco? Badaquigu Jauna, cer eranzungo diguzun, eta arrazoyarequin: zuc badezula asco adiña virtute biotzie gaiztoenac



ere ondutzeco, eta gureac ondutzen ezpadiria, gure culpaz izango dala: zure biotza beti ari dala ur gozoa ematen, baña gu etortzen ez gueralao iturri Jaungoicozco onetara, gure biotzac egarriarequin guelditzen dirala. Ala izan da Jauna, oraindaño, baña ez emendic aurrera one-lacorian baicie etorriko guera zugana aldezaquegun guztian. Amen Jesus.

Comunio espirituala.

VISITA AMA SANTISIMARI.

¡Oh Virgiña Maria! gue adoratzen zaitugu gure biotz guztiarequin. Zu cera Señora, Jesu-Cristo gure Jaunaren ondorean Cristau guztiac Ceruan iduqui aldezaquegun esperanzaric consolagarriena. Aditu itzatzu orain zu amatzea deseatzen duten pecatarien oracioac, bada zu honratzea nai degu, eta zure escuetan paratzen degu guere anima, zuc eraman dezazun zure aldamenera. Zuc iristen digu-

zu, Jaungoicoaren adisquide izateco, bear degun gracia, aren Magestadeac emanizan cizvaco zuri escubidea, cerorrec nai cenduan guztia eguideco Ceruan, lurrean, ta Infernuan. Zure laguntzaren mediox, uste degu, zure Seme, ta gure Jaun ofendituarequin paqueac eguitea, oraindaño beste pecatari ascoc eguiñ izan dituzten becela. Zuc lagundu bear diguzu libratzen gure animac pecatuaren, ta Infernuco etsayaren mendetic. Zuc deseguin bear dituzu ¡Oh goiz aldeco izar arguia! gure entendimentuaren illumpeac. Zuc atera bear dituzu gure biotzetic amorio propioaren belar gaitzoac: Zuc lotu bear dituzu gure barrengo, ta campoco etsayac: Zue obligatu bear gaituzu desterratzerako oitura eiquiñac: Zure bitartecotasuna bear degu mortificatzeko gure griñagaitzoac: Zuc azquenik erabilli bear gaituzu Cerurako bide zucenean alic eta erreinu artan irichi arteraño gure betiko zoriontasunac. ¿Norequin izan dezazuegu zurequin baño, confianza gueyago? ¡Oh



80

AMARGARREN EGUNECO

Jaungoicoaren Ama, Aingueruen Erre-guiña, ta pecatarien defensore zoragarria!

AMARGARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Oh mundutar zoroac! dio San Agustiñec: ¿nun zabiltzate zuen biotzeo atseguntasunen billa? Atozte Sacramentu Santu onengana, Jesus amoroso onengana, bada Jaun onec bacarric beteco ditu asetzerano zuen biotzac eguiazeo atseguntasunaz. Ez gaitecen bada ibilli orain guere, mundutar zoroac becela, gure zoriantasunen billa, emengo gauza engañagarrietañ. Billatu dezagun Jaungoicoa bacarric; billatu dezagun eguiazco ondasun, ta zoriantasun guztien iturria bera, eta iturri onetan edango degu urie gozoena, gure barren guztia alaituco diguna, esaten da San Agustin gloriosoac herac. Eta nai baldin badegu láster, ta erraz bilatzea, ona emen daucagu Sacramentu

VISITAC.

81

Santu onetan. Escatu confianzarequin nai dezuten guztia, esaten digu Jesus amoro-so onec, escatu nai dezutena, bada emen-he nauazute zuen oracioac aditzeco, ta zuen premiac erremediatzeco. Santa Teresa gloriosac esaten du ece, mundu onetaco Erregueaquein itz eguiteco toquia, libertadea, conveniencia, ta modua ez dutela izaten guztiac, eta gueyenac eguiñ aldezaquetena izan oi dala, beren Premi aldietañ Erregue Jaunari itz eguiteco, beste bitartecoren bat billatzea. Bada zurequin itz eguiteco, ¡Oh Ceruco Aingueruen Erreguea! zuri gure premiac aguertzeco, ez degu bitarteko bearric, cergatic zu zaude beti prest Sacramentu onetan aditzeco, ez bacarric gure itzac, baita ere gure deseoaç, gure pensamenduac, ta gure barrengoo susprioric ezcutuenac. Munduko Erregueac egun guchi izaten dituzte urtean señalatuac, beren mendecoen arrazoyac aditzeco, ta sentenciac emateco. Baña zu ¡Oh Jesus guz-



tien Juez urriquitsua! nai duanac zu
beti billatzen, zaitu Sacramentu Santu
onetan, naiz gabaz ta naiz egunez, bere
arra佐oyac aditzeco, naigabeac aliviatzeco,
premiac erremediatzeco, dituan culpac
barcatzeco, ta bere alde sentencia ema-
teco. ¡Oh Sacramentu veneragarría! zu-
re mai sagradura egunoró combidatzen
gaituzuna, eta gurequin dembora pasa-
tzeco biotzean sentitzen dezun egarria-
atormentatzen zaituana! Ecarri itzatzu
zure Templo Santura oraindaño becela,
ecarri itzatzu zugana zure ontasun pare-
gabearen egarri ecin aspertu arzaz bereu
barrenac beroturic dauzcaten anima santa
zorioneco aec, ase ta bete eguin ditecen
zure amorio zoragarri orrequin, eta bi-
ci ditecen emendic aurrera ere zure vo-
rondate santu ari josita, mundu onetan
beste gauzaric deseatzen ez dutela. Baita
ere Jauna, bearto itzatzu gure biotz ur-
ricarriac ere, etorri ditecela emendic aur-
rera zure mendean bici izatera, ta gauza
guztietan zuri obedecitzen, eta zure vo-

rondate santua nola egungo duten icas-
tera. Gaurdanic utzi ditzagun emengo
gauza guztiac, gure animac salvatzeco
balio ez dutenac. Eta utzi ditzagun zure
amorio santuaren mendean gure animac,
gure gorputzac, eta gure sentidu guztiac.
Erabili gaitzatzu Jauna, zuc nai dezun
bidetic, naiz izan dedilla biguña, naiz
aldapa gogor duna. Emango diguzu zuc
nai dezuna, ondasuná edo premia, osa-
suna edo gaitza, poz andia edo naigabea:
jaquiñic zure escuetatic datorquigula,
guztia onzat artu ta eramango degu;
baita Jauna eriotza bera ere. Zorione-
coac izango guiñaque eguiaz zure vo-
rondate santuari gogotic obedecitzen dio-
gula illico baguña. ¡Oh Cerutic jachit-
aco vorondate Jaungoicozcoa! Cein zora-
garria cera pecatari damutuen, ta zure
mendean jarri dirantzaco! Gorroto an-
di bat artzen diogu Jauna, gaur gure
vorondate gaiztoari, oraindaño asco pe-
catu eragin izan dizquigulaco. Ill bitez
gaurdanic gure griña gaiztoac; ill bedi



betico pecatua: bici bedi zure voronda-tea: bici bedi gracia: Jauna guzaz misericordia. Ala izan dedilla, Amen Jesus.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Adoratzen zaitugu ¡Oh Señora grazia betea! Jaungoico guciz poderosoa da zurequin. Adoratzen zaitugu ¡Oh Erre-guina gure biotzaren pozgarria! Ceruco ondasun guztien jabe cera. Bada zure entraña garbietan sortu izandu zan Espiritu Santuaren virtutez, ondasun guztien emallea, ta gure animen salvatzalea, Infernuco etsayaren atzaparretatic libratura Ceruraco bidera ecarri izan gaituana; gure condenacioco sentencia deseguin, ta Ceruco bendicioac ecarri izan cizquigna. Adoratzen zaitugu bada Maria, ¡Oh Trinidad Santisimoaren Templo Sagradua! Ceruco Erreguearen Palacio chitederqui apaindua! Eguiaz zu cera Se-

nora, Jaungoico osendituaren, ta guizon pecatariaren arteco paqueac egun izan cinituan bitarteko miragarria. Adoratzen zaitugu, ¡Oh Virgiña gloriosa, andre guztien artean bedeincatua! Zu bacarric cera Jaungoicoaren Ama: ¿Cer gueyago esan dezaquegu? Ceruco ta munduco criatura guziac esaten dizute pozaren andiz. ¡Oh Maria Zoriontasunez betea! allegatzen baguera zugana confianza guztia-requin, orduan dudaric gabe Ceruraco izango guera. Zuc, ¡Oh Señora poderosa! artzen bagaitzu zure contura, orduan venzutuac dauzcagu etsayen tentacioaz; bida ecin izan diteque aen gaitaqueriae zugana allegatzea. Zu cera gaztelu seguina etsayen tiro guztiai batere bildurric ez diezuna. Zu cera Ciudad oso ichia, Cerurañoco murallaquin alde guztietatic inguratua: ¿Nola bada sartu etsayac Ciudad artan zure licenciaric gabe? Bedeintauta eguiaz zugan bere confianza paratzent duana. Zorionecka zure biotzeco atea idiquitzen diozuna. ¿Izango aldegu gue-



Señora zoruntasun au? ¡Ay, cembat de-seatzen degu, ta estimatuco guenduque! Ea bada Maria: ez arren despreciatu de-seo biotzeco au. oraindañoco gure peca-tuac gatic, baicic izan gaitecen beti zu-requin emen ta Ceruan. Amen Jesus.

AMAICAGARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Sayatu gaitecen beñere ez apartatze-ra, dio Santa Teresac, eta mundu onetan bici gueran arte gure beguien, aurrethic beñere ez galtzera Jesus gure animen ar-zai amorosoa; bada arzayaren aldemenean ibiltzen diran ardiac janari ohea, ta se-guridade gueyago izaten duten becela, alaš̄en guc ere artuco ditugu mesede an-diagoac Cerutic jachitaco gure arzai onen-gandic, eta venzutuco ditugu errazago-etsayan tentacioac Jaun onen laguntzare-quin, egunetic egunera beregana gueya-go alderatzera sayatzen baguera. ¡Ah Je-

VISITAC.

sus, gure salvatzallea! Emenchen gauz-catzu Jauna, zuri beguira, aur gaztecho bat bere amari beguira egoten dan bece-la. Ez degu nai beste ganzaric, baicican maiz zu visitatzera, ta adoratzera etor-tzeco gogoa, eta beti zure aldamenean ¡Oh Arzai amorosoa! beti zu arquitzan ceran Eliza batean gure emengo destier-roa pasatzeco egarria, eta Eliz artatic ateratzen gueranean naigabe audi bat sentitzea, zugandic partitzen gueralaco; eta zure ontasuna gure pensamentuan, ta biotzean josita becela gure echetara era-matea. Guc alabatzen, ta adoratzen zaitu-gu ¡Oh fede Jaungoicozcoa! eta ematen dizquitzugu esquerrac milla, eguin izan dizquigutzun mesedea gatic. Zuc eracus-ten diguzu Aldareco Sacramento orretan, ogui bedeincatu orretan ez dagoala ogui-riç, baicican Ostia Sagradu orretan da-goala gure Jesus guri digun amorioaren aundiz. Gure Jesus, ta gure ondasun guztien iturria: guc sinisten degu Sacra-mentu Santu orretan zaudela Ceruan dau-

eazun Magestade guztiarequin: eta gure gorputzaren beguiac icusten ez bazaituzte ere, sinisten degu fedeac esaten digna, eta ezagutzen zaitugu Ostia Sagradu orretan Ceruco, ta munduko eriatura guztien Erreguetzat, eta gure animen salvatzalletzat. ¡Ah Jesus, gure biotzaren jaberik maitegarriena! Orain gure esperanza zoragarria, gure salvatzallea, gure alaitasuna, eta atseguingarria ceran becela, alaššen nai degu izatea gure amorioaren jabe, gure pensamentuac, deseoa, eta biotzac osoró zure mendean iduqui bear dituzuna. Gueyago poztutzen guera Jauna, zuc gozatzen dezun, ta eternidade guztian gozatuco dezun gloriarequin, gueroc izan aldezaquegun zoriontasun guztiarequin baño. Gure barrengoa alaitasunie andiena da, ta izango da sinistea jaquitea, zu cerala gure biotzeco prendarie maitegarriena: zu eternidade guztian zorionecoa pareric gabe izango cerala. Aguindu ezazu Jauna, gure gañean, gurase haterc bere humeai aguintzen dien

becela. Gure vorondatea, gure sentiduac, gure gauza guztiae egon ditecela beti zuxi beguiria, zuc aguintzen diezuna egiteco beñiere faltatu gabe.

Ez dezagula izan muudu onetan vici gueran arte guztian beste pensamenturic, baicican zure vorondate zoragarriari nola gusto emango diogun. Auššen izandu zan egniaz zure gogoa emen vici izandu ciñan dembora guztian. ¡Oh Maria, Jesus amorosoaren Amaric maiteeña! Lagundu bear diguzu bada arren guri ere, emendic aurrera gure pensamentuac, deseoa, eta biotzac izan ditecen zure Semarenac, zure pensamentuac, deseoa, eta biotza izandu eiran becela. ¡Oh Jesus! ¿Nun gordeco ditugu obeto gure biotz argalae zure biotzeco llaga precioso orretan baño? Oh biotz ain gogorqui llagatuac eguiaz chit bildurgarria infernuco etsayentzaco; baña ondo maitegarria anima virtuosoentzaco! Idiqui zaite arren sartu ditecen gure anima gaiššoac ere zorioneco barren orretara, beren osasu-



naren, garbitasunaren, ta bear dituzten virtuteen billa; biotz maitegarri orren barrenean bici ta ill gaitecen. Amen Jesus.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Oh Maria Ama urriquitsua! egun itzatzu arren betico paqueac zure Seme aimbeste aldiz ofendituaren, ta gu peccatiari urricarrien artean. Bai, joh erreguiña! Zu zaudelako Ceruco tronuric altueñean, mundu guztiac ezagutzen zaitu guztien defensoretzat. Guc ere bada escatzen dizugu beguietaco negar malcoac, eta biotzeco suspirioac bitarteko paratzen dizquit zugula, arren irichi dizaguzula zure Semeagandic, gure anima gaiššoac salvatzece bear degun guzia: bada gure alde zuc egun aldezakezun itz bat bacarra gure salvatzalle, ta zure Semearen aurrean baliusoagoa, ta estimagarriagoa da Ceruco Ainguera, ta Santu guztien oracioac ba-

ño. Zuc aditzera ematea zure Semeari, cer deseatzen dezun, da asco adiña aren Magestadeac berealašſen barcatzeco gure pecata guztiac, baita izugarriac izan badira ere, baita gueyago izan baciran ere. Onezaz gañera, aren Magestadeac zure deseoa ezagutzea da asco adiña gueyago pecaturic egun ez dezagun gure pauso guztietan laguntzeco; Infernuco etsai guztiai iguesi eraguiteco; eta gure griña gaiztoquin dauzcagun guerra guztietan vitoriarequin atera eracitezco. Ezagutzen degu Señora, zure laguntzaren premia chit aundian arquitzen guerala; itzuli itzatzu bada zure begui urriquitsu oriec gure animen gana. Zuretzaco honra andia izango da, gu salvatzen baguera; eta ez dezu izango batere provechuric gu condenatzearequin. Eternidade guztian egongo guera berriz zuri graciae ematen, zure aldamenera eramatzen bagaituzu, eta zuri zorco dizugu, Jesu-Cristo gure Jaunaren ondorean, zuri bai zorco dizugu, eta aitortuko degu Trinidad Santisimoaren



aurrean, zure bitartecotasunac salvatzen bagaitu. ¿Cergatic bada salvatuco ez guera Señora, zure esena ain poderosoa izan ezquiero? Ea María: urriquitu zaite guzaz orain ta eriotzaco orduan. Amen Jesus.

AMABIGARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Jesús amorosoa biotzetic amatzen duana, dago Jesús amoroosoarequin, ta Jesús amorosoa dago beti berarequin. San Felipe Neri gloriosoac, azqueneco comunioa viaticotzat eraman ciotenean, ozta icusi zuan sartzen aren Magestadea bere gueylan, esan cion humillaturic, ta devocioaren andiz biotza urtutzen citzayola: ona emen nere amorioa: ona emen non datorquidan nere amorioa. Esan dezagun bada gue ere Sacramentu Santo onen aurrean; ona emen gure biotzaren Jaberic, eta prendaric amorosoena: ona emen gu-

re sentido guztien Jauna, ta Jaungoicoa. ¡Ah Jesus, amorio eguiazcoaren iturri bedeincatua! Zuc esaten diguzu Evangelio Santuan ece, zu biotzetic amatzen zaituana, zuc ere bera alašſen biotzetic amatuco dezula, eta etorrico cerala zure Aitarequin batean bere biotzean bici izatera. ¿Nore amatuco etzaitu Jesus, orrelako zure itz gozoac aditu ezquiero? Amatzen zaitugu beste gauza guztiac baño gueyago; amatu gaitzatzu zuc ere; bada nayago degu zure amorio zoragarria, mundoeo Erregue guztiena baño. Atoz Jauna, atoz gure echera, ta arren guelditu zaite gure biotzetan, argalac, gaiššoac, ta pobrecac badira ere; baña guelditu zaite secula gueyago ez ateratzeko edo obeto esateagatic, gue secula gueyago zu ez botatzeo, oraindaño bota izan zaitugun becela, pecatu eguin degun bacoitzean. Zuc joh Jaun amorosoa! ez dezu zuc desamparatzentz gure anima, berac botatzen ez bazaitu pecatu eguin ta, eta oraindaño nola ascotan bota zaitugun,



bildurrac gaude, berriz cein guertatu ez daquigon onelaco desgracia negargarrizcoric. ¡Ay Jauna! ez arren utzi guri eguiten onelaco gaiztaqueriaric, eta secula munduan aditu ere bear ez dan esquer ga-bequeriaric. Oraindáño aimbeste mesede, ta urriquitasun zure escutic artu ezquiero; aimbeste aldiz zu, batez ere comunio santuau artu zaitugunean, gure biotzen jabe eguin ezquiero; ¿arquitzen guerala peligroan berriz ere pecatuan erortzeco, ta zure ontasun zoragarria despreciatzeko? Bai Jauna: peligro orretan arquitzen guerra: eguin dezaguegu pecatu: galdu dezaguegu oraindic zure gracia. Argatic escatzen dizugu animatic Jesus, eraman gaitatzula mundu onetatic berriz pecatua-requin zure amorio santua despreciatu baño lenago; zure adisquidetasunean ill ezquiero, izan dezagun zurequin batean betico gloria. Bai Jesus ain maitagarria: auñsen bacarric da deseatzen, ta esperatzen deguna. ¿Cein eriotza negargarriagoric, pecatuan ta zure desgracian bici

izatea baño? Eta ¿cein bicitza zorionecoagoric zure adisquidetasunean iltzea baño? Pecatuan mendean, ta zure gorrotoan bici diranac, illac dauzcate beren anima urricariac. ¿Cer balioco diote eriotzaco orduan arquitzen diranean, arte guztian ain aberatsac, eta ain zorionecoac iza-teac? Jauna: gue emen deseatzen degun ondasuna, gue billatzen degun atseguntasuna, eta gue irichi bear degun empleoa da zure adisquide izatea, zure biotzean toqui pisca bat bada ere billatzea; Zuc munduan sufritutako samintasun aen parte bat sentitzea, guero Ceruan zure al-damenean egoteco. Gaur bada ematen dizugu itza Jauna, gaur ematen dizugu itza emendic aurrera zure amorioaren billa ibillico guerala, araco balio andico gauza bat galtzen danean, gauza aren billa bere jabea ibiltzen dan becela. ¡Ay Jauna: nolaco aleguiñac eguiten dira mundu onetan emengo ondasunen, ta empleoen billa! ¡Nolaco poza ematen dute emengo atseguntasunac! ¿Ez aldegu bada besta



aimbeste beintzat eguin bear zure amorio Santua merecitzeagatik? Ez aldute ematen aimbeste alaitasun ta gueyago, Ceruan dauzcatzun zorontasunac, eternitate guztian iraungo dutenak? Oec boda billa ditzagun emen, guero Ceruan gozatzeko. Amen Jesus.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Oh Maria, gure Señora, ta gure Ce-ruco Erreguearen Ama! Zure aurrean belaunico jarrita, emenchen gauzcatzu humillaturic zuri beguira, Cristau pobraceutaberatsaren ateetan egoten diran becela. ¿Ger escatzen dute pobraceut? Limosnacho bat beren premiac erremediatzeco. Ona emen bada, Oh Señora aberatsa! Ona emen gu ere zure biotz urri-quitsuaren atarian, escatzen limosnacho bat, gure premiac erremediatzeco. Lem-bici escatzen dizugun limosna da, irichi

bear diguzula gure oraindañoco pecatu guztien damutasun eguiazcoa: guero aditu dezagun zure seme Jesu-Cristo gure Jaunagandic, barcatuac dirala gure peccatu guztiac, eta garbituac peccatuen mancha ciquiñac. ¡Ah! Secula peccaturic eguin izan ez baguendu. Bigarren limosna, eta biotzetic escatzen dizuguna da, emendic aurrera zure Semearequin, ta zurequin gure biotzac bat eguitaco gracia. ¡Ay! ¡Nore izan aldezaquean zorontasun au! Orduan bai sayatuco guíñaque servitzera zure Seme Jesu-Cristo gure Jauna, eta zu Jaunaren Ama, zure Seme gure Salvatzaileari gu salvatzen lagundu izan ciniona. Irugarren limosna izango da, mundu onetan bici gueran arte guztian zure Semearen mendeian, ta zure mantu-pean bici izateco, ta guero iltzeo gracia. Eguiaz limosna baliosoac, ta estimagarriac dira oec, Señora, que iñola ere mereci ez ditugunac, eta argatic escatzen ere atrebitu bear ez guíñaque; baña zure Semeac be-



rac esaten digu, humildadearequin, confianzarequin, ta devocioarequin escatzeco bear degun guztia, ta dudarie gabe irichi degula. Bear ditugu bada gracia oec, gure animac salvatzeco; bai ¡Oh Maria! bear ditugu, gracia oec gabe ecin salvatuco gueralaco. Alcanzatu bada Señora, zure Semea gandic. Amen Jesus.

AMAIRUGARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Zuei beguira egon naiz beti; zuen artean izango da nere biotza, munduan bici ceraten arte guzlian. Ona emen ¡Oh cristauac! zuen betico zoriontasuna deseatzen dezutenac: ona emen Jesus amoroso oneccer esaten digun Sacramentu veneragarri onetan: Eliza onetan gurequin bici izateco pocez betea daucala bere biotza, eta guregandic ecin partitu ditequela ez egunaz ez gabaz iñolako moduz ere. ¡Ah gure

Jauna, ta Jaungoicoa! ¿Ez alzan asco adiña ¡Oh Jesus! zuc gurequin egon bear bacenduan ere, ez alzan asco adiña bacarric egunez guelditzea, zu visitatzena, ta adoratzera zure devotoac etorrico ciran orduetan? Aimbesterañoco ongi naya diguzu, gure gandic gabaz ere ecin partitu izateco? Norc lagun eguingo dizu gabaz, bida zure devotorie andienac ere hadijoaz beren echetara, Elizaco ateac ichita, eta zu emen bacar bacarric utzita? ¡Ay Jauna! Sacramentu Jaungoicozco onetan aditzera ematen diguzu, cemba estimatzen dituzun gure animac. Zure amorio zoragarri onec obligatu bear guinduzque ez bacarric egunaz baita ere gabaz, aldezaquegun guztian zuri laguntzera etortzera, eta beste premiren batec ateratzen gaituenean Elizatic, an bertan utzi bear guinituque gure biotzac zurearequin batetan; eta gure deseoaizan bear luquete beti zurequin izateco, aimbeste aldiz ta aimbeste modutara mereci izan dituzulako. Nun billatuco degu toqui obeagoric,



gure eguinquizunetatic libratzen guera-nean, dembora ondo pasatzeco, zure la-guntasun amorosoarequin baño? Zu cera gure llagac sendatzen, gure premiac er-remediatzen, gure naigabeac aliviatzen, ta gure barrengo illumpeac arguitzen ditu-zun eguzqui ederra, Medicu urriquitsua, Maisu jaquintsua, gure esperanza, ta gu-re libratzallea. ¿Cein bada deseguingo ez da zure aurrean pozaren aundiz, consi-deraturic alaco erregue baten Palacioan arquitzen dala? Alaſſen da Jesus; emen-dic aurrera eranzun nai diogu zure deseо santuari. Gaur bertan escaintzen dizqui-tzugu gure vorondateac, gure barrengo deseо iracequiac. ¡Oh aunditasun parega-bea! Zuc nai izan cenduan guelditu Sa-cramentu Jaungoicozco onetan, ez bacar-ric gure visitac arteagatic, baita ere co-munio santuan gure animai jaten ematea-gatic. Baña ¡Ay Jauna! ¿cein allegatuco da zure mai sagradura, Erregue guztien Erreguearequin jatera, Ceruco aingue-ruac arpeguira beguiratzen ere atrebitizen

ez diran Magestadearequin itz eguitera, infernu guztia icaraturic daucan Jaun ain aundiari bere premiac eracustera? Alaſſen da Jauna: alde onetatic zuri be-guiratu ezquiero, ez litzateque izango mun-du guztian animaric, zugana alderatuco litzatequeanic. Baña beste alde batetic beguiratu ezquiero, ¿Norc iguesi eguingo du zugandie? Norc estimatueo ez du zure combite sagradu au? ¡Oh Jaun amoro-soa! Guri bildur gueyegua quentzeaga-tic, eta confianza guztiarequin allega gai-tecen, zu, visitatzeria, gu animatzeagatic, ezcutatu izan cenduan zure gloria Ostia Sagradu orretan. Zu, gure biotzaren jabe eguiteagatic, aimbesteraño humillatu izan ciñan. ¿Cer esango dute Ceruco Aingue-ruac, modu orretan guizon argal pecatari batzuequin izquetan icusten zaituzte-nean? ¿Cer esango dute, zure Magestadea; zure amorioa, zure biotza Sacramentu orretan ain humillatua icusten dutenean orrela bacarric eta guizon esquer gaizto-coen desprecioac sufritzen? Eein beste gau-



azaric esango dute, ezpada ¡Oh amorio cruela, Jaungoicoaren biotza aimbesteraño martirizatzen dezuna! Bedeincatu, ta alabatu dezatela zure ontasuna. Amen Jesus.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Oh Maria, pecatarien Ama consolagarria! badaquigu, zu cerala criatura guztien artean Señoraric prestuena, honraduena, garbiena, ederrena, urriquitsuena, virtuosoena, ta maitagarriena. ¡Ay Señora! cristau guztiac ezagutuko baindizquete, eta amatu biotzetic, zuc mereci dezun aimbat. Guc beintzat nai guenduque zu amatzea; baña ezagutzen degu, etzaitugula amatzen obligacioac aguintzen digun aimbat. ¿Cer egungo degu bada emendic aurrera obligacio amoroso oni erantzuteco? Zuc nai izatea ¡Oh Aingueruen Erreguiña! zuc nai izatea degu asco

adiña, gure biotzac zureac izateco, eta guero zure amorio santuan emengo des-tierra au pasatzeko. Bada biotzetic zu amatzen bazaitugu, orduan salvatuco guera, cergatic ece auñsen da salvatuco guerala señaleric onena, zu gure Ama ona, eta gu zure seme alaba biotzecoac izatea. Zuganaco amorio santu au, gracia ain estimagarri au ez dio Jaungoicoac ematen Ceruraco señalatuac dauzcanai ez baldin bada. Oroitu zaite bada Señora: oroitu zaite guzaz, erreinu orretan zure mantu-pean icusten gaituzun arterano. San Anselmo gloriosoac esaten digu Señora, zure escubidea noraño allegatzen dan aditzera emateagotic ece, zu bitarteko paratzen zaitugula escatzen degun mesedea edo gracia Aita Eternoac ascotan lenago emango digula, bere Seme Jaungoicoaren icenean escatu ta baño; ceren Aitac eta Semeac alañše zu honratu nai zaituzte. Baita ere esaten digu beste Santu batec ece, Ceruan graciaz beteac dauden cucha guztien guiltzac, Jaungoi-



104

AMALAUGARREN EGUNECO

coac zuri eman izan cizquitzula; eucha aec idiquitzeco, ta graciac partitzeco, cerorree nai ciñionari, nai dezun orduan ta nai dezun moduan. Señora: gauza zoragarri oec aditu ta sinistu ezquiero, Norc naico ez du zugana allegatza, zu biotzetic amatzea, ta zure biotzeco seme ta alaba izatea? ;Ay Ama ona! zabaldudo bacinduzque beso bedeinetu oriec gure biotzac artzeco! Ala izan dedilla. Amen Jesus.

AMALAUGARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Zuequin bici izateco dira nere betico atseguntasunac: zuen artean auqueratu izan det nere bicilecua: eta zuequin izafea nai det munduaren azqueneraño. Ona emen ;Oh anima devotac! Jesus zuen Esposo Cerutic jachitacoac eguiten dizuten combite zoragarria Sacramento San-

VISITAC.

105

tu onetan. Gure Jaun, eta Jaungoico chit maitegarria: zure Magestade miragarriac billatzen baditu bere biotzeco atseguntasunac gure artean, au da, destierro negargarri onetan, eta argatic guelditzen bacera Elizaco aldarean, ostia sanguadu orretan zure anditasun ta glori guztia ezcutatzen dezula, eta guri diguzun amorioac gugandic joateco licenciarie ematen ez dizula; arrazoya da, Jauña, bai arrazoyac eta legueac esaten dutena da, gure biotzac ere Eliza batean zure laguntasun Jaungoicozkoagan billantu, ta izan bear ditutzela beren barrengoa atseguntasunac. ;Oh Jaungoicoaren amorio santuan deseguiten bici ceraten anima zorionecoac! Moudu onetan zuen esposo biotzeco onen aurrean egotea batzic, peste pocie ez dezutenac, eta ~~que~~ bacar on laguntzen zaudetenean ~~que~~ glori guztia sentitzen dezutenac! ;Cern estimagarrria, cein zoragarria da zuen sterrea! Alas̄en izango litzateque gurca ere ;Oh Jesus amoresoa! alas̄en izango litzatoquegu!





re suertea ere, gaurdanic beste gaucetan gure biotzac paratuco ezpaguinduzque; eta egunetic egunera zugana gueyago ta gueyago alderatzera sayatuco baguiña; beti zure vorondate santua cumplitzeria sayatuco baguiña; zu serbitzen zaitugula, eta aldezaquegun guztian zu visitatzaera etortzen guerala. ¡Ay Jesus, gure biotzac gozotasunez betetzen dituzuna, batetxe ere prestaera onarequin comunio santuan artzen zaitugunean! Cergatic galdu izan ditugu oraindaño aimbeste urte, zure amorio Jaungoicozco onetzaz acordatu ere gabe pasatu izan ditugunac? Urte zorigaitzocoac eguiaz, urte negargarriac izango cerate guretzaco eternidade guztian. ¡Oh gure Jaungoicoaren paciencia beñere azquenik izango ezdezuna! gue adoratzen, ta alabatzen zaitugu; bada aimbeste dembora sufritu izan dituzu gure esquer gabequeriac, gure gaiztakeriac. Zu, gure Jesus ona, zu egon izan cera gure zai dembora chit lucean. Eta cergatic Jauna? Ezaguturic bein edo bein zure urri-

quitasuna, eta adituric zure dei amorosoac, zugana osorò biurtuco gueralaco esperanzarequin. Bada Jesus: berri onac dira gaur Eliz onetan: ez Jauna desprecioric gueyago zure ontasun, ta paciencia miragarriari. Ya da ordua zure dei amorosoai eranzuteco: gaur jartzen guera osorò zure servicio santuan. Uste degu Jauna, zuc lagunduco diguzula cumplitzen gure gogo zuc emandako au, eta izango guerala zureac ez bacarric mingañean baita ere obra onetan. Zuc egun dizquigutzu mesede chit andiac zugandic iguesca ibilli izan gueranean, eta zure combite sagraduac despreciatu izan ditugunean. Nola bada orain sinistuco degu desamparatuco gaituzula, icusiric asi guerala gotic zu billatzen, aldezaquegun guztian zure vorondate santuari eranzuteco deseoarequin? Eman bada Jauna oraindic gracia gueyago criatura guztien amorio guztiac mereci dijuan zure biotz amorosoa amatzeco, ta amorio iracequi onequin gure biotzac urtutzeco. Amatu nai zaitugu



gure anima baño gueyago, eta damu degu oraindaño ez amatua, eta zure ontasuna, asco aldiz ofenditua. Barcatu Jauna, bai barcatu gure gaiztaqueria, eta arren luzatu zure escu bedeineatua pecaturen batean erortzeco peligroan icusten gaitusunean, pasa dezagun emengo destierro au zure bildur santuaren mendeian, joateco guero zure Erreinura, guretzaco prestatua daucazun gloria gozatzen. Zure vorondate poderosoac erraz egun dezaque gu pecatariac ondutzea, ta zure amorio santura eracartzea. ¿Cergatic bada eguingo ez dezu? Ala esperatzen degu Jauna, guero alearrequin izateco Erreinu orretan. Amen Jesus.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Guc escatzen dizugu ¡Oh Virgiña Maria Jaungoicoaren Ama Santa! guc escatzen dizugu, zure oñetan belaunico jar-

rita. Jaungoicoac Ceruan, eta lurrean eman izan dizun escubidea gatic, urriqui zaiteala guzaz. Zuc ondo ezagutzen dezu, cein andiac diran gue mundu onetan sufritzen ditugun premiac, batez ere animacoac. Atoz bada: ¡Oh Señora urriquitsua! atoz len bait len guri laguntzera, eta ecartzera Cerutic zure Seme Jesu-Cristo gure Jaunac bere pasio santu ta eriotzarequin mereci izan eigin gracia ura. Ez arren estali belarri oriec, gure deyac ez aditzeagatic: ez arren ichi begui oriec, gure premiac ez ecusteagatic. Badaquigu ¡Oh Ceruco Erreguiña! gure oraindañoco gaiztaqueriai beguiratzen badiezu, ala despreciatzea mereci degula. Baña Señora: acorda zaite, araco calvarioco mendian ter esan izan eizun zure Semeac, azque-neko asnasetan arquitu izandu zanean. Orduan zu egun izan cinducen gu pecatarien Ama, eta gu pecatariac egun izan guinducen zure biotzeco seme ta alaba. Oyan gaizqui arquitzen dan hume gazte gaišsoac, bere amaren premi audiagoa



izaten duan becela, eta amac ere hume eri arren urriquimentu andiagoa artzen duan becela; alaſſen gu ere pecatari gaiſſoac gueralaco, arquitzen guera zure laguntasunaren premia chit aundian; eta zu gure amaric urriquitsuena ceralaco, begiratu bear diguzu amorio chit andiaquin. Zuc ;Oh Ceruco guiltzen jabea! Zuc zure Semeari edocein moduz aditzera ematea, da asco adiña, aren Magestadeac gure premiac erremediatzeco, ta estadu peligroso negargarri onetatic ateratzeco. Zu bada orain guzaz urriquitzen ez bacera ¿cer izango da eriotzaco orduan arquitzen gueranean? Ea Señora, lagun zaiguzu irabazten Cerna. Amen Jesus.

AMABOSTGARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Esan oi zuan Aita Francisco Olimpio ceritzon guizon yeneragarriac ece, mun-

du onetan guizonen biotzac iracequitzeo berotasunie aundieta ematen duan sua, aldareco Sacramentu Santuan arquitzen dala. Argatic azaldu citzayon bein batean aren Magestadea Santa Catalina Senaco alabari comulgatzeria cijoala susco carobi bat eguiñic, alde guztietatic Jaungoicozco garrac ematen, ta mundu guztitic zabaltzen cituala. Santa gloriosa ura guelditu zan arrituric, icusten ta consideratzen, nola izan alcitequean, susco carobi Jaungoicozco onen erdian guizonac bici izatea urte osoetan ere erre gabe, berotu ere gabe: au da, Sacramentu onetan gure Jesus amoroasoac piztutzen duan su artan, beren biotzac berotu ere gabe, iracequi gabe. ;Ay Jesus, gure biotzen jabe, ta Jaun bacarra! berotu itzatzu arren, erre itzatzu, urtu itzatzu, deseguin itzatzu gure entraña gelatuac, zure biotzac ematen duan su amorooso orrequin. Ez dezagula gaurdanic mundu onetan beste gauzaric ez pensatu, ez deseatu, ez billatu, ez escaatu, baicic zure biotz amorosoa. ;Cein



zorionecoac izango guiñaque Jauna, cein zorionecoac izango guiñaque eternidade guztian, oraindanic zure mendean jarrita, bicico baguiña mundocon beste gauzaric deseatzen ez degula, eta bai gure barrengoa afecto ichusiac, eta naztagarriac egunetic egunera botatzen, ta desterratzen ari guerala. ¡Oh Jesus, gure biotzen prendaric maitegarriena! bada icusten zaitugu aldare orretan ain humillatua, ain despreciatua, eguiaz gu amatzan gaituzulaco beste motivoric gabe; arrazoya da Jauna, gue ere gure vorondate guztia zure amorio santuari entregatzea; gurre arroqueria zure Magestadearren aurorean humillatza; munduac sumateen dizquigun gaiztaqueriac, eta guezurrac paciencian eramatea; eta zure escuetatic datozquigun nequeac sufritza gure oraindañoco pecatuen zorrac pagatzeko. Zue ematen diozu Aita Eternoari gure parteitie zure vicitza gloriosa Meza santuan: bada Jauna, alašſen gue ere izan, ta esan naidegu gorputz ta anima zureac guerala,

ta izango guerala munduan zurequin battean penatzen, ta Ceruan gozatzen.

«Nun obeto gordeco ditugu gure sentiduac, Espiritu Santu Jaunac emandaco doayac, ta gure dembora guztian irabaci izan ditugun virtuteac, (batere irabaci izan baldin badegu), zure biotzaren barrenean baño? Ona emen, ¡Oh Aita Eternoa! Aldare sagradu onetan zure Seme Jesu-Cristo gure Jaunac egunoró irabazten dituan merecimiento guztiac gure pecatuac barcatzeco, ta zorrac pagatzeko. Onezaz gañera, Jauna, zure Semearren biotzarequin bat egui ta escaintzen dizquitzugu gure biotz argalac ere, eta gaur batez ere artzen degu gogoa zure vorondate santuari seguitzeco ala bicitzan nola eriotzan. Bai Jauna: nai degu emendic aurrera bici ta guero ill zu honratzen ta alabatzen zaitugula. Eman zai-guzu bada araco martiri gloriosoi emanizan diezun gracia, virtutea, ta indarra tormentu izugarrietan gure bicitzac aca-



114

AMABOSTGARREN EGUNECO

batzen ditugula zu honratzeco zure vorondate santua ala baldin bada, emen zurequin batean ill, ta guero zurequin batean bici izateco. Baña martirioa sufrizteco gracia ain estimagarri au gueñola ere mereci ez degulako, eman nai ezzpadiguzu, beintzat, Jauna, deseatzten degu biotzetic gure azqueneko asnsa ematea zure vorondaté santuarequin conformatzten guerala, ta zu honratzen zaitugula Amen Jesus.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Lagun zaiguzu ¡Oh Señora chit urriquitsua! lagun zaiguzu, gure oraindanoceo pecatuai begniratu gabe. Acorda zaite, Jesus gure salvatzallea guizon eguzala zure entraña garbietan, ez eguiaz gucondenatzea gatic, haicic gure anima urricarriac pecatuaren, ta Infernuco etsayen mendetie ateratza, ta Cerura erama-

VISITAC.

115

teagatic. Jaungoicoac auqueratu, ta artu izan bacinducen bere Amatzat bacarric zu honratzea, ta alabatza gatic; orduan esan citequean, ez cijoquizula zuri ecer, gu condenatuac, edo salvatuac izanagatic. Baña Jaungoicoac artu zuan guizonaren izatea edo naturaleza zure entraña garbietan, gu salvatzeagatic, eta gure animac utzi izan cituan zure contura. ¡Cer balioco digu Señora, zu gure Ama izateac, azquenean condenatzen baguera, ta zuc gozatzen dezun gloriara eramatene ezbagaituzu? ¡Ez alcera acordatzen ¡Oh Ama ona! ez alcera acordatzen, zure Semeac ecer aguindu izan eizun calvarioceo mendian, San Juan bere discipulomaitea zure Semetzat bere toquian emanizan cizunean? Lagundu bada mortificatzen gure griña gaiztoac, ta defenditu bear gaituzu gure etsayac gandic. Zuc badaquizu, cein peligro aundien artean arquitzen gueran, ta nolacoae diran gure premiac. Ezagutzen degu Señora, cer eguiak bear degun Cerura joateco; icusten



degu, Erreinu orretara allegatzeko, Jaungoicoac prestatu izan cigan bidea, baña bide onetan billatzen diran aldapac pasatzeko ez daucagu indarric gure partetic. Ecin venzutu ditzaquegu bide onetan bilatzen ditugun dificultadeak, ta Infernuco etsayac eguiten dizquiguten aleguiñac bide onetatic alde eraguiteco; ecin venzutu ditzaquegu dificultade ta guerra oec, norbaitec laguntzen ezipadigu. Eta ¿nun billatu aldezquegu Señora, zu baño lagunzalle obeagoric? Ea María: urriqui zaite arren guzaz Amen Jesus.

AMASEIGARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Ay! mundo guizonac beren premia, ta gaitz aldietan, etorrico balira beti Sacramentu Santu onengana erremedioaren, ta osasunaren billa ¡Cein guchi izango liraque eguiaz diran becin ain urricarriac! Negarrez sentimentuaren aundiz

VISITAC.

117

deseguiten egon oi zan lenago Jeremias Profeta Santua, esaten ciela bere erricoai: ¿Ez aldaucazute erri onetan boticaric, eta medicuric zuen llagac sendatzeko? ¿Cergatic zuazte bada beste errietara zuen gaitzen erremedioen billa? Au da, ¡Oh Cristaquel! ¿Ez aldaucazute Sacramento onetan Medicuric jaquintsuena, zuen animen gaitz guztiac sendatzeko boticacoric egoquien emango dizutena, zuen premiac erremediatuco dituana, eta eguiaz zorio-neoac eguingo zaituztena? ¿Cergatic zabitzate bada zoraturic munduko gauza engañagarrietan zuen erremedioen, ta zoriantasunen billa? ¡Oh Adanen seme-alaba gaiššoac! Esaten ari zaigu aren Magestadea aldare artatic ordu ta instante guzietan: ¿Cergatic bici cerate aimbeste demboran zuen etsayen, ta griñaz gaitztoen mendean, estutasunaren aundiz ascotan ler eraguiteco zorian paratzen zaituztela? Atozte nigana anima urricarriac: atozte len bait len bada nic alibiatuco zaituztet, eta emango dizutet deseatzten dezuten zo-



riontasuna. ¡Ay Jesus gure animen jabe zoragarria! Eman bear diguzu gaur licencia esateco guec zuri, lenago Santa Maria Magdalena, eta Santa Marta esan izan eizutena Lazaro bere anaya gaišsoa gatic: ona emen Jauna, cein gaizqui arquitzen dan zuc amatzan dezuna. Jesus, gure anima urricariac dira zuc amatzan dituzunac, baña beguira jchein llagatuac arquitzen diran alde guztietatik! Infernuco etsayen tentacioac venzutu izan gaituztelaco; gure griña gaiztoac menderatu izan gaituztelaco; mundocon zoriontasun engaňagarriac ichutu izan gaituztelaco; zuc ondo daquiza Jauna, cembat pecatu egun izan ditugun, eta bera gatic cembat aldiz gure biotzae zulatu, ta llagatu izan ditugun. Zuc bádaquizu, cein estadu negargarrian arquitzen gueran. Sendatu itzatzu bada gure animac, sendatu itzatzu ain gaizqui arquitzen diralaco zure eseu poderoso, ta biotz amoroso orretzaz baliatu ta. Eraman gaitzatzu zugana! Oh Jesus gozotasun guztien iturria! Eraman

gaitzatzu zure amorio santura amoriozeo cateaquin tiratzen diguzula, bada nayago degu zure adisquide izatea, zure biotzaren barrenean toqui chiqui bat izatea, mundu guztiaren jabe izatea baño. Ez degu gaurdanic destierro onetan bici gueran arte, beste gauzaric deseatuco, baicican zu amatzea. Gauza guchi dauzagu Jauna, gue emateco zuri, baña mundocon erreinu guztien jabe baguiña, guztiac zuretzaco izango liraque.

¿Cein aberatsagoric zare biotzean parte duana baño? ¿Cein zoriontasun andiagoric zure mendean bici izatea baño? eta cein pobreagoric, cein urricarriagoric zugandic urrutia bici dana baño? Gure izate guztia, guec aldezaqueguna, gure sentido guztiac, gure gorputzac, gure animac, gure gauza guztiac, gueyago ta gueyago balira ere, guztiac entregatzen, ta aseguratzen ditugu zure escu bedeincatuetan. ¡Oh vorondate Jaungoicozcoa! Eguin zaite arren gaur gure vorondatearen jabe. ¡Oh jaquinduri Cerutic jachitacoa! eracutsi zai-



guzu arren nola servitu, nola billatu, nola obedecitu dizugun, ta nola amatuco zaitugun. ¡Oh biotz zoragarria! zabal zabal egun zaite arren, billatu dezagun emendie aurrera gure betico zoriontasuna. Amatu nai zaitugu gure buruac baño gueyago; eta zure amorio santuan gure biotzac deseguiten dirala, eman dezagula azqueneco asnasa Amen Jesus.

Comunio espirituala.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Oh Virgiña, Santu guztien Erregiña! zure laguntasunaren premian arquitzen guera, zuc ondo daquizun becela; baita escatzen dizugu confianzarequin laguntasun au, zure premian gaudelaco. ¡Aztuco cera guzaz, eta despreciatuco dituzu gure suspirioac, ceralaco Jaungoicoaren Ama! Ez eguiaz; ecin izan ditequean gauza da, zu becelaco Ama urriquitsu bat bere seme ta alaba urricarrietzaz aztu-

tzea. Zuc badaquizu, eein peligro aundiac dauzcazugun inguru guztietatic, orain peccatum erortzeco, ta guero condenatuac iza-teco. ¡Cer eguiten du guraso batec, icusten duanean bere semea edo alaba ichasora erortzeco peligroan, edo surtan erretzen, edo animali izugarri baten atzparretan? ¡Ah! cembat, eta cein laster sayatzen da aren vicia defenditzea! Bada Señora: munduan izan ta izango diran guraso guztiacon beren hume guztiai izan, ta izango dien amorio guztia, ez da eguiaz aitatzeco ere, zuc guri diguzun amorioaren parean. ¡Nore daqui berriz zuc baño obeto, ecin aundiac diran gure puntuan bein dauzcazugun peligroac erortzeco susco ichasoetan, erretzeco susco calabozoetan, ta milla pusea eguiñiac izateco infernuco etsai gaiztoen atzparretan? Zuc ezagutzen dituzu ecin obeto gure etsayen indarrac, eta empeñuac; nola descuidatzen ez diran instante batean ere: baño alaz guztiaz ere, zuc gogotic laguntzen badiguzu diran guztiacon venzutuac gueldituco dira, cerga-



122 AMAZAZPIGARREN EGUNECO

tie dauzcatzun guztiac zure mendean categaquin lotuta. Jaungoico guztiz poderoso arrec berriz nola escu bide ain aundia eman izan cizun etsai gaitzto guztien gañean, alaſſen da zure biotza izan al-ditequeanic urriquitsuena. ¿Nola bada la-gunduco ez diguzu irabazten instantero ematen dizquiguten guerra cruel oee? ¿Erorico guera Señora, gure zorigaiztoan oraindañoco gaiztaquerietan? ¡Ah! be-guira Ama urriquitsua, gure biotz gaiſ-ſoai Amen Jesus.

AMAZAZPIGARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Mundu onetan alcar biotzetic amatzen duten cristauac, alearrequin luzaro egoten diranean, izaten dituzte beren barrengoa atseguintasun aundiac. Amatzen badegu bada gue ere Jesus, eta amatzen badegu biotzetic, bere aurrean gauden arte guz-tian sentitu bear ditugu gure barrengó-

VISITAC.

123

atseguintasun aundiac. Jesus amoro-so onec Sacramentu onetan dagoala icusten gaitu, ta gure itzac aditzen ditu, ¿ez diogu ba-da gue cerbait esan bear, jaquin ezquiero gure itzac aditzeco deseo ain aundia dau-cala? Poztu gaitecen bada orain, Jaun onen aurrean arquitzen gueralaco; poztu gaitecen Ceruan Ainguerauaquin gozatzen duan gloria Eliz onetan guri eman nai digulaco; baña batez ere poztu gaitecen ecin besteraño, Sacramentu veneragarri onetan anima virtuosa chit ascoc aren Mágestadea honratzen, adoratzen, alaba-tzen, ta amatzen dutelaco, berac mereci duan aimbat, edo beintzat aldezaqueten adiña. Deseatu dezagun, cristau guztia-c amatu dezatela Jesus ostia sagradu one-lan, eta para ditzatela beren biotzac Jaun onen escuetan, asco aldetara dalaco be-ren jabe, gue beintzat, Eliz onetan gau-den guztiae biraldu ditzagun Jaunagana gure biotz osoac, izan dedin gaurdanic Jesus gure adisquideric maiteena, gure espisoric biotzecoena, gure aitaric amo-



rosoena. Aita Salecio veneragarriac sentitzen zuan bere barrenean ecin aditzeraren eman alditequean atseguintasun zoragarri bat, Sacramentu Santuaren gañean izquetan jartzen zanean; etzan beñer aspertzen Elizara etortzeaz Jaun amoro so au visitatzera; porterira ots eguiten ciotenean, bere guelara biurtzen zanean. baratzara pisca batean paseatzen joaten zanean, jatera jachitzan zanean, acordatzan eitzayon guztian, esan dezaquegu, allegatzen zala Elizara bere biotzeco prenadaric maiteena Jesus visitatzera, alako moduz ece, nequez pasatzen eitzayon egunguztian orduric, bere estacio amorosoa eguin gabe; eta guero mereci izan zuan hereje soberbiosoen atzaparretan bere bicitza ematea, Sacramentu Santu au defenditzen; honratzen, ta alabatzen zuala. ¡Ay Jesus! guc ere izango baguendo suerte ain zorionecoa, eta aimbeste virtute, zure amorio zoragarria defenditzea, honratzea, ta alabatzea gatic gure zañetaco odol guztia emateco, eta santu arrec be-

cela martirioa sufritzeco! Alašsen nai guenduque Jauna, bai alašsen nai guenduque gure bicitzac acabatza, zu alabatzan, zaitugula Sacramentu onetan; baña ezaguturic mereci ez degula gracia ain estimagarri au, escatzen dizugu eguin de zazula orain gauza miragarri bat, orain daño ecin conta ala eguin izan dituzun becela: au da, atera ditzazula gure bicitzac mundu onetaco deseо debecatuetatic, eta apaindu ditzazula zure amorio santuarequin. Eman bear diguzun asco adiña virute biotz guziarequin zu amatzeco, Munduko ondasunac, empleoac, eta convenienciac partitu itzatzu deseatzen dituzten artean; bada gure deseoa, gure egaria, gure amorio iracequia, gure biotzeo suspirioac, eta gure beguietaco negar malcoac dira zure biotz barrenean paraleizatea gatic. Aušsen bacarric da orain escatzen dizuguna, eta aušsen bacarric izango da mundu onetan escatuco dizuguna. Gracia ain estimagarri au eguiten adiguzu, orduan gabaz eta egunez,



echean eta campoan, calean eta bidean, ordu ta instante guztieta zu bacarric bilatuco zaitugu, eta esango degu lenago-eco santu batequin: ¿Nunda Jesus? ¿Nun- da gure biotzeco preendaric maiteena? Alabada izan dediila Amen Jesus.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Oh Maria Jaungoicoaren Ama Santal-Badaquigu, zu guzia cerala gozotasunez betea, ta guzia chit maitegarria, zuc amatzan gaituzulako biotzic urriquituenarequin. ¡Cemba! aldiz eguiten dituzu paqueac zure seme ta gure Juez aserratuarequin, castigatu ez gaitzan, mereci degun becela! Jaungoicoac Ceruan guretzaco prestatu izan dituan gracia ta ondasun guziac, para ditu ¡Oh Erreguiña miragarria! Zure escu misericordiosoetan, Orra Señora. ¡Cein ondasun aundien jabe-

eran! Ondasun ain estimagarri oec eman dizquitzu aren Magestadeac, ez cerorrec bacarric gozatzero, baita ere alaco premian arquitzen gueranen artean partitzeko. Izan alditequean esquergabequeriarie aundieta izango litzateque ¡Oh Señora prestua! aitorlueo ez bagnenduque, alašsen partitzen dituzula. ¡Nore contatu zure escu zabal oriec Cerutic ecarri izan dizquiguten bendicio guztiac? Zu betizauda gure biotzai beguira, noiz icusico dituzun prestaera onarequin, beren premiac erremediatuco dizcaten graciak berrealashen emateco. ¡Cemba! pecatari esnatu dituzu, bai dei amoroso aquin, ta bai sentencia bildurgarriagnin, pecatuac emanen duan lo negargarri artatic! Cembati ebaqui eraci dizquezu beren oasio peligrosoac! Cemba! guelditu dituzu beren bide gaiztoetan, pecatuen neurria bete baño lenago! Beragatik, ¡cemba! pecatari urricarri ta gaizto izanac baliatu izan dira dembora egoquian zure cuidadu onezaz, ta mereci izan dituzte betiko zorion-



128

EMEZORTZIGARREN EGUNECO

tasunac, bestela eternidade guztian galduac izango ciranac! Cein arrazoi aundiarequin esan hear dute orain, ta beti eternidade guztian Erreinu orretan arquitzen diran pecatari izandaco oec, Jaungoicoaren ondorean zure arpegui ederra icustear ematen ditzela gloriaric andieña. Alaſſen bada Señora, guc ere aitor-tuco degu Erreinu orretara eramatene gaitusunean. Ala izan dedilia Amen.

EMEZORTZIGARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Jesu-Cristo gure Jauna, juicioco egunean mundu au juzgatzena datorrenean, esaten digu Evangelio Santuac ece, jarriko dala miragarrizco Tronu batean bere Magestade guztiarequin, anima ta gorputz guztiak bilduko diran Josafaten celyan; baña orain daucagu Sacramentu Santu onetan amorioz beteric, Jaun onen gana allegatzen diranai laztan gozoac emateco

VISITAC.

139

deseoarequin. Mundu onetako Erreguea elorrico balitz arzai pobre baten borda batera, arzai ari berari dion amorioaren anditasuna eracuetera, bera icuetera, ta berarequin batean dembora pasatzera, eta gañera berari gracia escaintzera: arzai arrec bada, Erregue Amorosoarequin ez egotea gatic, iguesi eguingo balioque, ta utzico baluque bacarric bere bordan, edo bordaco atea idiqui naico ez balioque, jcer merecico ez luque arzai aren esquer-gabequeri arrec? Batez ere jaquiñic arzai esquer gaiztoco arrec, Erregue amorosoa joan zayola bera chit zorionecoa eguitera? ¡Ay Ceruco Erregue, gure Jesus ona! badaquigu, guri diguzun amorio iracequiac obligatzen zaituala egotera aldareco Sacramentu Santu orretan. Albalitz ondo nai guenduque Jauna, egotea gabaz ta egunez Eliza Santa onetan zu adoratzen, ta zure ontasuna alabatzen emen bici gue-ran arte guztian, zuc ondo mereci dezun becela. Bada Ceruco Aingueruac arqui-



tzen badira emen arriturie, zuc guri di-
guzun amorioari beguire; arrazoya da Ja-
una, sinisturie gure amorio santuac zau-
calat Aldare orretan preso ta lotuta bece-
la, arrazoya da gu ere sayatzea zuri gus-
to ematera, aldezaquegun guztian etor-
tzen guerala zu visitatzeria, zu adoratzera,
ta zu alabatzera, guri eguiten dizquigu-
tzun mesede zoragarriac gatic. Aingueru
Santuen aurrean Jauna, alabatuco zaitu-
gu, eta etorrico guera Templo Santu one-
tara zu adoratzera, ta zuri graciae ema-
tera zure misericordia paregabeac gatic.
¡Oh Sacramento Santu Cerutic jachia!
¡Oh Aingueru Santuen ognii bedeincatua!
¡Oh anima virtuosoen janari Jaungoicoz-
coa! Guc ere deseatzen zaitugu, amatzzen
zaitugu; baña Jauna, ez gu, ta ez zu ez-
guera ondo arquitzen gure deseоaren ta
zuganaco amorio epelaren gañean: de-
seatzen, ta amatzzen zaitugu bai, baña ain-
chiquia da gure deseoa ta amorioa ece,
guude Jauna lotsaturie, eta zu senti-
mentuz beteric, amorio gueyago ez dizu-

gulaco, zu gure biotzaren jabe eguitea
gueyago deseatzen ez degulaco. Arguitu
itzatzu arren Jauna, gure entendimen-
tuac, ezagutu dezagun ondo zure edertasun
maitegarria; eta atera itzatzu gure bio-
tzen barrendic munduko gauza guztiak,
sartu dedin bacarric zure amorio santua,
ta egui dedin gure pensamentuen, de-
seoen, sentiduen, ta batez ere gure bio-
tzen jabe. Gaurdanic deseatzen degu Jauna,
zu bacarric amatzea, ta zure amorio
zoragarrian gure biotzac iracequitzea,
urtutzea, deseguitea. Zu Jauna, gure bio-
tzen jabe eguitea gatic, ta gure animaquin
desposatzeagatic jachitzen cera egunoró
Cerutic Sacramento Santura; jaquiña da
bada, guc ere ez degula gaurdanic deseatu
bear beste gauzaric, baicieran zu nola
amatuco, adoratuco, ta servituco zaitu-
gun. Pagatu nai badiguzu Jauna, amo-
rio eguiazco au, eman amorio gueyago,
iracequi gueyago gure biotzac amorio
Jaungoicozco orrequin. Zu servitzea Jau-
na, zuri obedecitzea, zure vorondate san-



132

EMEZORTZIGARREN EGUNECO

tuari eranzutea, ta zure amorio santuan emendic aurrera gure biotzac urtutzea, izan dedilla gure barrengo egarria, beiñere munduan bici gueran arte guztian juango etzaiguna Amen Jesus.

Comunio espirituala.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Oh Maria, Ceruco Aingueruen erreñina! Jaungoico guzti poderosoac egun zaitu zu mundu onetara biraltzea pensatu izan dituan gracia guztien jabe. Zu cera graciacz betea, Espiritu Santu Jaunaren obraz ta virtutez gracia guztien iturria tamallea zure entraña garbietan sortu izan citzazulaco. Aditu itzatzu bada orain ;Oh doncella garbia! Aditu itzatzu orain gure deyac; beguira zayezu gure premiai, ta urriqui zaite guzaz. Zabaldu itzatzu gure artean Espiritu Santu Jaun zure esposo biotzecoac Cerutic ain ugari ecarri izan dizquitzen ondasunac, ta apaindu itzatzu

VISITAC.

133

gure animac zue gozatzen dituzun gracia oen edertasunarequin. Ainguera San Gabriele, dacarquitzu Cerutic berri onac, ta esaten dizu: Jaungoicoac gorde zaitzala Maria graciacz betea, Jauna da zurequin. Bai, zu bacarric cera, Ceruan ta lurrean arquitzen diran criatura guztien artean graciacz betea. Beste Santu guztiac artu izan dituzte graciac, bacoitzac pisca bana. Ceruan arquitzen diran Aingueruric santuenac ere etziran izandu lenengotic graciacz beteac, zu beti ceran becela. Cristau guztiac ere bada esaten dizugu orain pocez beteric gure Eliz Ama Santarequin: ¡Oh Maria! graciacz betea cera; zorioneara cera; Jauna da zurequin; eta argatic bedeincatua cera andre guztien artean, ta bedeincatua da zure sabelco fruta Jaungoicozcoa ;Oh goiz aldeko izar ederra, gabeko illumpe negargarriac desterratzen dituzuna! ¡Oh Emacume zoragarria ta beste guztien honragarria! Erregutu ezazu arren zure seme ta alaba urricarri gu pecatariac ga-



134

EMERETZIGARREN EGUNECO
tic. Izan dezagun Ceruan Jaungoicoaren
gloriaren ondorean zure edertasuna go-
zatzeko zoriontasuna Amen Jesus.

EMERETZIGARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Mundu onetan izaten dan gauza atse-
guingarri bat da, aspaldi alcar icusi izan
ez duten adisquide eguiazcoac, guero al-
carren gana biltzen diranean, dembora-
lucea ta ordu osoac izquetan pasatzea.
Nun billatuco degu bada adisquide obe-
ric, eta leyalagoric dembora ondo pasa-
tzezo, negarrezzo mundu onetan bici gue-
ran arte guztian, Jesus Sacramentu Santu
onetan baño? Emen daucagu besoac zaba-
lic gure premiac erremediatzeco, gure
naigabeac aliviatzeco, eta guc nai degun
arte guztian gurequin izquetan egoteco.
Guri digun amorio aundiak obligatzen du
Jaun onen ontasuna, gu egunoró berega-
na, eta ascotan bere mai sagradura con-

VISITAC.

135

vidatzeria. Emen daucagu Ostia Sagradu
onetan gure zai, noiz allegatuco ote gue-
ran beregan. Emen adituco ditu gure
itzac, guc nai degun guztian naiz gabaz
naiz egunez. Emen artuco ditu beretzaco
gure animac; sendatuco ditu gure biotzac;
eta emango dizquigu graciac escatzen dioz-
cagun guztia. Sacramentu Santu onen
aurrean itz eguin dezaguegu Ceruco Ain-
gueruen Erreguearequin, adisquide batec
bere lagunarequin eguiten duan becela.
Zorioneca izandu zan Josè, araco Jacob
Patriarca Santuaren seme ura, jichi ci-
tzayontan Jaungoicoa Cerutic preso ceuca-
ten carcelara bera visitatzeria, aliviatzeria,
ta graciac escaintzera; baña andiagoa da
dudaric zabe gure zoriontasuna, negar-
rezzo mürdu onetara datorquigulaco aren
Magestadei guizon eguiñic, ez bein ba-
carric, bairic egunorò, guc nai degun
guztian; eta datorquigulaco, ez bacarric
gu visitatzen, baita ere Comunio Santo-
co ogui gozo bedinecatuarequin gure ani-
mac mantentzera; baita ere gure biotze-



tan pecatuac egundako llagac sendatze-ra. ¡Cembañ estimatzen du carcela illu-nean dagoen batec, noicic beiñ bere adis-quidea visitatzera joatea, eta esatea adis-quidea onec, berac egungo duala modua andic len bait len ateratzeko! Ona emen bada Jesu-Cristo gure Jauna gure Maisu-ric jaquintsuena, gure adisquideric mai-tegarriena, gure Aitaric urriquitsuena, gue nai degun guztian negarrezco carcela onetara ecarrico zaituguna, gu icustera, aliviatzera, animatzera, ta laster emendic eramango gaituala berri onac ematera. Eliz onetan naucazute, esaten digu aren Magestadeac amorioz beteric, emenchen naucazute zuei asco nai dizutedalaço. Cerutic nator zuec poztutzera, zuei lagun-tzera, ta zuen animac etsayaren mende-tic ateratzera. Atozte bada n'requin itz eguitera, neri zuen premiac eracustera, ta nic egungo zaituztet zorioñecoac mun-duan eta guero emengo deskerro au aca-batzen zatutenean, eramango zaituztet Cerueo erreinura betico gloriara. ¡Oh on-

tasun miragarria! Oh amorio paregabea! Jauna: bada zue egon nai dezu gurequin destierro onetan; gue ere nai degu etor-tzea aldezaquegun guztian zure lagunta-sun zoragarrian dembora pasatzera. ¡Cein gauza atseguingarriagoric gure Cerutic jachitaco espozo biotzecoaren aldamenean bere itz gozoac aditzen egotea baño? ¡Ay Jauna! ¡Cein izan alditequean ain zorionecoa zugandic alde egun gabe beti zure amorio santua gozatzen egon alditequeana! Edo zabarqueriz, edo gure vorondate gaiztoari contrariec ez eguitea-gatic, edo munduko utsa balio duan gau-zaren bategatic, etortzen ez baldin baguer-a zu visitatzera, aditzera eman bear di-guzu Jauna, castiguren baten bidez, cem-bat sentitzen dezun gure zuganaco esquer-gabequeria. Piztu ezazu arren gure biotze-tan ascotan zu icustera etortzeco egari-andi bat. ¡Ah Jesus amorosoa! beti amatu izan baguendo zure biotz Jaungoi-cozcoa, zue ondo mereci dezun becela! Ba-ña berri onac guretzaco: oraindic amatu



138

EMERETZIGARREN EGUNECO

dezaquegu, ez bacarric beste munduan baiat mundu onetan ere. Asi gaitecen bada gaurdanic amatzen Ceruan Aingueruac amatzen duten becela. Ala izan dedilla Amen Jesus.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Oh Virgiña Maria! Eraman gaitzatzu arren zugana; eracutsi bear diguzu, no-la seguituco diegun zure virtute usai gozo dunai; zure humildadeari, zure obedienciari, zure garbitasunari, zure pacienciari, ta zure amorio santuari. Eraman gaitzatzu Señora zugana, bada arquitzen guera gure pecatuen mendeau, eta etsai gaitzoac inguratuta alde guztietatic. Zuc arguitzen dituzu gure entendimentuac Ceruco jaquinduriarequin: Zuc sendatzen dituzu gure biotz llagatuac Cerutic ecarritaco graciarequin. Zu

VISITAC.

139

cera pecatari urricarrien Ama. Zuc libratzen dituzu gure animae infernuco etsai gaitzoen atzparretatic. Zuc azque-nie escaintzen diezu Ceruco gloria zure devotoai; bada zu cera ;Oh Señora mi-ragarria! Zu cera Ceruco ondasun guztiac gordeac dauden guiltzen jabea. Zac partitzen dituzu ain ugari ondasun oec zure devotoen artean, batez ere zure premian icusten dituzunean, ta eriotzaco ordu estu artan. ;Cembati prestatu diezu orduan laguntasuna, infernuco etsayaren asmo gaitzoac venzutu eracitzeco, ta libratu dituzu desesperacio negargarritic! Cembati luzatu diezu zure escu poderosoa, eriotzaco ichaso ain peligroso ura galdu gabe pasa-eracitzeco! Cembati irichi diezu orduan beren pecatu guztien damutasun eguiazcoa, zure Seme Juez zucenarequin paqueac eguiteco! Gracia ain estimagarri au da bada Señora, guc ere orain escatzen dizuguna, ordu estu artan ondo ateratze-co, ta eriotza on bat eguiteeo Amen Jesus.



OGUEIGARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Allegatuco da dembora zorionecoa, Daviden echean izango dana, ur gozoa emango duan iturri bedeincatua, eta ur bedeincatu ura izango dala, Jerusalengo pecatariac garbitzeco. Alaſſen esan zuan Zacarias profeta Santuac, Jesucristo mundura etorri zan baño asco urtez lenago. Aldareco Sacramentu Santu au da bada Daviden echecho iturri bedeincatu ura, nai duten pecatari guztientzaco, beti ur garbia ematen ari dana. Gure etsayac, edo griña gaiztoac venzutu, ta pécaturen batean erortzen gueranean; Cein erremedio egoquia, ta erraza da, etortzea bereala Sacramentu onec beti ematen duan iturri Jaungoicozeo onetara, pecatuaren mancha ciquinura garbitzera! Bai Jesus amorosoa! gogo santu au artzen degu gaur danie; inoiz pecatuan erotzen gueranean, etorrico

guera zugana medicu Cerutic jechi izan cerana, etorrico guera zugana, pecatuaren llaga ura sendatzera, ta mancha ciquinac garbitzera. Etorrico guera bai erremedio onen billa, iturri bedeincatu onec sendatuco, ta garbituko gaituala esperanza osoarequin; eta gañera emango digula gracia ta arguitasuna, gure griña gaiztoac ezagutzeco, mortificatzeco, berriz peccatum ez erortzeco, mundu onetako nequeac paciencian eramateco, ta gure vorondate charraren belar gaiztoac egunorō ebaquitzeco: bada prestaera edo gogo onarequin Sacramentu Santu au visitatzera etortzen diranen biotz epelac berotzen dira; gelatuac iracequitzen dira; gaiſſoac sendatzzen dira; argalac indartzen dira; bilduriaz animatzen dira, eta guztiac obligatzen dira egunetic egunera gueyago su Jaungoicozco onengana allegatzera, ta zure ontasun zoragarria amatzera. Badaquigu auna, gure oneraco esperatzen, ta desearen dezula zu visitatzera etortzea, eta pagatzen dituzu gure visitac gracia gueyago-



142

OGUEI-GARREN EGUNECO

requin. ¡Ay Jesus maitegarria! urriqui zaite guzaz, gueralako pecatari aundiak; eta garbitu itzatzu oraindaño egunoró eguin izan ditugun pecatuen mancha ci-quin guztiak; bada damutzen zaigu, baita biotz barrendic, Jauna, zure ontasuna aimbeste bider ofenditua; eman bear di-guzu gogoa, zu gueyago ez ofenditzeko; ta zure amorio santuan gure biotzac urtu-zeko. ¡Ay! norc izan aldezaquean toquia ta gogoa, Eliza batean zu adoratzen, ta amatzen beti egoteco, lenago zure espasa religiosa veneragarri bat egon izandu zan becela! Aita Francisco religioso virtuosoa batec, pasatzen zanean Elizaren baten on-dotik, beti visitatu bear izaten zuan Eliz artan cegoan Jesus Sacramentatua, eta esan oi zuan ece, guizon bat bere adisquidearen echearen ondotik pasatzea, eche artan sartu gabe, dala gauza chit sentigarria, bat adisquide arequin asco saltatzea. ¿Cem- bat sentituco ez du bada Jesus gure adis-quide zoragarri onec, Eliza baten alda-menetik pasatzea berari visita bat eguin

VISITAC.

143

gabe? ¡Ah Jesus, gure biotzeco prendaric maitegarriena! Ezagutzen degu Sacramento veneragarri au egun izan cenduala, ta aldare orretan guelditu izan ciñala gure biotzaren jabe eguitea gatic. ¿Cer-gatic bada guc amatzen etzaitugu, edo ain guehi amatzen zaitugu? Ez Jauna: ez du mereci zure biotz ain maitegarriac alaco epeltasunarequin amatua izatea. Zu izanic Jaungoico guztiz poderosoa, ta gu izanic pecatari argal batzuec, ez litzate-que izango gauza aundia Jauna, gu zure amorioz iltzea, ta gure biotzac urtutzea, zu gu gatic ill izan ciñan becela, ta Sa-cramentu Santu onetan egunoró illitzen ceran becela. Zuc mereci dezu gure bar-rengo amorio guztia, ta alašsen gaurda-nic amatu ere nai zaitugu. Lagunda bada zure graciarequin gure deseo santu oni, lagundu arren eguiten beti zure voron-date santua Amen Jesus,



Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Oh Maria, Virgiña gozoa! Zuc bacarric mereci dituzu Jaungoicoaren gracia guziac; bada zu bacarric cera pecatu originalaren mancharie gabe sortua; Espíritu Santo Jaunaren Esposa virtutez apaindua; ta Jaungoicoaren Semea zure entraña garbietan izan cenduana. Zuc artu izan cinducen gracia oee ez bacarric guretzaco, baita ere gure artean partitzeco, gure premiac erremediatzeco, ta estutasunac aliviatzeco. Eguia da Señora, alaſſen eguiten dezula. Zuc laguntzen diezu anima onai, virtuteetan mererimentu aundiac irabazten. Zuc berotzen dituzu biotz epelac propositu santuetan. Eta zuc animatzen dituzu pecatari argalae, pecaturaco cateac ebaqui ezquiero, biurtu ditecen Jaungoicoaren bildur satura. Baita ere Señora, oraindiec aurrera-

go pasatzen da zore laguntasuna. Zuc esnatzen, ta biguntzen dituzu, beguietarafio pecatuetan sarturic bici izan diranen biotz arri biartuac ere; eta beartzen dituzu zure amorioarequin Jaungoicoari beren gaitzaquerien barcacioa escatzeria. Zuc laguntzen diezu gañera eriotzaco orduan arquitzen diranean, venzutu dezan etsai gaiztoa, ta atera ditecen mundutic zure Semearen gracian. Zuc azqueinic laguntzen diezu zure devotoai, zure Semearen Tribunalera joaten diranean, atera ditecen Cerurako sentencia ain consolagarria artuta. ¡Oh Maria, Ama urriquitsua! Zorionecoa eguiaz, zugan bere esperantza guztia paratzen duana! ¡Izango ote degu Señora, zoriantasun au Eliza onetan arquitzen gueran guziac? ¡Ay! sayatuco baguiña mereci izatera gure egunoroco obra onaquin, zure dei amorosoai eranzuten diegula, ta zure semearen vorondatea eguiten degula! ala bada guerta dedilla Señora, ala guerta dedilla Amen.



VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Araco munduaren asieran Jaungoian coac guizonari bere servioraco emanizan cion baratza zorioneco artan, egun zuan iturri eder garbi bat, ur gozoa ta ugari ematen zuana, baratza artaco landare guztiac beratzeko, ta beste gauza guztien oneraco. Bada alaſſen dio San Juan Crisostomoc, cristandadearen asieran jarri izan zuala aren Magestadeac Elizaren erdian Sacramentu Santu onec ematen duan ur bedeincatua gure animac garbitzeco, mantentzeco, ta santificatzeko. Beragatic ur Jaungoicozco onen ezagüera eguiazcoa izaten duten santuac etortzen dira lastera iturri bedeincatu onetara, egarri aundia izaten dutenae, ur ofzaren billa joaten diran becela. Etortzen dira iturri onetara, emen beti billatzen dute lako beren biotzen egarria quentzeco ur Cerutic jachitacoa. Aita Baltasar ceritzon

religioso veneragarri batec edocein toquitic, ta edocein eguinquizunetan arquitzten zala, beti giratu bear izaten cituan beguiac Sacramentu Santu au urrena ceucan Elizara; ta jartzen zan beguire consideratzen zuala, anchen ceueala bere biotzeco prendaric maitegarriena. Onem-besterequin contentu ez izanic, asco aldiz etortzen zan Elizara bertara, ta pasatzen cituan gau osoac Jaun onen aurrean. Combat bider, egoten zan negarrez, icusiric Erreguen palacioac gendez beteric adoratzen, ta servitzen guizon bat, argandic cerbait izango dutelaco esperanzarequin; cerbait, egun guchi barrenean acabatuco dana, eta munduan bertan utzi bearco dana; beste aldetic herriz icusiric iya cristaoric gabe Ceruco Erreguearen palacioac, ateac ichita gure Elizac, eta bacarric gueyenean beiñic beiñ Jesus Sacramentu Santu onetan, munduko Erregueac baño eguiaz aberatsagoa, eta guri alaco ondasunac emateco, ta gure animac ain zorionecoac eguiteco deseoz be-



148 OGUEITA BAT GARREN EGUNECO

teric dagoana. Esan oi zuan gañera religioso veneragarri arrec, eguiaz zorionecoac cirala, Sacramento Santu au beren aldamenean ceucatenac, nai zuten guztian Ceruco Erregue au visitatzera, ta adoratzera joateco, ta bere aurrean lizaro egoteco. ¡Ali Jesus chit maitegarria! Bada orrelaco egarri amorosoarequin combidatzen gaituzu zugana, izanagatik gu pecatari esquer gaiztoocoac oraindaño-ko guztian; ez degu galdu nei Jauna, zuganako esperanza consolagarria, cergatik uste degu urriquituko cerala guzaz, gure argaltasunai beguiratu gabe, sendatuco dituzula pecatuac gure biotzean eguin izan dituan llagac, eta biurtuko gaituzu-la osoró zure amorio, ta bildur santura. Ea bada, Jauna: asi zaite arren gaur ondutzen Eliz onetara zu adoratzera, ta visita au ematera eterri gueranac. Ateritzatzu gure biotz barrendic zu ofenditzeko diran griña gaiztoac, eta zu honratzeco ez diran deseoa. Gure Jesus ona, gure Jesus maitegarria: zure vorondate

VISITAC.

149

santua eguin nai degu gabaz ta egunez, ordu ta instante guzietan. Zure mandamentu santuac gordetzen ditugula, ta gauza guzietan zuri gusto ematen dizugula pasa nai ditugu emengo egunak eta illak, urteac eta gure hicitza guztia, lucea edo laburra, zue ematen diguzuna. Zuc bacarrie mereci dezu gure amorio osoa, ta zu bacarrie amatu nai zaigu gure biotz guztiarequin. ¡Cein zorionecoak izango guinyaque Jesus, zure vorondate santua honratzea, ta alabatzeagatik, gure zañetako odol guztia emango baguenduque, oraindaño beste ascoc ecin conta ala eman izan duten becela!

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Zugana gatoz joh Maria, Jaungoicoaren Ama Santa! Zuri Cristau guztiac esaten dizute pocez beteric misericordiaren Ama. ¡Cein atrebituco da esatera zure



150 OGUEITA BAT GARREN EGUNEKO

biotz urriquitsuaec ueatuco diola norbaiti zure laguntasuna, batez ere zure premian arquitzen danean bear becela escatu ezquerro? Ez dezala iñore aitatu zure icena; ¡Oh Señora! dio San Bernardoc, zure bizitzeko Seme arrec, ez dezala iñore aitatu zure icen gozoa, secula beñere iñori ueatu izan badiozu zure laguntasuna, bere premi aldian zugana etorri izan zatzunean. ¿Cer esan nai du onequin Santu glorioso arrec? ez diozula beñere iñori ueatu izandu. Ez diguzu bada Señora, guri ere ueatuco, confianza osoarequin gatocelaco zu visitatzena, zu honratzena, eta zuri bear ditugun graciac escatzena. Bai Doncella ederra, biotz gozoa, ta Ceruan escubide chit aundia dezuna: esperatzen degu, gueroc baño ere empeñu aundiagoarequin escatuco diozula zure Seme Jesu-Cristo gure Jaunari, gure bear degun guztia; eta alcanzatueo dizquigutzula gu escatzen atrebitzen ez gueran graciac ere. ¡Oh Ama urriquitsua! ¿Beste pecatariai ematen diezun laguntasuna uca-

VISITAC.

151

tuco diguzu guri, betico condenatuac iza-teco arquitzen gueran peligro negargarri onetan? ¿Ez dezu ieosten Infernuco etsayac nola tentatzen gaituzten; gure griña gaiztoac nola menderatu nai gaituzten; eta mundu engañagarri onec nolako guerra eguiten digun egunorò beñere aspertzen ez dala? ¿Nola bada ignesi egun aldeza-quegu etsay oen artetic pecatuan erori gabe, zue laguntzen ezpadiguzu? Ea María Virgiña gozoa: zureac guera, ta zureac izatea nai degu orain ta beti. Oraindaño izan ez baguera gure griña gaiztoai seguitu izan diegulaco, emenchen gaude Señora, bai emenchen gauzcatzu biotz barrendic ondo damututa. Lagun zaiguzu bada cumplitzen gaur artzen degun gogo Jaungoicozco au Amen Jesus.

OGUEITA BI GARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Escritura Sagraduac esaten du ece, ibilli izandu zala lenago anima Santa zo-



rioneco bat bere biotzeco esposo maitearen billa, eta ecin billatu izan zuanean, suspirioz eta negarrez bidean topatu ci-tuan guztia galdetzen ciela: «Icusi alde-zute zuec nere biotzaren jabe maite zora-garri ura? Dembora artan etzan arquitzen Jesus lurrean, eta argatic anima santac ere ez billatzea, etzan arritzeko gauza; baña orain billatu nai duanac esposo bio-tzeco au fede biciarequin, confianza osoa-requin, gogo onarequin, deseo zucenare-quin, amorio iracequiarequin, beti billa-tuco edo topatueo du Saeramentu vene-ragarri onetan, Religioso virtuoso batec esan oi zuan ece, mundu onetan gueyen gueyena guztalzen citzayen Eliza izaten zala, Jesus Sacramentu Santuan arquitzen zana. ¡Oh gure Jaungoicoaren amorio azqueniec secula izango ez dezuna, eta argatic Ceruan, ta Munduan arquitzen di-ranen amorio guztiac, gueyago ta ascoz gueyago balira ere, mereci dituzuna! » Norc obligatu zaitu Cerotic mundu one-tara jeehitzen, eta destierro onetan zure

anditasun ta gloria guztia ostia chiqui or-retan ezcuzatzerano? ¡Oh Jaungoicoaren Seme guizon eguiña! Aimbesteraño hu-millatxera obligatu cera, alaoc amorio zoragarria guri diguzulaco «Nola gue amatuero etzaitugu bietz guziarequin, ani-ma guziarequin, sentidu guziaquin, ta gure burnac baño ere milla bider gueya-go, consideratu ezquiero nolaco gauza miragariac egun izan dituzun zuc gure amorioaren jabe eguitea gatic? Bai Jauna: amatzen zaitugu, eta esan dezala biotzac minganac baño obeto: amatzen zaitugu, eta izan dedilla zorigaiztoca itz au bio-lzetic esaten ez duana: amatzen zaitugu, eta amorio zoragarri au galdu baño le-nago utzico ditugu gure ondasunae, at-se-guintasunac, conveniencias, ta gauza estimagarrienac. Iracequi ezazu Jauna, gure biotzatan deseoa audi bat aldeza-quegun guztian zu visitatzena etortzeco, eta zure aurrean dembora gustora pasa-zeco, Zuc combidatzen gaituzu Ostia sa-gradu orretatic, etorri gaitecela zurequin



154 OGUEITA BI GARREN EGUNECO

egotera, zu bacarric zaudelako lagun eguitera; eta gure esquergabequeriac izango litzateque secula pareric izan ez duana, zure convite zoragarri au estimatuco ezbaguenduque. Atera ezazu Jesus, gure barrendic bere zañaquin mundu engañañarri oni, eta emengo gauzai artu izan diegun naitasun guztia, edo beñic beñiñ gueyeguizcoa, bada zu bacarric izan bear cera, alde ascotara ondo irabaciae gauzcazulaco, zu bacarric izan bear cera gure anima ta sentido guztien jabe. ¡Ay! gaurdanie asico baguiña despreciatzen biotzarequin zure gustocoac ez diran gauza guztiac! Orduan zure vorondate santuua erabillico guenduque beti gurequin. Zuc, Jaun poderosoa, eztay batean oraurrequin ardo gozoa egun izan cenduan; alašsen bada gaur gure biotz elurra becin otzac berotu itzatzu zure amorio santuarequin. beguira ¡Oh Jesus Aingueruen Erregueal! beguira zure biotz amorooso orrequin gure barrengo deseо onari, eta lagun zaiguzu arren oraindaño peca-

VISITAC.

155

tuaren mendeap, ta Infernuco etsayaren atzaparretan bici izan baguera; emendie aurrera ibilli gaitecen gabaz eta egunez, ordu ta instante guztietan, echean eta campoan; eta allegatzen gueran toqui guztietan zure amorioaren billa, galdezca topatzen ditugun criatura guztiai: «Non icusi dezute gure animen esposo maitegarri ura? Ala villaturiç, guero zureqniñ izan gaitecen beti Amen Jesus.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

¡Oh Jaungoicoaren Ama Santa! Zure biotz amoroosoac ez du secula despreciatu izandu pecatariric, izan alditequeanic argalena ta gaiztoena ere, damututa zugana confianzarequin etorri zatzunie. «Cer Señora guezurren bat esan izan al-zuan gure Eliz-Ama Santac, eta gu engañañearia pensatu izan al-zuan, esan zuanean, zu ciñala pecatarien defensore consolagaria, eta Infernuco etsayac ecin sartu ditezquean



156 OGUEITA BI GARREN EGUNECO

gaztelu indarsua? Gu izango guera bada ain zorigaiztoocoac, gure gaiztaqueriaquin zure Semea asco aldiz ofenditu izan degulaco, zure mantu-pean artu naico ez gaituzunac? ¡Ah! ez dedilla onelacoric guertatu gurequin, ez dezatela gure pecatuac agortu zure misericordiazco iturri bedeineatua, pecatuen mancha ciquiñae garbitzeco beti ur ederra ematen ari dana. Ez dedilla aditu secula munduan Jaungoicoaren Ama Santa, pecatarien salvatzallea eman izan zuana, gure contra aimbeste-raño aserratu izandu dala, eta guri bere laguntasuna ucatu izan digula. Acorda zaite Señora, zure Semeac Cerura joan zanean, bere toquian pecatariae utzi izan eizquizula; gueroztic zu cera pecatarien Ama, ata Ama baten eguinquizuna da, bere seme ta alabai beguiratzea, batez ere gaizqui arquitzen diranean. Gu guera ¡Oh Ama urriquitsua! zure seme-alaba chit gaizqui gaudenac; ciquiñac eta llagatuac dauzcagu biotzac, bada gurequin batez ere eracutsi bear dezu, zu cerala

VISITAC.

157

eguiaz pecatarien Ama. Gure oitura ci-quiñac ebaquitzeo gracia; gure griña gaiztoac desterratzeko virtutea; mundu engañaigarri au ezagutzeko arguitasuna; soberbiaren contra guerra eguiteco indarra gure pecatuac mereci duten penitencia eguiteco gracia, eta emendic aurrera cristau obeac izaleco gogo eguiazcoa; ona emen Señora, gure biotz llagatuac sendatzeko, ta mancha ciquiñac garbitzeco bear deguna, eta zuc irichi bear diguzuna. Ala bada izan dedilla Amen Jesus.

OGUEITA IRU GARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Cristau ascoc, beren buruac peligro chit aundietan paratzen dituztela, eta bidetan neque, premia, estutasun, ta trabaju asco sufritu bear izaten dituztela, joaten dira Jerusalenera, aimbeste legua dauden Ciudadet artara, Jesu-Cristo gure Jaunac consagratu izan cituan lecu santu aec ado-



158 OGUEITA IRU GARREN EGUNECO

ratzera; visita aetan ibiltzen dira devocioz beteric, consideratzen dutela, Belengo estalpean, Jaunaren jayotza ain humilla; Getxemanico baratzan, Jaunaren agoniaco estutasun ura; Jerusalengo caletan, nolaco desprecioac sufritu bear izan cituan; Anasen, ta Caifasen echetan, emanizan ciozcaten masalleco cruel aec; Pilatosen palacioan, Jaunaren asoteae, aranzazeo coroa, iltzeco sentencia negargarri ura; calvarioara, cijoala, bidean eembat aldiz erorri izandu zan; eta calvarioco mendian, Jaunaren Pasio santua, gurutze tormentagarri ura, eriotza ain lotsagarri ura, eta azquenie, Jaunaren sepultura ain humillagarri ura. Consideracio santu oetatic ateratzen dira, beren biotzac urriquitasunaren aundiz suspirioca, Jaunagana-ko amorioaren aundiz urtutzen eta beren pecatuen damutasunaren aundiz desegui-ten dirala. ¡Ay! ¡eein ederqui aleguin leyal, ta santu aec condenatzen dituzte gure epeltasunac, zabarqueriac, esquergabequeriac! bada iduquiric edocein Elicetan

VISITAC.

159

toqui sagradu aec santificatu izan cituan Jaun ura bera, utsa balio izaten duan gauzaren batengatik lagatzen ditugu ain erraz gure egunoroko visitac; eta iru edo lau pauso ez emateagatik utzitzen degu bacarric Jaun amoroso au, gure animai calte negargarriac eta ecin conta ala ecartzen dizquigula. Lecu santu aec adoratzen joaten diranac, dio San Paulino gloriosoa ece, sayatzen dirala ecartzera aren Magestadeac santificatutako lur puska batzuec beren echetan errespeto aundia-requin guardatzeko, eta beren adisquideai erregalo estimagarriac eguiteco. ¡Bada nolaco gogoarequin, nolaco fede bieia-requin, confianzarequin, ta amorio ira-cequiarequin eterri bear ez guera Sacramentu santu au visitatzera, consideraturic emen bertan daucagula Jesus ura bera lecu sagradu aec santificatu izan cituana, eta emen billatuco degula nai degun gucion, bide ain lucetan aimbes-te neque, premia, estutasun, trabajo, ta peligro sufritu gabe? Sacramentu Santu



160 OGUEITA IRU GARREN EGUNECO

onentzako amorio iracequia izan zuan religiosa veneragarri batec esribitu zuan carta bat modu onetan: Neronec icusten det argiro nere zoriontasun guztia Sacramentu santu onec ematen didala; argatic nere biotz guztia daucat Jaun onen escuetan jarrita: ¡Ay! cembat gracia galtzen dituzte cristauac etortzen ez diralaco Elizara Jaun oni escatzena, bada Jesus amoro so onec dauca dese o chit aundia edoceñi emateco. ¡Oh Misterio miragarria! ¡Oh Ostia Sagradua! Non eracutsi izandu du Jaungoicoac ostia santa onetan becelako poderioric, jaquinduriaric, amrioric, bada emen daucagu miragarrizco moduz Jaungoicoac egun izandu duan guztia? Ez bada izan embidiaric Ceruco Aingueruai, arpeguiz arpegui ecusten dutelako, cergatik mundu onetan daucagu aren Magestadea Ceruan daucan gloria guztiarequin; esan bada itz eguiten diezuten guztiai, esan bein ere aspertu gabe, nola servitu ta adoratu bear duten Jesus Sacramentu onetan. Nic beinzat onela itz eguiten det

VISITAC.

161

Jaun onenganaco amorio iracequiac bearzen nabelaco: nic ezdaquit cer egunere Jesus amoro so onen honran eta alabanzen. Onela acabatu zuan bere carta religiosa zorioneco arrec. ¡Oh Aingueru Serafinec Sacramentu onen inguruan amorioaren aundiz erretzen zaudetenac! allega bedi amorio zoragarri ori gugana ere, gure biotz epelac ere berotu ditecen su Jaungoicozco orren aldamenean. Ala izan dedilla Amen Jesus.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Acorda zaite ¡Oh Maria, Ama chit gozoa! acorda zaite, oraindaño bear dan becela escatutako graciari ez diozula secula iñori ucatu. Acorda zaite, ez diozula oraindaño iñori zure biotzeco atea ichi izandu. Esperatzen degu bada, ez diguzula guri ere ichiko: ez diguzula escatzen



162 OGUEITA IRU GARREN EGUNECO

dizugun gracia ucatuco. ¡Oh María! er-regutu ezazu arren batez ere gugatic, bada izanic besteac baño pecatari andia-goac, arquitzen guera gu besteac baño zure laguntasunaren premi andiagoan. ¿Norc bestec libratuco gaitu Infernuco etsai gaiztoaren atzaparretatik? Norc ate-raco gaitu griña gaiztoen mendetic? Ber-dintzen degu Señora, animaco gaucetan gure burua, ecertaraco gauza ez dan aur jayo berriarequin. Aur jayo berria gauza da negar eguiteco; baña ez bere premiac erremediatzeco; alaſſen guera Señora ani-maco gaucetan gu ere: aur jayo berria gauza da bere burua ciquintzeco, baña ez garbitzeco; alaſſen guera gu ere: aur jayo berria berez erortzen da lurrera, baña ecin jaiqui diteque; alaſſen guera gu ere; guerez erortzen guera pecatuau, baña guerez ecin jaiqui quindezque, ecin atera quindezque pecatutic, norbaitec la-guntzen ez baldin badigu: aur jayo ber-riac ecin libratu dezake bere burua, animaliren batec seguitzen badio; alaſſen

VISITAC.

163

guera gu ere; ecin iguesi egui dezaque-gu, Infernuco etsayac seguitzen digute-nean, norbaitec laguntzen ezbadiagu: aur jayo berria azquenic goseac illo luque bere ama erruquituco ez balitzaque: bадa joh Maria, Amarie maitegarriena! ¿Cer besteric eguingo guenduque guc, baicican puntuau bein pecatuau erortza, ta gure animac iltzea, zu guzaz erru-quituco ez baciña? Azquenic aur jayo ber-ria pozic egoten da bere amaren bular-retan; alaſſen gu ere zure besa-arteau artu gaitzatzu bada Señora, beti zure be-soetan izan gaitecen Amen Jesus.

OGUEITA LAU GARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Zu cera eguiaz munduan iñorc ere ecin icusi zaituan Jaungoicoa. Alasſen esaten du Escritura Sagraduac. Baña ez da ecertan ere icusten obeto egui au, Sacra-mentu Santu onetan baño. Egui da aren



164

OGUEITA LAU GARREN EGUNECO

Magestadeac, Maria Santismaren entraña garbietatic atera zanean, ezcutatu zuala bere Jaungoicotásuna; baña aguertu zan mundu onetan secula icusi izandu dan guizonic ederreña: baña Sacramento Santo onetan guelditu izandu zanean, ez bacarric ezcutatu zuan bere Jaungoicotásuna, baita ere guizona dan partetic gueldita zan iñorc ere ecin icusi cezaquean moduan; eta bacarric icusten degu, dio San Bernardo gloriosoac, Sacramento Santo onetan bacarric icusten degu, oguiaren zuritasuna; Ostia sagradu onetan bere Magestadea ezcutatu ta aditzera ematen digula cembaat amatzen gaituan, eta cembaat deseatzen duan Jaun onengana confianza osoarequin allegatzea. Bada bere Magestade, ta gloria guztia eracutsico baliqnegu Sacramento miragarri onetan, ¿Cein etorrico litzateque Jaun onengana, bere premiac erremediatu ditzala esatera? Gure Jesus maitegarria: zue guri diguzun amorio zoragarria icusitza, guelditzen guera Jauna, arrituric, cer-

VISITAC.

165

esan ez daquigula. Zuc guri diguzun amorioagatic humillatu cenduan zure aunditasuna ogui pizca baten barrenean ezcutatzaño; eta orchen zaudela iñsillic, bacar bacarric, ta miragarrizco pacienciarequin deica gure animai, eta prest laztan gozoac emateco zugana allegatzen diranai. Zuc aditzera ematen diguzu, zure zoriontasun guztia gurequin izatean billatzenzelako. Baña ¡Oh Aita Eternoaren Seme Jaungoicozcoa! Gugandic jcer esperatzen dezu? ¡Oh Jesus! ¡Oh gure biotzen jabe zoragarria! ¿Etiñaquizun zuc, Sacramento Santo orretan guelditu izan ciñanean, etiñaquizun cembaat desprecio sufritu bearra izango cenduan? Gue ezagutzen degu Jauna, eta gue baño obeto cerorrec ezagutu izan cenduan, munduko guizonic gueyenac ezagutu naico etzinduztela, zure amorio santo ori sinistuko etzutela. ¿Cembaat aldiz erabilli izan etzaitzute ostiko-pean, eta bota surtara, urtara, toquiric ichusienetara? Bein baño gueyaganotan izandu cera Ostia Sagradu orretan



166 OGUEITA LAU GARREN EGUNECO

labanaquin zatitua ta ezpataquin zulatta, calvarioco mendian zure biotz amorosoa zulatu izan zuten becela; eta zuc eman oi izan dezu odol preciosoa llaga aetatican zure borrero cruelen begui ichutuac argitzeko, calvarioco mendian eman izan cenduan becela. Cristauac berac ere Jauna, etortzen dira Templo santura, zu gueyago offenditzaera. Zure mai sagraduac, zure aldareac daude chit pobreac eta ciquiñac cembat Elicetan; eta ozta izaten dezu argui chiqui bat gau guztian, ta egunic gueyenean zure lagun-garritzat. ¡Cembat erritan egon bear izaten cera aste osoetan ya anima batec ere visitatzentzat! Ea Ainguera santuac: zuazte zuec Eliz-aetara, cristauen zabarqueriac erremediatzaera, Jaun oni aec ematen ezdioten adoracioa prestatzera. ¡Ah gure animen salvatzalle maitegarria! ¡cein zorionecoac izango guiñaque gure beguietako negar malecoquin, gure biotzeco suspirioaquin, ta gure zañetako odolarequin garbituco baguinduzque zure Templo

VISITAC.

167

Santuetan oraindaño egun izan diran ciquinqueria guztia! Beñic bein Jauna, gaur biotz biotzelek deseatzen deguna da aldezaquegun guztian zu visitatzera etortzea, beste chit ascoren partetic artu bearizaten dituzun desprecioen alderaco. Ala izan dedilla Amen Jesus.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Oh Señora chit maitagarria! Zue deseatzen dezu Iaguntzea pecatariai; bada Ama urriquitsua, Eliz onetan dauzcatzu pecatariac zure laguntasuna escatzen dutenac. Ezagutzen ditugu gure premiac, eta badaquigu, zuc laguntzen ezbadiagu zu, zuc beguiratzen ezbadiagu zure biotz erruquitsu orrequin, erremediorie gabe betico galduac izango guerala. Atoz bada Señora amorosoa: atoz empeñu andiarequin salvatzera milla aldiz Infernua mereci izan duten anima errucarriac. Zure



168 OGUEITA LAU GARREN EGUNECO

itz erdi batec gueyago balio du Jesu-Cristo gure Jaunaren aurrean Ceruco Aingeru ta Santu guztien belaunico egundaco oracio guztiak baño: argatic zuc erraz irichiko dizquigutzu zure Semearen vorondatea cumplitzeco, ta gure animac salvatzeco bear ditugun virtuteac. Lembici bada escatzen dizugun virtutea da, gure griña gaiztoac ezagutzeco, eta gure argaltasuna noraoño allegatzen dan jaquiteco arguitasuna; virtute onen medioz asi gaitecen gaurdanic guerra eguiten gogorqui gure buruaren, au da, soberbiaren contra. Virtute onen ondorean bear degu guri aguintzen digutenai, ta batez ere gure animac gobernatzen dizquitenai obedecitzeco gogoa, asco al-diz gure buruen contra izango bada ere. Virtute oni seguitu bear dion irugarrena da, gure animen ta gorputzeco sentidu guztien garbitasuna. ¡Ay Señora! cembat estimatzen degu virtute zoragarri au; eta cembat emango guenduque virtute onen jabe eguitea gatic! Señora:

VISITAC.

169

zue icusten dituzu gure barrenac, eta arren lagundu bear diguzu virtute au iristen, nola deseatzen degun gure biotzetan, icusten dezun becela. Azquenic asco nai diogun virtutea da amorio iracequia zure Seme Jesu-Cristo gure Jaunarentzaco, eta zuretzaco. Esperatzen, eta deseatzen ditugu virtute oec, Zukan gure confianza guzia, San Bernardoec dion becela, Jaungoicoaren ondorean paratzen degula, ¡oh pecatarien Ama zoragarria! Amen Jesus.

OGUEITA BOST GARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

San Pablo Apostoluac alabatzen du Jesu-Cristo gure Jaunaren obediencia bere Aita Eternoaren esana eguitea gatic tormentu izugarrietan bere zañetaco odol guzia eman izan zualaco. Baña alabanza aundiagoac mereci ditu Jaunaren obedienciac Sacramentu Santu onetan guel-



170 OGUEITA BOST GARREN EGUNECO

ditu izan dalaeo; cergatic emen obligatu izandu zan obedecitza ez bacarric Aita Eternoari, baita ere guizonari; eta ez bacarric eriotza sufritu arteraño, baita ere munduaren azqueneraño. Jechitzen da Cerutic lurrera, ta guelditzen da Sacramento Santu onetan guizon batec aguintzen dion guztian. Ostia sagradu artan dago iñsilic, eta gueldiric guizonac nai duan arte guztian, edo preso becela sagrarioco guiltzapean, edo aldarearen gañean ascoren burlac, eta esquergabequeriac artzen dituala. Ostia sagradu artan dabil calez cale, echez eche, mendiz mendi, guizonac nai duan guztian. Ostia sagradu artan dijoa aren Magestadea edoceinen biotzera, naiz izan dedilla cristau ona, naiz pecataria, comunio santua artzen duana. Munduan bici izandu zan arte, dio San Lucas Evangelistac ece, aren Mages-tadeac obedecitu izan ciela bere Ama Ma-ria Santissimari, ta Aita San José glorio-soari: baña Sacramento Santu onetan obedecitzen dio Jaun Ceruco onec edocein

VISITAC.

171

Sacerdoteri, naiz izan dedilla guizonic gaiztoena. ¡Oh Jesus eguiaz maitegarria! Zure biotz gozoari itz eguiteco licencia escatzen-dizugu gaur Eliza onetan zure amorio santua adoratzen gaudenac; bada zure biotz zoragarri ori izandu da beti iturri bedeincatua, Sacramento Santu guztiac, baña batez ere aldareco Sacramento veneragarri au egunorò ematen diguna. Nai guenduque Jauna, Sacramento Santu onetan ematea zuri cerorrec Aita Eternoari ematen diozun gloria. Sinisten degu Jauna, aldare orretan amatzen gaituzula, araco calvarioco mèdian ill ciñanean, amatu izan guinduzun becela. Orduan sacrificatu cenduan gugatic zure bicitza Jaungoicozcoa, ta aldare orretan sacrificatzen dezu egunorò zure amorio santua. Arguitu ezazu ¡oh biotz Jaungoicozcoa! arguitu ezazu Sacramento Santu orretan zure ontasuna, icusi dezaten cein aundia dan, oraindaño ezagutu izan etzaituzte-nac: ezagutu ta jaquin dezaten, cemba-tamatzen dituzun, berac zure amorio san-



172 OGUEITA BOST GARREN EGUNECO

tuari ain gaizqui erantzun izan badiote ere; berac zuretzaco ain esquer gaiztocoac izan badira ere. Libratu itzatzu Jauna, edo beñic bein alibiatu itzatzu Purgatorioan arquitzen diran animac, eternidade guztian alabatuco zaituztenac. Gue ere Jauna, adoratu, alabatu, ta amatu nai guenduque zure ontasun zoragarria, baña ez digute utzitzentz gure grīna gaitzoac. Atera itzatzu bada arren gure biotzetan egunorō sortzen diran belar gaitzo guztiac, izan ditecen emendic aurrera zure biotzaren bici lecu virtutez ederqui apainduac; josi itzatzu, joh biotz atormentatua! josi itzatzu araco calvarioco mendian zure biotz amorosoac sufritu bear izan cituan tormentu aec gure biotz argal oetan, mundu onetan guertatzen zaizquin gun trabajiac pacienciarequin eramateco. ¡Oh biotz humilla! desterra ezazu arren gure soberbia, ta egui gaitzatzu humillac. ¡Oh biotz gozoa! atera itzatzu gure barrengoa naigabeac, ta eman zaiguzu zure gozotasuna. Gure biotzac izan ditecela

VISITAC.

173

emendic aurrera bacarric zu serbitzeco, zu amatzeco, ta beti zure vorondate santuza eguiteco. ¡Ay Jauna! gauza guchi eguingo guenduque zure honran ta alabanzen gure zañetaco odol guztia borroen ezcuetan isurita. Eguin dezagula bada beti zuc nai dezula Amen Jesus.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

O

¡Oh Maria gure Erreguiña chit mai-tegarria! Jaungoicoac guri emateco seña-latuac dauzcan Ceruco ondasun guztien jabea! Aren Magestadeac zure escuetatic ematen ditu bere misericordiaren onda-sun guztiac. Zuc esaten diguzu zure es-cuetan dauzcatzula zure devoto eguiaz-coac Cerura eramateco bear diran graciac. Bada Señora: aberastu itzatzu gure ani-mac gracia oetzaz; cergatic gueyago es-timatzen ditugu zure graciac mundocon ondasun guztiac baño. Gure Ama bio-



174 OGUEITA BOST GARREN EGUNECO

tzecoa: egua da dembora lucean peccatari aundiak izan guerala, baña baita ere alaſſen da egua zu biotzetic amatu nai zaitugula. Erruqui zaite bada guzaz, ta lagun zaiguzu gure premia aldietañ bicitzan ta eriotzaco orduan, garaitu ditzagun batez ere ordu estu artan etsayaren tentacioac; artu dezagun gure pecatuen damutasun eguiazcoa; izan ditecen ordu artaco nequeac, gaitzac, estutasunac, eta oña-ceac gure pecatuen zorrac pagatzeco; izan dezagun ordu estu artan Jesus gure Aita erruquitsuagan esperanza aundia, barcatuac izango dituala gure pecatuac, ta bere besa-artean artuta laztan gozoac emango dizquigula, guc iñola ere mereci izan ez baditugu ere: guero azqueneco asnasa ematen degunean izan dezagun suerte zorionearia Cerura joateco, ta Erreinu orretan zure edertasun miragarria icusten, ta gozatzen eternidade guztian egoteco. Bai Señora: eriotzaco orduan arquituco guera zure premia chit aundian. Badaquigu Infernuco etsayac egungo duala aldezaquean

VISITAC.

175

guztia guri sinistu-eracitzeko gure peccatuac ain izugarriac izan diralaco barcatugabeac izango dirala; Jaungoicoaren justicia gure contra ain aserreña dagoala, ta Jaun bildurgarriarequin paqueac egniteco dembora pasa zaigula. ¿Cer izango da orduan guzaz, Maria, zu urriquitzen ez bacera, ta guri laguntzera etortzen ez bacera? Ez arren batez ere orduan desamparatu Señora, izan dezagun guero Ceruco gloria Amen Jesus.

OGUEITA SEI GARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Poztu zaitezte ¡Oh Jerusalendarrac! eta alaba ezazute Jaungoico andia, Jaungoico santua, bada zuen artean daucazute zuei dizuten amorioaren andiz. Onela combidatzen, ta animatzen cituan bere erricoac Isaias Profeta Santuac Jaungoicoagana beren biotzac jasotzera, ta aren Magestadeari graciaematera. ¡Oh Jesus,



176 OGUEITA SEI GARREN EGUNEKO
gure Jaun eta Jaungoico! cembañ poz-
tu bear guñaque, eta zuganaco cein
gogo andia iduqui bear guenduque, si-
nistoric gure artean, gure Elicetan, gure
echeen aldamenean, gure errietañ bici
cerala Sacramento Santu orretan gloriaz
beteric, Ceruan bici ceran becela! Si-
nistoric gure atarian, edo aldameneau
daucagula Ceruan Ainguerauc, eta San-
tuac gloriaz apaintzen dituana! Sinis-
toric iru edo lau pauso eman ezquiero,
daucagula amorio zoragarria beti ematen
dagoan iturri bedeincatua! Aldareco Sa-
cramentu Santua ez bacarric da amorio
eguiazcoaren señaleac ematen dituana,
baita ere da amorio beraren iturria bera,
guri digun naitasunac obligatzen duana
Sagrario artan preso becela egotera, Ba-
ña; Oh Jesus, Sacramento orretan gu-
gatic aimbesteraño humillatua! Cein ar-
razoi audiarequin quejatzen cera gure
contra, pobre bat eguiñic zaudela gure
atarian zai gure biotzeco atea ta sarrera
noiz idiquico dizugun, escale bat abera-

VISITAC.

177

tsaren atarian egoten dan becela limosna-
cho bat escatzen; baña gue ez dizugula
casoric eguiten batere criaturaric despre-
ciatuena baciña becela. Arrazoya daucazu
Jauna, bai arrazoi andia daucazu orrela
quejatzeco. Gu izandu guera oraíndaño
ain esquer gaiztoaco zuretzaco: gue utzi
zaitugu bacarric Sacramento orretan gure
zabarqueriz; gue ezdieu eguiñ batere ca-
soric zure dei amorosoai, zure combite
zoragarriari, gure buruai mortificacio
pisca bat gueyago ez emateagatic: Zue jó
dituzu asco aldiñ gure biotzeco ateac, ta
esan etorri gaitecela zure mai sagradura
zurequin dembora pasatzena, janari be-
deincatua, ta edari gozoa jatera, ta edate-
ra; au da, zure gorputz sagraduarequin,
ta odol preciosoarequin gure animac
mantentzera: Baña gue jnola eranzun
izan diegu oraíndaño zure dei amoroso
oei? Castiga ezazu Jauna, bai, castiga
ezazu cedorrec nai dezun moduan gure
oraíndañoco zabarqueria, esquergabe-

12



queri andia; baña ez arren eman castigurie zugandican apartatuco gaituanic: ez Jauna, onelaco castigurie; bada oraindañoco utseguiñac, ta esquergabequeriac erremediatu ñnai ditugu, ez bacarric aldezaquegun guztian zu visitatzera etortzen guerala, baita ere aldezaquegun dembora guzia zure aurrean pasatzen degula, baita ere aldezaquegun guztian, edo aseotan beñic bein comulgatuta zu honratzeagatic; baña Jesus, zuc eman bear diguzu gracia gogo au ondo cumplitzeco. Zure Aita Eternoac esaten digu, zu cerala bere Seme biotzecoa, ta zugan dituala bere atseguntasunac. Bada ¡Oh Jaungoicoaren Seme zoragarria! Aita Eternoac billatzen baditu bere atseguntasunac zurequin egotean; égu pecatari urricarriac ibillico guera beti iguesi zugandic? ¡Oh Cerutic jachitaco su bedeincatua! Quiscaldu itzatzu, erre itzatzu, deseguin itzatzu arren gaur oraindaño zure ontasuna ofenditu eraci, ta zugandic apartatu izan gaituen griña gaitzo guztiac. Oraindaño bes-

te gracia chit asco eguin izan dizquizugu-laco, esperatzen degu orain graci au ere eguingo diguzula, zure confura utzitzen ditugu gure animac, ta zure escuetan jar-tzen guera, zuc gobernatu gaitzatzun gu-re pauso guztietan. Azquenik escatzen di-zugun mesedea da Jauna, eriotzaco orduan arquitzen gueranean eterri zaiteala Comunio Santuan gu visitatzera, gu ali-viatzera, ta guri laguntzera, iltzen gue-ranean Cerura zugana joateco Amen Jesus.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Oh Maria gozotasunez betea! Orain esan bear dizugu San Bernardo gloriosoa-requin: zu cera misericordiaren Erreguiña. Eta jœin dira zure misericordia bear dutenae, ez bada zure premian arquitzen diranac? Zu cera misericordiaren Ama, ta gu guera peeatari guztien artean ur-ricarrienac. Bada Señora: zu bacera mi-



180 OGUEITA SEI GARREN EGUNECO

sericordiaren Ama ta Erreguiña, ta gu
baguera pecatarien artean urricarrienac,
eta argatic zure alaco premian arquitzen
gueranac, arreta andiagoarequin begui-
ratu bear diguzu guri, beste guztiai ba-
ño. ¡Oh Señora, gure bitartecoric onena!
Zue ondo daquiza cein andiac diran gure
premiac; lagundu bada arren guri, ta ur-
riqui zaite guzaz. Ez du gure Eliz Ama
Santac cantatzen alferric: Jaungoicoac
salva zaitzala Maria, misericordiaren
Ama. ¡Cembat arquitzen dira orain Ce-
ruan, zu Señora, ain urriquitsua izan
ceralaco, bestela erremedioric gabe Infer-
nuan egon bear zutenac! ¡Cembat anima
gaišso, cembat pecatari urrikarri atera
dituzu etsayaren mendetic, ta ecarri Ce-
ruraco bidera, zure entraña gozoac aim-
besteráño aezaz urriquitu izan diralaco!
Esan dezatela orain Erreinu orretan zure
mantu-pean dauzcatzun anima zorioneco
oec, instante guztietan zuri graciae ematen
daudenac, zure bitartecotasunagatic sal-
vatu izan diralaco. ¡Oh Erreguiña erru-

VISITAC.

181
quitsua! anima gaššoz, pecatari urricar-
riz betea dago orain mundua. Urrutira
joan gabe emen Eliza onetan bertan billa-
tuco dituzu. Jaquin dezagun bada, gue
ere Maria, cein andia dan guretzaco ere
zure erruquitasuna; ta guero alaššen
egongo guera gu ere Ceruan zure mantu-
pean, ta zuri graciae ematen Amen Jesus.

OGUEITA ZAZPI GARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Sacramento Santu onen errezoan esa-
tendu gure Eliza Ama Santac, ez dago
munduan beste religioric bere Jaungoi-
coac ain alde dauzcanic, nola cristauac
beren Jaungoico eguiazcoa daucaten.
Gentillac berac aditu izan citutzenean gure
Jaungoicoae guri egun izan cizquigun
gauza miragarriac, esaten zuten arrituriac:
¡Oh, ceiñ ona da cristauen Jaungoicoa,
cein ona da! Eguiaz Gentillac egun izan
cituzten Jaungoicoac beren gustocoac, be-



182 OGUEITA ZAZPI GARREN EGUNECO
ren griñā gaiztoac escatzen cizcaten atse-
guintasunac cumplitzeco nai zuten liber-
tade guztia emango cienac; alaz guztiaz
ere ecin sumatu izan zuten Jaungoicoric,
berai alaeo amorioa izango cienic, nola
digun guri gure Jaungoico eguiazcoac.
«Noiz iduqui izan dituzte Gentillac beren
Jaungoicoac aldareco Sacramento Santuan
berai otsez, amoriò santuarequin com-
bidatzen dituztela beren mai sagradue-
tara, jaten ta edaten emateco beren gor-
putzac, eta odolac, guc daucagun becela
gure Jaungoicoa senide baten amorioare-
quin, gugandic partitzeco biotzic ez duala,
beti gurequin gabaz, ta egunez izateco
gogo chit audiarequin, bere zoriontasun
guztia beti gurequin izatean billatu ba-
zuan becela? ¡Ah Jesus gozotasunez be-
tea! sinisten degu guri diguzun amorio
iracequiac obligatu izan zaituala eguitera
secula eguin izan dezun gauzaric mira-
garriena, au da, Sacramento veneragarri
orretan gurequin batean bici izatea. {Cer-
gatic bida Jauna, gabiltza gu iguesi zu-

VISITAC. 183
gandie? eta qnola bici guera ain dembora
lueean zu visitatzera etorri gabe, ta co-
munio santuan zure combite sagradua
artu gabe, estimatu gabe? Ordu laurden
bat zure aurrean, zure compañian pasa-
tzea iruditzen zaigu urte bete pasa zaigu-
la. Ain gauza enfadagarria eguiten zaigu
Jauna, zure laguntasunean egotea. ¡Oh
pacienza miragarria gure Jesus amo-
rosoarena! ¡ecin aundia cera! Bai Jesus,
ezagutzen degu aundia dala zure pacien-
cia, ain aundia dalaeo zuc guri diguzun
amorioa, eta amorio iracequi onec obli-
gatzen zaitu sufritzera gure aimbeste es-
quergabequeri. Amorio zoragarri onec
lotzen zaitu ain gogorqui gugandic apar-
tatzecò licenciaric ematen ez dizula. ¡Ah
gure Jaun, eta Jaungoicoa! zure virtute
guztiac dira paregabeac, eta alaßen da
zure amorioa ere. Desterra itzatzu bada
Jauna, bai desterra itzatzu betico gure
biotzetaic oraindañoco esquergabeque-
riac, eta iracequi ezazu zure amorio san-
tuac mereci duan amorioa; bada Jauna,



184 OGUEITA ZAZPI GARREN EGUNECO
amorioari amorioarequin eranzun bear zayo; eta guc oraindaño eranzun izan diogu zure amorioari esquergabequeri negargarriaquin. Gure zuganaco epelta-sunaren, ta oztasunaren, ¿cein señale negargarriagoric, Elizan zurequin ain laster aspertzea baño? Beste edocein toquitan pasatzen ditugu ordu osoac gustora, eta joaten zaigu dembora sentitu ere gabe; Elizan ta zure aurrean berriz egun zaigu oraindaño dembora ain lucea ece, ordu laurden bat iruditu zaigu egun osoa. Eracutsi arren Jauna gaur, eracutsi guri diguzun amorio zoragarria, eta orduan urrezco cate orrec eramango gaitu zugana gure vorondateac nai izaten ez dutenean ere, guc batere gogoric izaten ez degunean ere; eta gure penaric aundieta izango da zugandie partitza, oraindaño zurequin egotean alaco naigabeac sentitu izan ditugun becela. Eracusten badiguzu zure amorioaren edertasuna, lenago Santa Catalina Senacoari eracutsi izan cínion becela, orduan gure gogo guztia izango da

VISITAC. 185
gabae, eta egunac emenche zure aurrean pasatzea. ¡Oh Aita Eternoa! zure Seme Jaungoicozco au esqueintzen dizugu Sacramento onetan; eta ofrenda onen alderaco eman bear diguzu gogo aundia emendie aurrera aldezaquegun guztian Jaun onen aurrean egoteco Amen Jesus.

Comunio espirituala.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Jaungoicoac salva zaitzala Maria, ¡oh Ceruco Aingueruen apainduria ta mundo anima virtuosoen gaztelu segurua! Jaungoicoac salva zaitzala Maria, ¡oh Ceruco Erreguearen Ama milla bider zorraineo, ta mundo pecatarien defensore consolagarria! Eguiaz zu cera ondasun eguiazcoen jabea, Erreguiña bat bere mendeko Erreiniaren jabe izaten dan becela. Zure icena aditzen danean, mundo guztiac macurtzen du burua. Zure aurrean aundiak eta chiquiac, aberatsac



186 OGUEITA ZORTZI GARREN EGUNECO
eta pobreact, Erregueac eta soldaduac,
guizonac eta Aingueruac, guztiac belau-
nico jartzen dira. Zure virtutea icusita
demonio guztiac iguesi dijoaz. Zure ar-
guitasunari beguiratuta oidei belz guztiac
deseguiten dira. Zuc aguindu ezquero
Ceruco ateac zabal zabal jartzen dira. ¡Oh
Maria, cristauen esperanza zoragarria!
¡Oh misericordiaren Erreguiña amorosa!
¡Oh destierro onetaco vicitza samiñaren
gozotasuna! Zuri beguira gaude negarre-
co mundu onetan vici gueranac: lagundu
bada Señora emengo peligroetan, defen-
ditu gaitzatzu gure etsayaquin dauzcagun
guerra gaztlo oetan. Zuc badaquizu gure
animac ez daucatela ordu laurden bateco
seguridaderic: orain zure Semearen gra-
cian, ta adisquidetasunean egonagatic gu-
re animac, punturaco erori ditezquela pe-
catu izugarrien batean. Guardatu gai-
tzatzu bada emen beti zure Semearen
bildur santuan, icusi ta gozatu dezagun
guero aren arpegui ederra, zurearequin
batean eternidade guztian Amen Jesus.

VISITAC.

187

OGUEITA ZORTZI GARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Jaungoicoac eman eigin bere Seme Je-
sus San Pablo Apostoloac dion becela, gu-
ri izan cigen amorioac obligatu izan zua-
laco. ¿Cergatic bada escatuco ezdiogu aren
Magestadeari beste edocein gauza con-
fianza osoarequin, batez ere gure animen
oneraco izan ezquero? Gue badaquigu,
fedeac esaten digulaco, Aita Eternoac be-
re Semearen escuetan utzi izan citura
Ceruco ondasun guztiac. Alaba dezagun
gure Jaungoicoaren ontasuna, erruquita-
suna, ta amorioa; bada ain aberatsac, eta
ain zorionecoac egun gaitu bere Semea
emanarequin Sacramentu Santu onetan.
¡Oh munduaren Salvatzallea! ¡Oh Jaun-
goicoaren Seme bacar doncella baten en-
traña garbietan guzon eguiña! Gue esan
dezaquegū zu guzia gurea cerala, gue
nai degun guztian. Baña gesan dezaque-



188 OGUEITA ZORTZI GARREN EGUNECO
gu ura bera, edo obeto esateagatic, esan
dezaquezu zuc Jauna, gu ere zureac gue-
rala zuc nai dezun guztian? Guc eguiñ
dezaquegu zurequin nai degun guztia;
baña zuc eguiñ dezaquezu gurequin nai
dezun guztia? ¡Ay! ez oriñsen Jauna,
oraindaño beñic bein. Ez dira egon izan-
du gure vorondateac oraindaño ain pres-
tatuac, zuc nai dèzuna eguiteco, zure vo-
rondate Santua guc nai deguna eguiteco
beti prest egon izandu dan becela. Ez de-
dilla bada arren guertatu emendic aurre-
ra onelaco esquergabequeriaric. ¿Nore si-
nistuco zuan bein ere, Jaungoicoaren vo-
rondate santua dagoala beti pronto guizon
argalaren vorondatea eguiteco; ta guizon
argala ez dala bein ere egongo prestaera
onarequin Jaungoicoae esaten diona egui-
teco? Alaz guztiaz ere, auñsen da Jauna
oraindaño icusi izandu dana; baña ez
dedilla arren emendic aurrera icusi gure
arteau onelacoric. Gaur artzen degu gogo
eguiazcoa, emendic aurrera zure voron-
date santuari gauza guztietan seguitzeco.

Gaur escaintzen dizquitzugu gure senti-
duac, pensamentuac, deseoaec, voronda-
teac, baita ere gure bicitzac. Gaur apar-
tatzen guera criatura guztiac gandic bio-
tzez beñic bein, ta jartzen guera osoró
zure mendean. Iracequi itzatzu Jauna gu-
re biotz epelac zure biotzeco su amoroso
orrequin. Gure sentido guztiac izango
dira gaur danic zu servitzeco. Oraindaño
amatu izan etzaitugunean ere, zuc eman
izan dizquigutzun amorio eguiazcoaren
señaleac aditzera ematen digute, emendic
aurrera obeto amatuco gaituzula, bada gu
ere Jauna, sayatuco guera zure ontasuna
amatzera. ¡Oh Aita Eternoa! Ona emen
Jesús zure Semearen merecimentuac gu-
re zorren aideraco. Merecimiento oequin
ematen dizquitzugu ezquierrac bear ditu-
zun guztiae guri egain izan dizquigutzun
mesedeaç gatic. Jesus zure Seme onen
merecimentuac gatic esperatzen degu ill
arteko gracia, ta guero Ceruco gloria.
Ezagutzen degu Jauna, bai badaquigu ez
degula mereci gracia, ain estimagarri au,



ez degula mereci, zu guzaz acordatzeara, gure oraindañoco bicitza zorigaizto-coari beguiratu ezquiero; alaz guztia ere esperatzen degu, zure ontasunac erremediatuco dituala gure utseguiñac, Sacramento Jaungoicozco onen merecimientua beguiratu ta. Aditu itzatzu bada gure gaurco oracioac, aditu gure escariae, cergicatik gaur deseatzen degu zugana osoró biurizea, secula bein ere gueyago zugandie ez apartatzeko gogo eguiazkoarequin. Amatzen zaitugu gure Jaun eta Jaungoicoa: amatzen degu zure biotzeco amorio eguiaz maitegarria: amatzen zaitugu, ¡oh gure gloria! gure pozgarria! gure bicitza! gure gauza guztia! ¡Ay! nore izan aldezaquean Ceruco Ainguera Serafinen amorio iracequia, esateko bear dan becela, amatzen zaitugula, baña amatzen zaitugun baño gueyago amatu nai zaitugula! Ala báda izan dedilla.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

O h Maria! Cembat poztutzen gaitu Eliza Ama Santac ematen dizun icen gozo arrec, eta zure devoto eguiazkoac egunorró esaten dizuten arrec. Ama chit mai-tegarria! Eguiaz ¡Oh Señora! zu cera Erreguiña guztien artean prestuena, abe-ratsena, andiena, garbiena, éderrena, amorosoena, urriquitsuena, santuena, ta maitagarriena. ¡Ay! criatura guztia eza-gutuco balitzque ondo zure virtute ain estimagarri oec! orduan bai izango litzateque amatua zure ontasuna! Ona bada Señora amorosa, orain cer deseatzen degun Eliz onetan arquitzen gueranac: nai deguzu biotzetic amatzea, baña amorio zo-ragarri au ecin izan dezaquegu gure ale-guiñez, ta virtutez; argatic cedorrec irichi bearco diguzu zure Seime Jesus gure Jauna-gandic. Bai Ama urriquitsua: alcanzatu



192 OGUEITA ZORTZI GARREN EGUNECO

bear diguzu gracia au zure Semeagandie; bada gracia ain estimagarri au da mundu onetan gueyen gueyena estimatzen deguna ta argatic escazen dizugu humilda-dearequin, confianzarequin, ta deseо ira-cequairequin. Gaurdanic izan nai deguzure Seme ta alaba devoto eguiazcoac; ez bacarric mingaпean haita ere obra onetan. ¡Oh Ceruco Aingueruen Erreguiña! Cembaт estimatzen degu zu guzaz oroitzea! mundu onetako Erreguiña laster ilco dan batec guri beguiratzea, ta guzaz acordatzea aimbeste estimatzen bada, ¿nola deseatuco, ta estimatuco ez degu, zue ¡oh Ceruan Aingueruac adoratzen, alabatzen, ta servitzen zaituzten Erreguiña miragarria! ¿Nola gue pozaren andiz milla gracia egunoró emango ez dizquitzugu, zue zure serbioс santura combidatzen gaituzulaco? ¡Ay Señora: zuganaco amorio santu zorragarian gure biotzac berotuco balira, urtuco balira, deseguingo balira! Orduan cein zorionecoac izango guиñaque eternidade guztian! Ez aldegu bada Señora

VISITAC.

193

gue izango suerte ain zorioneco au, gure oraindaпoco esquerbagequeri andiac gatican? ¡Ah Maria! erruqui zaite arren guzaz, betico galduac izan ez gaitecen Amen Jesus.

OGUEITA BEDERATZI GARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Ona emen naucazute zuen biotzen atetan, ta zuei otsez. ¡Oh Cerutic jechitaco gure animen Artzai chit maitegarria! zure odolarequin erosi izan cinituan gure animai diezun amorioagatic gurutze batean bein bacarric bicitza eman eta contentu ez izanic, munduaren azqueneraño Sacramento Santu onetan guelditu nai izan cenduana, gure egunoroco visitac artzea, ta ascotan comuniо santuan gure biotzetara elortzeagatic ¡Ay! Icasico baguendu zure aurrean nola egon bear dan, lenago zuganaco amorio santuan urtutzen, ta



194 OGUEITA BEDERAZI GARREN EGUNEGO

deseguiten cegoan anima santa batec icasí izan zuan becela! Ni jarri naiz nere biotzeo adisquideric maiteenaren aldamenean, esan zuan anima zorioneoco arrec. ¡Aimbesteraño zure ontasuna amatzera gu ere allegatuko baguiña! orduan gabaz ta egunez beti egon naiko guenduque zure Magestadea arquitzen dan aldaurrearen aurrean, eta Eliz artan billatuco guinduzque gure barrengo atseguintasun eguiazcoae, zu Jauna, biotz osoarequin maite zaituzten anima zorionecoac billatzten dituzten becela. Ostia sagrado orretan sinisturie dagoala zure Jaungoicotsuna, ta consideraturic, zure ontasunac gugatic eguiñ izan dituan gauza miragarriac, emenchen zurequin batean egotean izan bear genduque mundu oneitan gozatu, ta deseatu aldezaquegun gloria guztia. Ea Jesus, bada eraman gaitatztu zugana zure edertasuna gozatzera; ta zure amorio zoragarriari amorio iraquizarequin eranzutera. Bai gure Salvatzailea; orduan utzico ditugu mundocon

VISITAC.

195

gauzac, ta atseguintasun engañaigarri guztia, eta etorrico guera lasterca aldezaquegun guztian zurequin dembora pasatzera. ¿Cein frutu gozoac, cein virtute estimagarriac ématen dituzte zu bear dan becela amatzzen zaituzten anima zorionecoac? Baña gu gatoz Jauna, zure aurrera lotsaturic batere virtuteric ez degulako; eta ezdaquigu nola atrebitzen gueran etortzera zu visitatzera; zue esana daucazu Jauna, zu visitatzera datorrena, ez dedilla etorri escu utsaquin, au da, virtuteric gabe: etzerate etorrico nere aurrera ofrendarequin ezbaldin bada. Bada Jesus, ¿Cer egoingo degu? ez etortzea nai aldezu zu visitatzera, zuri gustatzen zaizquitzen virtuteac ez daucagulako? ¡Ay! Ez Jauna: ez da au zuri gustatzen zatzuna, gu zugandik iguesi ibiltzea; baicican zuri gustatzen zatzuna da, etorri gaiteala gu aldezaquegun guztian zugana; eta zuri gustatzen zaizquitzen virtuteac ezbadauzcagu, cerorrec emango dizquigutzula, esaten diguzu. Etorrico guera bada, Jauna,



196 OGUEITA BEDERATZI GARREN EGUNEKO
emendic aurrera pobreac, heartuac, ta
erruecarriac baguera ere: etorrico guera,
zuc aberastuco, sendatuco, ta zorionecoac
egungo gaituzula esperanza osoarequin:
Argatic guelditu izan ciñan Sacramentu
Santu onetan, ez bacarric zure adisquide
maiteaquin itz eguiteagatic, baita ere
gu pecatariai beguiratzeagatic, gugatic
Aita Eternoari oracio eguiteagatic. Ea
bada Jauna: asi zaíte gaur ondutzen gure
biotz gaiztoac: aditu itzatzu gure suspi-
rioac; eta erruqui zaite guzaz. Guc ado-
tzen zaitugu, ¡oh gure biotzen Erregueal!
¡Oh guizon guztiac maite izan bear zaituz-
tena! ¡Oh gure animen Artzai amorosoa!
Gaur gatoz zu visitatzera, baña ezdaucagu
beste ofrendarie zuri esaintzeco baicic
gure biotz argalac, gaiššoac, pobreac, er-
rucarriac: artu itzatzu Jauna, ta sendatu
zure graciarequin. Biotz argal onequin
maitatu nai zaitugu gaurdanic, eta pres-
tatutu itzatzu, apaíndu itzatzu biotz pobre
oec bear dan becela zu amatzeko, zu ser-
bitzeco, ta zure amorio santuan, zure

VISITAC. 197
serbioan deseguiteco. Ala izan dedilla
Jauna Amen Jesus.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Oh Maria, gure Erreguiña! Zuri
Eliza Ama Santac esaten dizu, zu cerala
pecatarien Ama consolagarria. Bada Se-
ñora: zu bacera pecatarien Ama, ta de-
fensorea, asi zaíte gaurdanic cumplitzen
batez ere gurequin oficio ain provechu
andico ori gure animentzaco. Eliza onetan
dauzcatzu Maria, pecatariac, esaten dizu-
tenac Santo Tomas Billanueva-coarequin:
ea pecatarieren defensorea: guardatu gai-
tzatzu gure etsayac gandic. Eguia da dem-
bora lucean pecatari andiac izan guerala:
baña Señora, gaiztaqueri andi aetan erori
izan gueralaco, zuc erremediatu bear
gaituzu; zuc lagundu bear diguzu atera-
tzen gaiztaqueri oen mendetic: Damutuac
gaude Señora, bai milla bider damutuac



198 OGUEITA BEDERATZI GARREN EGUNECO
gaude pecatu acc eguiña, ta zure Semea
ofenditua; argatic zuc esaten badiozu,
barca ditzala gure pecatuac, aren Mages-
tadea laster erruquituco da guzaz, ta bar-
catuco dizquigu, baita ascoz gueyago izan
baciran ere, ta ordnan salvatuco guera.
Cergatic bada egungo ez diguzu graci
au? Oraindic gure barrenean, guc atera
nai ez degun belar charren bat, gue utzi
nai ez degun griña gaiztoen bat ecusten
aldezu, zure Semeari ez esateco, guzaz
erruquitu dedilla? Nola bada atera deza-
quegu guc belar char ura, nola utzi de-
zaquegu guc oitura gaizto ura, nola mor-
tificatu ditzaquegu guc gure griña gaiz-
toac, Cerutic nore lagundu ez badaucagu?
Zuc badaquizu, ¡oh Aingueru Santuen
Erreguiña! zuc badaquizu, Adanen zañe-
tic sortu, ta ernetaco landare gaiztoac
ecin eman dezaquetela frutu onic. Zuc
badaquizu gure biotz ciquiñac ecin eman
dezaquetela ciquinqueria, ta gaiztaqueria
besterie. Argatic izango da zuretzaco Se-
ñora honra chit aundia gure biotz ciqui-

VISITAC.

199

nae, ela gaiztoac prestalzea zure bitar-
tecotasunarequin, eman ditzaten gaur-
danic frutu gozoac, ta virtute zure Se-
meari guztatzen zaizcanac nola diran: pe-
catuen damutasuna, biotzetic humillatzea,
eramanquizunetan paciencia, Jaunaren
vorondatearequin conformatzea, ta gure
vorondatea gorrotatzea. Ala izan dedilla
Amen Jesus.

OGUEITA AMAR GARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Cergatic ezcolatzen didazu Jauna zu-
re arpegua? Job Patriarea Santuac artu
zuan bildur aundia, Jaungoicoac bere ar-
pegua escutatu izan ciolaco: baña Jesu-
Cristo gure Jaunac ezcutatzen digulaco
bere gloria, Magestadea, aunditasuna, ta
edertasun miragarria Sacramentu Santu
onetan, artu bear degu ez bildurra, baña
bai poza ta confianza aundia. Bada Ceru-
co Aingueruen Erregue Jaun onec aguer-



200 OGUEITA AMAR GARREN EGUNECO

tuco baliuegu aldare onetan bere gloria-ren audiitasuna, ta edertasuna, gnoia atrebituco guñaque joatera Jaun onen-gana, gure premiac eracuetera, ta graciac escatzereta? Bai gure Jesus amorosoa: zuc gordetzen dezu zure gloria guztia Ostia sagradu orretan, zu humillatzen cera, zu aimbesteraño jechitzen cera gure amorioa-renta gure biotzaren jabe eguiteagatic, eta gure oracioac obeto aditzeagatic. Arrazoi aundia ceucan Isaias profeta Santuac, esan zuanean arriturie guztia: guizonac ibilli bear lutequela erriz erri predicatzen mundu guztitican, zuc eguztun cinituan graciac, batez ere Sacramento Santo one-tan guelditu izan ciñanean ogui pista bat-baciña becela. ¡Oh gure Jesus amorosoa-ren biotz chit maitegarria, gure biotz guztien jabe izan bear cenduqueana! Biotz egiaz graciaz betea, ta amorio Santuan iracequia, Ceruko Aingueruen ta Santuen biotz guztiac berotzeraño, urtzeraño, ta mundo guzon guztien biotzac ere erretzeraño ta urtzerañoco berotasuna

VISITAC.

201

ematen dezuna! ¡Cergatíc bada iracequi-zen ez dituzu gure biotzac? Eguzquia-ren berotasunac elur gelatua berotzen, ta urtutzen du, euriac edo ur tantoac arria zulatzen du betico jardunarequin: ¡Cergatíc bada Jauna, zure amorio ain iracequiac, ta alaco virtutea duanac urtu, ta zulatu bear ez ditu gure bio-tzac arria becin gogorrac, ta elurra be-cela gelatuac arquitzen badira ere? ¡Oh Cerutic jachitaco su Jaungoicozcoa! su beti arguia ta iracequia! Arren erre, quis-caldu, ta deseguin itzatzu gure biotzetan arquitzen diran mancha ciquin guztiac; ta arguito itzatzu gure entendimentuen illumpe negargarrizcoac! Oh biotz amo-rosoa, beti zabal zabalic zaudena, zure barrenera sartu nai duten pecatari guz-tientzaco! artu gaitzatzu arren gu ere. ¡Oh biotz atormentatua batez ere calva-rioco mendian, ta gurutze izugarrizco ar-tan! eman bear diguzu gure pecatuen damutasun egiazcoa. Mendi artan, ta gurutze artan izan cenduan amorio ira-



202

OGUEITA AMAR GARREN EGUNECO

cequia gure animac salvatzeco, ta gure biotzen jabe eguiteco, amorio ura bera, deseo iracequi ura bera daucazu orain. Sacramento Santu orretan gure amorio guztia erosteco, ta gure biotzæc zurearequin bat eguiteco. ¿Ez ditugu bada Jaun-a, orain ere adituco zure dei amorosoa? Despreciatuko degu zure adisquidetasune-ra biurtzeco, ta zure biotz amoro-so orretan sartzeco egunoró eguiten diguzun combite sagradu au? ¡Oh Jesus eguiaz maitegarria batez ere Sacramento orretan! zure merecimentua, ta virtuteai beguiratu ta llagatu, lotu, ta zure biotzarequin bat egui ditecela gure biotz esquer gaiztoaco. Orduan Jauna sayatuco guera zu-ri gauza guztietan gusto ematera: orduan ez diogu batere casoric egungo mun-duari, esan dezala nai duana: orduan venzutuco ditugu gure griña gaiztoac, oraindaño zugandic apartatu izan gaituz-tenac: eta orduan Infernuco etsai guztia-gueldituko dira amorratuta desesperaturic gugandic provechuric izango ez dutelaco.

VISITAC.

203

Ea Jesus: auñsen da gaur escatzen dizuguna. ¡Oh Maria! zac nai dezun guztia alcanzatuco diguzu: ea bada alcanzatu arren gaur zure Seme Jesu-Cristo gure Jaunaren biotza bear dan becela amatze-co, ta servitzeco gracia gaurdanic asita mundu onetan bici gueran arte guztian, amatzecho guero Ceruan Amen Jesus.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Oh Maria, Señora chit maitegarria! zu cera San Buenaventurac dion becela, gurasoric ez duten hume-zurizen Ama erruquitsua. Hume-zurtzac dira Señora, pecatari errucarriac beren argaltasuna-quin, ta griña gaiztoquin Jaungoico Aita amorosoa galdu izan dutenac. Orra bada Señora: gu guera hume-zurtzac, pecatuarequin Jaungoicoa galdu izan de-gun ezquero, aren Magestadeari aserratu eraci izan diogun ezquero. Zu bada izan



204 OGUEITA AMAICA GARREN EGUNECO
bear cera gure Ama estadu negargarri
onetan. Aita Santu Inocencio irugarrenac
ematen digno poz aundia, joh Maria! esat-
ten duanean zure honran: ¿Ceñi ucatu
izan diozu, joh Ama erruquitsua! escatu
izan dizun mesederic zure premian ar-
quitu izandu danean? Iñori ere ez eguiaz,
ez diguzu bada guri ere faltatuco. Bacar-
ric zugana ez datorrena izango da beti-
co galdua. Emenchen gatoz gu Señora,
humillaturic, eta lotsaturic zure mantu-
pera, atrebitzen ez gueralaco joaten gure
Aita Jaungoicoagana. ¿Cein joango da
Jaunagana, aimbeste bider ofenditua dau-
canarengana? Ea Maria: erruqui zaite zu
arren guzaz, ta lagun zaiguzu gure pre-
mia chit aundi onetan. Ez dituzu des-
preciatu bear gure biotzeco suspirioac, ta
gure beguietaco negar malcoac. Zue ba-
daquizu Señora, gue baño obeto, ez aita-
ric ta ez amariec ez duten seme alabac
cein estadu errucarrian arquitzen diran.
Gu ere Señora: ain errucarriac izango
guera eternidade guztian, pecatuarequin

VISITAC.

205

gure Aita Jaungoicoa galdu izan degula-
eo, zu bitarteko jartzen ez bacera. Baña
çnola zure biotz amorosoac sufritu deza-
que gu condenatuac, ta eternidade guz-
tian atormentatuac izatea? Eguin Señora,
guri toquia zure entraña amorosoetan.
Ala izan dedilla Amen Jesus.

OGUEITA AMAICA GARREN EGUNA.

VISITA SACRAMENTU SANTUARI.

Chit aundi izandu zan eguiaz Jesu-
Cristo gure Jaunac Samariaco emacume
pecatari árgal ari izan cion amorioa, itur-
ri baten aldamenean eserita egon izandu
zauean bere zai conseju onac emateco,
pecatuen damutasun eguiazcoa arroraci-
teco, Jaun beragana combertuzco. Ta
guero salvatzeco. Baña oraindik andiagoa
da aren Magestadeac guri erakusten digun
amorioa Sacramentu Santo onetan, bida
egunoró jachitzen zaigu Gertutic aldarerar;
eta aldarearen gñean dago gare zai-





206 OGUEITA AMAICA GARREN EGUNEKO

combidatzen gaituala, ta esaten digula: atozte nigana, allega zaitezte aldare one-tara, ta emen billatuco dezate zuen zoriontasun eguiazcoa, pecatuen barcacioa, animen garbitašuna, ta amorio iraeequia. Gure Jesus amorosoa ari da esaten orduta instante guztietaan Sacramento Santu artatic: ¡Oh Adanen Seme, ta alaba erucarriac! ¿Cergatic zabiltzate iguesi niggandic? ¿Cergatic etortzen etzerate maizago ni visitatzera? ¿Nere amorio zoragarriaren laztan gozoac artzera? ¿Cér beste arrazoi edo motivo gatic, uste dezute nagoala ain humillatua Sacramento onetan? Cérca atzeratzen, edo bildurtzen zaitutze? Ni ez nator orain mundua juzgatzen, baicican Sacramento onetan daucal nere anditasun ta gloria guztia gordeta zuei dizutedan amorio andiac obligatzen nabelaco, zuen artean ondasun eguiazcoa partitu nai ditudalaco, ta guero cedula eraman nai zaituztedelaco, zuec nai baldin badezute. ¡Oh, Sacramento Santu au visitatzera egunorò etortzen ceraten

VISITAC.

207

anima zorionekoae! Sinistu ezazate Jesu-Cristo gure Jauna Ceruan biciric, eta gloriaz beterie dagoan becela, alaſſen arquitzten dala aren Magestadea Sacramento onetan ere, gure bitarteko eguiñic, eta gabaz ta egunez escaintzen Aita Eternoari bere bicitza Jaungoicozcoa, ta zañetaco odol preciosa, calvarioco mendian eguinizan zuan becela, eta escatzen diozcala guretzaco favoreac, eta graciac ecin contala. Argatic esan oi zuan lenago guizon veneragarri batee ece, Sacramento onen aurrean gaudenean itz eguin bear guenduquela batere bildurric gabe, adisquide batec bere lagun maitearequin eguiten duan becela. Bada Jesus, izanic ain audiako zure ontasuna, aguertu bear dizquitugu gaur gure biotzac confianzaz beteric, eta esan, ¡Oh gure Jaun zoragarria! ¡Oh gure animen esposo maitea! ezagotzen ditugu ongi gure esquer ga-bequeriac. Zue amatzen gaituzu, eta gue etzaitugu amatzen: Zu ari cera beti guri ongi eguiten, eta gue despreciatzen zai-



208 OGUEITA AMAICA GARREN EGUNECO

tugu: Zuc esaten diguzu, aditu ditzagaula zure dei amorosoac gure animen oneraco diranac; eta gue ez ditugu aditzen; zuc azquenie apaindu nai dituzu gure animac zure graciaquin, eta gue ez ditugu nai zure gracieac. ¡Ah gure Jesus maitea! Biotzeco suspirioaquin, ta begnietako negar maleoquin aitortzen degu Jauna oraindaño ain ichutuac, eta ain esquer gaiztoocae izandu guerala zuretzaco. Baña orain Ceruen, ta lurraren aurrean itz ematen degu biotz biotzetic ondu nai degula; eta oraindañoco utseguinac, eta esquergabequeriac erremediatu nai ditzungula, emendic aurrera zure mandamendtuac gordetzen ditugula, ta zuri gusto ematera sayatzen guerala. Aditzera eman bada Jauna guri, cer eguitea nai dezun, eta bereala eguingo degu zure laguntzarequin. Gure Jaungoico maitea: gaur artzen degu gogo eguiazcoa zure vorondate santuari seguitzeco gauza ta guertaera guztietan, onetaraco utzi bear baditugu ere gure adisquideac, aideac, lagun mai-

VISITAC.

209

teac, gurasoac, ondasunac, osasuna, ta bicitzta bera ere. Bai Jauna, galdu dedilla guri gustatzen zaigun guztia, zure gustoa cumplitzeagatic. Galera zorionecoa eguiaz zure vorondatea eguiteagatic lagatzen dana. Gue amatzen zaitugu, edo beintzat amatu nai zaitugu, Ceruco Ainguerauc amatzen zaituzten biotz amorosoaquin, amatzeco guero aequin batean Erreinu artan eternidade guztian Amen Jesus.

Comunio espiritualia.

VISITA AMA SANTISIMARI.

Oh Maria, Doncella zoragarria, Jaungoicoaren Ama, ta pecatarien bitartecorie aundieta! aditu itzatzu gure oracioac, oraindañoco esquergabequeriai beguiratu gabe; eta artu gaitzatzu zure biotz amoroso orretan dauzcatzun devoto zorioneco oen artean. Garbitu joh Doncella chit ederra! gure biotzetaen pecatuac



210 OGUEITA AMAICA GARREN EGUNEKO

utzi dizquigun mancha ciquiñ guztiac: atera gure biotzetatic pecatuaren zañac, ebagui griña gaiztoac: desterratu hetico oitura ciquiñac: mortificatu gure sentiduaic: artu eraci zaiguzu edocein pecaturi gorroto chit andia, ta bildur santua. Despreciatu ditzagula biotzez beintzat munduac escaintzen dituan ondasun, ta atseguin engañagarriac; eta sartu dedilla gure biotzetan amorio garbia, naitasun eguiazcoa, ta iracequia Ceruco ondasunac gana. Jarri zaitet bitarteko gure partetic ¡Oh Virgiña María! eta suplicatu zure Semeari erruquitu dedilla guzaz orain eta beti, baña batez ere gure eriotzaco orduan, eta gure bicitza guztico contu estua artzera bere aurrera eramatene gaituanean; zu bitarteko cerala mereci dezagun orduan gure alde sentencia consolagarria, libraturic Infernuco tormentuetatic, izan gaitecen zurequin Ceruco Erreinuan. ¡Oh gure Ama ona! etzaite arren aserratu gure contra gure pecatu izugarriai beguiratu ta. Zue badaquizu Señora, cein-

VISITAC.

211


errucarriac gueran, ta cein griña gaiztoac arquitzen diran gure sentiduetan, pecatuau sortuac, eta pecatuarequin jayoac gueralaco. Amaric erruquitsuena ceran becela egun ezazu mesede Señora Erreguiña, guri beguiratzeaz gure peligroetan, batez ere gure etsayac gaiztaqueriren batera eraman nai gaituztelean. Onezaz gañera sortu dedilla gure biotzetan sede bicia, religio santuac erausten dizquignun misterio miragarriac sinistatzeco; confianza osoa zure Semearen ontasunean; amorio iracequia zure Semeita gure onguille maitegarriari; damutasun biotzeoa gure oraindañoco pecatuen gañean; eta nayago izatea milla aldiz ilteza ere berriz pecatu eguitea baño. Baita azquenic ¡oh Señora miragarria! beguirira gure religio santuari, gure gurasoai, aideai, adisquideai, lagun maiteai, onguilleai, gaizqui nai digutenai, gure oracio ta obra onetan parte izan bear dute-nai, eta cristau guztiai; guztioc mereci dezagun Ceruan zure mantu-pean goza-



112

VISITAREN ACABERA.

Izea Aitaren, Semearen ta Espiritu Santuaren Gloria Aingueruaquin ta Santuaquin batean eternidade guztian Amen Jesus.



CONFESATU ETA COMULGATU

BAÑO LENAGOCO ETA ONDORENGO
ORACIOAC.

Confesatu baño lenage.

O h nere Jaun eta Jaungoico erruquitasunean bazter gabea! Ona nere anima humillaturic, lotsaturic, eta nere pecatuen damutasunez beteric zure oñetan Jauna belaunico jarrita. Etorri naiz Jauna, nere pecatu guztiac ongui biotzetic gorrotatzen ditudala, eta nai gabez beteric ofenditu zaitudalaco zu izanic nere Jaungoico ain ona, eta ain maitegarria. ¡Ay, nere animaren Jaun eta jabe biotzecoa! ¡Gein



214

COMULGATU BAÑO LENAGOCO

gaizqui eranzun izan diet oraindaño zuc biraldu izan dizquidatzun graci ain estimagarriai! Zue esperatzen cenduan Jauna, eta arrazoi andiarequin, zure odol preciosoan ain ugari iñšuri izan cendualako, nere anima Infernuco etsayen atzparretatic, eta betico tormentuetatic libratzeagatik, zuc esperatzen, eta deseatzen cenduan nic zuri milla gracia ematea, eta gauza guztietañ zure vorondate santua eguiten dedala zu biotzetic amaztea, nere entrañañ urtutzeraño zu maite izatera sayatzea. Baña gñola servitu ta maite izan zaitut oraindaño? ¡Ah nere Aita biotzecoa! nere sentidu guztiaquin serbitu ta amatu bearrean, ofenditu zaitut berriz azotzeraño, gurutzean jositzen, ostiko-pean jartzeraño. Bai Jauna, ni izandu najiz zurelzacó ain esquer gaiztoea, eta argatic milla Infernu mereci izan ditudana. Orain bada Jesus, barcatu arren nere pecatuac; eta eman zadazu gracia mereci dedan penitencia eguiteco, nere esquergabequeri izugarri oetzaz da-

ORACIOAC.

215

mututa. Allegatu nai nuque Jauna confesorearen oñetara, zuc deseatzen dezun, eta neri conveni zatadan prestaera santuarequin: arguitu ezazu bada nere entendimentua oraindañoco nere gaitzaqueriac ezagutzeko; prestatu ezazu nere biotza ayen damutasun eguiazcoa artzeco, idiqui edo zabaldu ezazu nere aoa, ta muguitu nere mingaña bear dan arguitasunarequin confesatzeko; izan dezadan guztiengoa, ta zure gracia Amen Jesus.

CONFESATU TA ONDORENGO

ORACIOA.

O h Jesus! zure Ama, ta nere Erre-guiña Maria Santissimaren, eta Ceruco Santu ta Santa guztien merecimentuac hitarteko paratzen dizquitzudala, suplicatzen dizut humillaturic, arren ongui eguiña izan dedilla nere confesio au; eta zuc Jauna, zure ontasunarequin eraman ta



barcatu itzatzu confesio onetaco nere uts
eguite edo faltac, zure odol preciosoac
garbituric nere animan arquitzen diran
mancha cíquin guztiac, mereci dezadan
pecatu guztiен bareacioa, ta zure adisqui-
detasunean jartza, bicitza, ta iltza.

COMULGATU BAÑO LENAGOCO

ACTOAC.

I.

Fede biciaren gañean.

Ah nere Jesus, Salvadore chit mai-
tegarria! guri diguzun amorioaren aun-
ditasunac jcein gauza humillagarriac
eguitera beartu zaitu gurequin gueldi-
tzeagatik Sacramentu Santu adoragarri
orretan! Izanie Jaungoicoa, artu cinituan
gure argaltasunac guzon egun ta: argui-
turie Ceruan ta toqui guztieta, aguer-
tzen cera munduan aur eguiñic: izanie
erriatura guztiен Jauna ta Jabea, jartzen

tera guizonaren mendean: Aita Eternoa-
ren aldamenetic zatoz doncella baten en-
trañetara; Ceru altutic portale cíquin ba-
tera; gloriaz betetako tronutic gurutze izu-
garri batean bicia ematera; eta goiz one-
tan zatoz Sagrario orretatic nere biotza
visitatzera. Ona, nere anima, zure Jesus,
araco Calvarioco mendian gurutzean josি
ta ill zanean, izan cizun amorio ura bera-
requin maite zaituala, ona nun daucazun
Aldareco Sacramento Santu artan zai noiz
allegatuko ceran beragana, zure biotzean
bere sarrera eguiteco: mai sagradu arta-
tic icusten ditu zure pensamentuac, zure
deseoac, zure amorioa, eta eman nai dioz-
catzun ofrendac; eta arquitzen bacera on-
gui prestaturic, ongui apainduric virtu-
teaquin, zure biotzean billatuco ditu be-
re atseguintasunac. Ea bada nere anima:
prestatu zaite alic onguiena Comunio
Santuan Jesus maitearequin desposatze-
co: eta lembici esan zayozu fede biciare-
quin: Nere Esposo biotzecoa: gnic laster
artu bear zaitudala nere entrañetan? Ce-



ruan eta mundu guztian cabitzen ez dan Jaungoico ain aundia sartueo dala orain ni becelaco pecatari esquer gaiztoco batzen barrenean? ¡Oh Jaungoico miragarria, mundu guztiak adoratu bearrean, ain gaizqui ezagutua, eta aimbesteraño despreciatua! Nic beintzat Jauna sinisten, aitorzen, eta adoratzan zaitut nere Jaungoicotzat Sacramentu veneragarri oneitan; eta misterio adoragarri au confesatzea, ta defenditzeagatic vorondatez, eta pocic emango nuque nere zañetaco odola ta nere bicia. Badaquit Jauna, zuc etorri nai dezula nere biotzera, ni zure graciaz aberastutzera, eta nerequin bat eguitera. ¡Ah Jesus! ¡Cein confianza aundia daramat zure mai sagradura!

II.

Acto confianzazcoa.

Nere anima, poztu zaite biotzetic; orain artu bear dezun Jesus amorosoad

maite zaitu, ta egungo dizquitzu mesede aundiak. Eman zayozu bada ostatu ona zure biotzean; eta chit ongi pagatuco zaitu. Apaindu zaite humildadearequin, consideraturic zure ecer eza, ta Jaunaren anditasuna; damutasunarequin, acordaturic zure pecatuac; confianzarequin, beguiraturic Jaunaren ontasunari: amorioarequin, bada berac maite zaitu, ta amorioari amorioarequin eranzun bear zayo; eta bera serbitzeco deseoa iracequia-requin, bada ez dezu billatuco nagusi obeagoric; berac zorionecoa egungo zaitu. Bai bada Jesus: esperatzen det, nere biotzean sartzen ceranean, zuc deseatzten dituzun virtuteaquin cerorrec apainduco dezula nere anima, eta emango di-dzula gogo eguiazcoa, emendic aurrera zure vorondate santua eguiteco vici nai-zan arte guztian, guero zurequin izateco Ceruan Amen Jesus.



III.

Acto amoriozcoa.

Oh nere Jaun, eta Jaungoico aundi! nere naitasun guztia, nere biotz osoa ongi mereci dezuna, nere animaren espozo zoragarria! ¿Cér gueyago egun dezaquezu zuc Jauna, nere biotzaren jabe eguiteco? Jechi ciñan Cerutic lurrera, sufritu cinituan ecin conta ala trabajuzure bicitzan, eta azquenik aimbeste tormentu sufritu ta ondorean gurutze battean bicia emanarequin contentu ez iza-nic, guelditu nai izan cenduan Sacramen-tu Santu onetan nere biotzarequin zure biotza bat eguiteagatic. ¡Baña nora zatoz Jesus! nere biotzera? nere biotz ain esquer gaiztocora? Oraindao ofenditu bes-teric egun izan etzaituanaren biotzera? ¡Oh amorio muga gabea! amorio zoragarria! amorio Ceruco Aingueruac arritric dauzcatzuna! ¡Ceruan Aingueruac

adoratzen, alabatzen, ta amatzen duten Jaungoicoa datorrela orain nere biotzera? nere anima: ¿sinisten dezu? ¿Certan zaude bada? ¿Cér esaten diozu? ¡Oh nere Jaun eta Jaungoico maitegarria egiaz! ¡Oh ontasun ondo gabea, nere biotza ta nere naitasun guztiak ongui mereci dituzuna! Nic Jauna maite zaitut nere biotz guztitic: nic maite zaitut beste gauza guztiak baño gueyago: nic maite zaitut nere burua baño gueyago: eta zuri izan bear dizudan amorioaren aundiz nere zañetaco odola isurtzea, nere bicitza ematea, ¡cein zoriontasun zoragarria izango litzateque neretzaco! ¡Ay Jesus! nic al-banezaque, ¡Ay, nere escuetan balego criatura guztiak zu amatzen paratzea, ongui alde guztieta mereci dezun becela! ¡Nore izan aldezaquean Ceruco Aingueru Serasin baten biotz sutua, berotasun arequin su amatzeco! ¡Norc izan alditzaquean zure Ama, ta nere Erreguiña, Ma-ria Santisimaren entraña iracequiac, Señora onec dizun amorio zoragarrian par-



te izateco! Munduko ondasunac, munduko atseguiñac, munduko zoriontasunac atera zaitezte gaur nere biotzetic, sartu dedin nere barrenean Jesus Sacramentatu onen amorio beticoa. Zuc ¡Oh Maria! lagun zadazu arren biotz biotzetic amatzzen zu re Seme ta nere Jaungoico maitegarria Amen Jesus.

IV.

Acto humiltasunezeoa.

Oh nere anima! Jetzera zu orain Jesus-Cristoren gorputz sagradua, odol preciosa, ta anima Jaungoicozcoa Comunio Santuan artu bear dituzuna? ¡Baña nundic, noiz, ta nola mereci izan dezu zuc mesede ain zoragarri au? ¡Ay, nere Jesus! ¡Nor naiz ni Jauna, ta nor cera zu? Nic sinisten det Jauna, ta fede bici biciaquin, zu cerala Jaungoico eguiazkoaren Semea, virtute guztietan azquengabea,

Ceruco ta munduko criatura guztien Criadorea; eta beste milla Ceru ta mundu instante batean eguiteco escubidea daueazuna: ni berriz nor naizan, cein erru carria naizan zuc badaquizu, ta nie baño obeto. ¡Nola bada zuc ¡Oh garbitasun guztiaren iturri ondo gabea! etorri nai dezu orain nere biotz ain ciquin ta nazcagarri onetara? ¡Oraindano aimbeste pecatue, eta ain izugarriac menderaturie iduqui izan duten biotz esquer gaiztoco onetara? ¡Ah Jauna! consideraturie zure aunditasun paregabea, ta nere argaltasun negargarria, emenche nator lotsaturie, eta nere burua lurreraño humillaturie zure mai sagradu onetara. Nere pecatuen consideracio samiñac, ta zure aunditasunaren bildur santuac esaten didate Jauna, ¿nola allegatu alcindezque mai onetara? baña allegatzen ezbanaiz zugana, ¿norgana joan alnitezque nere gaitzen, nere premien erremedioaren billa? Eta ¿cér izango da orduan nizaz? Ez Jauna: ez naiz apartatuco zugandic; baicican



224 COMULGATU BAÑO LENAGOCO

nai det gueyago ta gueyago zugana alde-
ratzea. Banator bada Jauna humillaturic,
eta lotsaturic bai nere esquergabequeriai
beguiratu ta, baña damuturic, eta con-
fianzaz beteric, zure amorioari beguirau-
tu ta zu Comunio Santuan artzera, ta nere
biotzaren jabe eguitera Amen Jesus.

V.

Acto damutasunecoa.

Oh Jesus, nere animaren Jauna ta ja-
bea! ¡Cein naigabetua arquitzen da nere
biotza oraindaño maitatu etzitudalaco,
zuc mereci dezun becela; eta amatu bear-
rean ofenditu izan zitudalaco, sentimen-
tuz beteric iduqui izan zitudalaco, ne-
re griña gaitoien gusto debecatuac go-
zatzea ta nere sentiduai emateagatic! ¡Oh
Jauna! cembañ penatzen naiz aimbeste
demboran zure asarrean ta gorrotoan egon
bearra! ¡Ay! partituko balitz, erdiratuko
balitz sentimentuaren aundiz nere biotza!

ORACIOAC.

225

Gorrotatzen ditut beste gañeraco gaitz,
enfermedade, ta desgracia guztiak baño
gueyago nere pecatuac. Esperatzen det
barcatuac izango dirala; baña barcatu ez
baldin badizquidazu, arren Jesus egun
zadazu mesede barcatzeaz mai sagradu
orretará allegatu baño lenago. Damutzen
zait Jauna zure ontasuna ofenditura, ez
Cerua galdu, ta Infernua mereci izan de-
dalaco, baicican zu nere Aita maitegarria
sentimentuz bete izan zitudalaco. Gar-
bitu, zuritu, ta sendatu ezazu Jauna nere
anima gaišsoa zure odol preciosorequin
Comunio Santuan nere biotzera eterri
baño lenago, billatu dezazun zure gus-
toco ostattua Amen Jesus.

VI.

Acto Deseozcoa.

Ona nere anima: ona allegaturic
ordu zorioneo ura, Jesus zure biotz er-



226

COMULGATU BAÑO LENAGOCO

rucarrian sartuco zatzuna. Ona emen nun datorquizun Aingueruen Erreguea, zure Erredemptorea ta Jaungoicoa, zure sentiduen jabe eguitera. Prestatnrie bada amorio iracequiarequin, eta zabal zabal jarriric biotza esan zayozu: atoz nere Jesus maitea: atoz nere anima visitatzena, bada nago zu artzeco deseoz beteric. Baña zu etorri baño lenago jarri nai nuque Jauna zure escuetan naizan guztia. Ematen dizut nere biotza, ta onequin nere gauza guziac. Estimatu ezazu ofrenda au, ta artu ezazu zuretzat. Atoz lasterca nere Jauna gueyago luzatu gabe: atoz nere onguille maitea, nere bicitza, nere amorioa, nere gloria, ta nere gauza guziac. Nic Jesus, artu nai zaitut anima santuen prestaerarequin; Maria Santisima zure Amac, comulgatzen zanean, izaten zuan amorio iracequiarequin. Nere Ama Santisima, Erreguiña prestua: banator zure Semearen mai sagradu onetara; eman zadazu zure Semeagoiz onetan, beste dembora batean Simeon

ORACIOAC.

227

Profeta Santuari Templo Santuan eman izan cinion becela. Nic Señora, zure escuetatic artu nai det: esan zayozen zure servitzaria, zure devociocoa naizala, eta orduan izango du neretzaco biotz erruquitsuagoa. Atoz bada Jesus Sacramentatua nere biotzena zure Ama Maria Santissimaren escuetatic Amen Jesus.

COMULGATU ONDORENGO

ORACIOAC.

I.

Acto Fedecoa.

Badaquizu nere anima, nor artu dezun orain comunioan, eta nor daucazun zure biotzean? ¡Ay, zure zorioneaco! Geruac Erreinu artaco Aingueru guziaquin, eta mundu au, emengo criatura guziaquin egun izan cituan, eta mantentzen dituan Jaungoico aundi ura daucazu zure entrañetan. Munduko Erregue baten vi-



sita izaten bada ain estimagarria, considera ezazu cembał estimatu bear dezun Ceruetaco Erreinu guztien Erreguearen visita au. Zuc bai nere anima, esan bear dezu orain, ¡Noiz Jauna, mereci izan det nic visita zoragarria au? ¡Oh ontasun azquen gabea! ¡Oh erruquitasun ondoric ez duana! ¡Oh amorio biotzie gelatuenac eta gogorrenac ere berotu, bigundu, urtu, ta deseguin bear dituzuna! ¡Ceruan Aingueruac adoratzen duten Jaungoico ura bera arquitzen dala orain nere barrenean, eta nerequin bat eguinta! Nere anima: ¡Zure entrañetan daucazun Jesus biotzeoari cer esaten diozu? Ez diozu eracutsi bear, cembał estimatzten dezun bere visita? Bai bada Jesus: ematen dizquitzut milloica graciac, neri didazun amorioaren aundiz nere biotzean zure atseguiñac billatu dituzulaco; baña nic baño obeto emango dizquitzute nere barrenean zu adoratzen dauden Aingueruac. Ea bada nere anima: bat eguin zaite zurequin dauczatzun Aingueruaquin, eta adoratu

ezazu zure biotzean daucazun Jesus zure Jauna, consideraturic Ceruac gloriaz, eta mundua aunditasunez betetzen dituan Jaungoico ura bera dala: bota itzatzu burutic beste gauza guziac; piztu ezazu berriz fedea; contu eguin ezazu Ceruco palacioan, eta cerutarren artean arquitzen cerala, egiaz zauden becela; eta arrituric esan zayozu zure barrenean daucazun Jesus Sacramentatuari.

II.

Acto Humiltasunezcoa.

Nere Jesus biotzecoa: ¿nora etorri cera, ta orain nún arquitzen cera? Nere biotz barrenean? nere animarequin bat eguinta? ¡Cer da Jauna nere biotza ez bada griña gaiztoz, ta naitasun bide baguecoz betetako bici lecu ciquin bat? Eta alaquitoi nazcagarrira elorri cera? Nor naiz ni Jauna, zue visitatzeko? ¡Ah Jesus! Ezdaquit esango ez ote dizudan San Pedro-



becela, alde egun ezazu Jauna nigandie, izan naicelaco zuretzat ain esquer gaiztooa, eta mesede zoragarrizco onen toquian castigu macurrac mereci izan ditudana. Ezdaquit esango ez ote dizudan, zoaz Jauna, araco anima garbi zure amorio santuan aimbesteraño iracequi ta dauden aen gana. Baña jcer diot nere Jesus biotzeco? ¿Certan guelditzen naiz zuc alde egun ezquero? ¿Nora joan nindeque zuc desamparatu ezquero, ez bada betico galdua izatera? Ez nazazula bada arren desamparatu nere oraindañoco esquergabequeriai beguiratuta. Badaquit Jauna, ezagutzen, eta aitortzen det nere barrena samintasunez beteric, choro galdu bat eguiñic bicitu naizala oraindaño munduko criaturac ichututa, emengo atseguiun engañaigarrien billa, eta argatia zure aserreac, gorrotoac, eta castiguac bear izan ntituala, eta ez zu nere biotzera etortzea: baña orain itz ematen dizut Ceruen aurrean etzaitudala gueyago ofendituco; nayago det orain beintzat Jauna, bertan

ill ta guelditza, zuri alaco naigaberic ematea baño. Nere gogo guztia da emendic aurrera zure adisquidetasunean bicitza, ta zure biotzarequin bat eguinta illtza. Eguin dezadala Jauna beti, ta gauza guztieta zure vorondate santua bici naizan arte guztian, guero zurequin iza-teco Ceruco Erreinuan, Virgiña Maria Jaungoicoaren Ama, Ceruco Aingueruac, eta anima Santac, Jesus biotz garbiaquin, ta amorio iracequiarequin servitzen dezu-tenac, anima zorionecoac, lagun zadarazute arren nic amatu dezadan zuec becela nere biotzean daucadan Esposo maitegarri au, mesede ain zoragarrizcoac eguitera etorri zatadan onguille maite au.

III.

Nola graciæ eman bear zaizean.

Nere Jesus biotzeco: jcertara etorri cera orain nere entrañetara? nere anima eiquiña garbitzera? Ilagatua sendatzera?



ichutua argitzera? epela, ta otza berotzea? eta Ceruco graciaquin, zure doayaquin apaintzera? ¡Ah! nolaco ongi etorriac mereci dituzu! Ematen dizquitutzada milla, ta milloia gracia ez bacarric mingañarequin, ta bai batez ere biotza-requin. ¿Noiz pensatu ere bear nuannic Jauna, Ceruro Erreguea, ta ondasonguztien jabeac etorri naico zuala nere eche ain errucarrira? Nere sentidu guztiae mingañac, eta biotzac balira, zure ontasun miragarria ta virtute bazter gabeac cantatzen, alabatzen, ta amatzen aritzeco oraindanie asita eternidade guztian! Baña ezagutzen det Jauna, cein argala, cein ecer eza naizan, zuri mereci dituzun graciac, eta alabanzac emateco. Tobias Patriarea Santu arrec ez bacequian nola graciac eman San Rafael Aingueruari, argandic artu izan cituan munduko mesedeac gatic, Escritura Sagraduac esaten digun becela; ¿Nola nic eman alditzaket ez Aingueruari, baicican zuri, Aingueruguztien Erregueari, eta ez munduko on-

dasunac gatic baicican orain eguin didazun mesede secula pareric izango ez duana gatic? Jauna: ¿Nere barrenean zaudela, Ceruan zauden becela gloriaz beteric, eta nere anima dala orain zure bici-lecua? ¡Ah Jesus! urtuco bañira orain, deseguingo balira nere entrañaç, eta sentidu guztiac zuri graciac ematen! Artu itzatzu beintzat Jauna, zure servicio santuan nere anima, nere biotza, ta nere sentiduac; au da, zu servitzeko dauzcadan deseoa. Nere Ama Maria Santissima; nere Aingueru guardacoa; Nere devocioco Santu maiteac; Jesus Sacramentatu onen amorio iracequian urtutzen zaudeten anima zorionecoac: atozte icustera nun arquitzen dan orain zuen Esposo biotzecoa, neri nolaco mesedeac eguitera etorri dan; eta arrituric eman graciac nere partez; badañic ez dezaquet eguin beste gauzaric baicican Jaun onen oñetan belaunico jar-tzea, nere burua lurreraño humillatzea, ta lotsaturic berari beguira egotea, pozaren andiz cer pasatzen zatadan ezdaquidala.



IV.

Eguin bear zayon escaintza edo
ofrecimientuaren gañcan.

Ah Jesus! alaco gogoarequin eterri
ceran ezqueroz nere biotz errucarri po-
brea vicitatzen; eta mesede, zoragarri
onen alderaco neri cerbait escatzen; nic
ematen dizut Jauna nere biotz au voron-
date guztiarequin, jaquiñic zuc au ſſe ba-
carric escatzen didazula, eta onequin con-
tentu cerala. *Fili prebe mihi cor tuum:*
nere seme biotzecoa: nere alaba maitea:
eman zadazu zure biotza: au ſſe bacarric
da escatzen dizudana, egun dizquitzu-
dan mesedeen alderaco. Bada Jesus, jno-
la izan diteque nic ucatzea zuri alde guz-
tietatic beguiratuta, ongi zurea dezun
nere biotz au? zu guztia egun cera ne-
rea; jeta ni ez naizala izango zurea? Bai
Jauna bai: nere sentidu guztiac, eta ne-
re vorondate osoa paratzen ditut orain zu-
re mendean: zu servitzeco bacarric izan

ditecela. Nere beguiac: ez dezazutela icusi
Jesus amoroso onen ofensaco ganzaric, eta
bai berari guztatzen zayona: nere be-
larriac: zaudete zabalik bacarrican ongui-
lle maite onen alabanzac aditzeko: nere
mingaña: canta itzatzu beñere aspertu ga-
be zure biotzean daucazunaren virtute zo-
ragarriac: nere escuac, eta beste sentiduac:
sayatu zaitezte betico instante guztieta
obra onac eguitera, eta Jaun onen gustoa
cumplitzeria: nere entendimentua: icasi
ezazu nola egungo dezun beti berac nai
duana: eta nere vorondatea: bat izan di-
tecela emendic aurrera zure deseoa, eta
Jesus amoroso onenac. Ona zure escuetan
Jauna, nere gorputza, ta nere anima.
Estimatutu ezazu gaur pecatari guztiak ar-
tean esquer gaitzocoenac eguiten edo es-
caintzen dizun sacrificio au. Eman zadazu
gogo eguiazcoa, ta indarra emendic aur-
rera zuc nai dezuna pensatzeko, deseatzeko,
ta eguiteko. Oh su Jaungoicozcoa!
piztu zaite arren nere entrañetan, eta er-
re, quiscaldu, ta auts biurtu itzazu zure



begui arguaquin nere barrenean icusten dituzun ciquinqueriac. Nai det gaardanie osoró zurea izatea, gordetzen ditudala ez bacarric zure mandamentu santuac, eta nere obligacioac; baita ere zure consejuac, zure deseooac, zure gustoac. ¡Oh Virgiña Maria! zure escu bedeincatuaquin artu ta eraman ezazu nere biotza zure Semearen aurrera, ta suplicatu arren artu dezala beretzaco; orduan emango dit gracia beti bera servitzeco, ta amatzeco emen ta Ceruan Aingueruen ta Santuen compañian Amen Jesus.

V.

**Eguin bear zaizean escaquizun
edo supliquen gañean.**

Nere anima, ¡badaquiza orain biozean daucazun Jesus certara etorri zatzun? zu visitatzera, eta gañera zuc bear dituzun, ta escatzen diozatzun mesedeac eguitera; eman zayozu bada zure biozean amoriozco ostatu ona, eta escatu confian-

zarequin bear dituzun graciac. Eguiten zayon servicioa chit ongi pagatzen daqui: ostalari prestua da. Escuac dauzca Ceruco ondasunez beteric, vorondatea berriz danca chit etziña, au da gogo aundicoa mesedeac eguiteco, graciac partitzeco. Bere Aita Eternoagandic dauzca escubide guztiac nai duan guzia eguiteco, bere burua aimbat maite dualaco. Oec onela izanican, ¡Oh egun zorioneoa zuretzat, nere anima! ¡Arquitzen cera orain pecatuac ciquinduric, llagaturic, argalduric, eta griña gaiztoac menderaturie? Ona bada secula izango dezun eraric onena garbitzeco, edertzeo, sendatzeco, indartzeo, eta etsayac venztutzeo bear dituzun armaquin eguiteco. Jesus bera esaten ari zatzu zure barrendic: nere adisquide maitea: esca zadazu confianzarequin nai ta bear dezuna, eta nic emango dizut: ni etorri naiz zure biotzera zuri dizudan amorioaren aundiz, argatic naucazu beguirea cer bear dezun, ta escatzen didazun, berealaske servitzeco, gogo aundia-



requin escatzen didazuna emateco. ¡Ay bada nere Jesus gozotasunez betea! Zuc nai dezun ezquiero alaco graciae neri, pecatari errucarri oni eguitea; ez natorqui zu Jauna, mundocon ondasunac, honrac, alabanzac, empleoac, ta atseguintasunac escatzeria; baicican orain escatzen dizudana da nere animaren garbitasuna, zure gracia, zure amorio zoragarria, nere pecatuen' damuñasuna, eta zu ezagutzeco arguitasuna, bici naizan arte ordu ta instante guztietan su servitzeco laguntasuna. Ezagutzen, ta aitortzen det Jauna cein argala naizan, nere biotza cein aldacorra dan, argatic zure escuetan zure contura paratzten det nere vorondatea. Graci oec escatzen dizquitutz Jauna, zure merecimientu azquengabeac, eta zure Ama Santissimarenac bitarteko paratzten dizquituzdala, ta zure Aita Eternoari diozun amorioagatic Amen.

(Emen escatu dezaque bacoitzac bear duan gracia hai beretzaco, bai pecatrientzaco, ta bai purgatorio-ko aimentzaco.)



ACTO FEDECOA ESPERANZACOA

ETA CARIDADECOA.

I.

Acto Fedecoa.

Nic sinisten det Aita Jaungoicoagan; sinisten det seme Jaungoicoagan; sinisten det Espiritu Santu Jaungoicoagan; dirala iru persona diferenteac, eta Jaungoico eguiazco bat. Sinisten det Trinidadeco bigarren persona egui zala guizon Maria Santissimaren entraña garbietan Espiritu Santu Jaunaren obraz, ta virtutez, eta bere Ama Santissima guelditu zala doncella garbia Semea egui baño lenago, eguite orduan ta egui ezquiero. Sinisten det Jaungoicoaren Seme guizon egui zanac



sufritu cituala Pasio Santuan tormenturie izugarrienac, eta eriotzaric cruelena gu pecatariac salvatzeagatic: jechi zala infernura, ta irugarren egunean piztu zala illen artetic; igo zala Cerura, ta an da goala jarriric Aita eternoaren alde es cuitic; andie etorrico dala juicioco egunean illac eta biciac juzgatzen, eta onai emango diztela betico gloria, gorde cituz telaco bere mandamentu santuac, ta gaiztoai betico infernua gorde etzituztelaco. Sinisten det Aldareco Sacramentu Santuan dagoala Jesu-Cristo gure Jauna, gorputz ta anima bere Jaungoicotasanarequin Ceruan dagoan becela biciric, ta gloriaz betteric. Sinisten det batayo Santuco, ta Confesioco Sacramentu Santuetan barca tzen zaizquigula gure pecatu guztiac, eta jartzen guerala Cerurako bidean. Azque nic sinisten det gure Eliz Ama Santac sinisten dituan, eta eracusten dizquigun gañeraco articulo guztiac; eta siniste onetan nai det bici ta ill Amen Jesus.

II.

Acto esperanzacoa.

Nic esperatzen det nere Jaungoicoagan barcatueo dizquidala nere pecatu guztiac Jesu-Cristo gure Jaunaren merecimientu azquen gabeac, Maria Santisimarenac, eta Ceruko Santu guztienc bitarteo ditudals; eta emango dirala gracia berriz pecaturic ez eguiteco; esperatzen det Jaunaren laguntzarequin bicingo nai zala bere gracian eriotzaco ordura arte rano; eta guero joango naizala Cerura nere partetican sayatzen naizala pecaturic ez eguitera, eta obra onac eguiten ditudala, bici naizan arte guztian Amen Jesus.

III.

Acto caridadecoa.

Nic amatzen det nere Jaungoicoa biotz guztilic, eta beste gauza guztiac baño gueyago bera dalaco ain maitegarria; eta



nai nuque amatu Ceruan Aingueruac eta Santuac amatzen duten becela; nai nuque amatu Maria Santisimac amatzen duan becela; eta albalitz nai nuque amatu Jaungoicoa bera amatzen dan becela: eta oraindaño amatu bearrean ofenditu izan dedalaco, damu det nere biotz guztitie, ez bacarric pecatuarequin Cerua galdu, ta Infernua mereci izan dedalaco, baicican batez ere ofenditu izan dedalaco, bera izanic aiñ ona, nere Aita, nere onguille ain maitegarria: baita ere amatzen det nere lagun progimoa nere burua becela, gure Jaunac ala nai dualaco, eta ala aguintzen didalaco. Jauna: urrical zaite nizaz orain, eta batez ere eriotzaco orduan; eta eraman nazazu beti Ceruco bide zucenetic, izan nadin Erreinu orretan Amen Jesus.



MEZATACO MISTERIOEN DOTRIÑA.

Sacerdotea prestatu, ta Ornamentuac jazteco Sacristian sartzeac esan nai du, nola Jesu-Cristo Ama Virgiñaren sabel garbian sartu zan, eta gure araguizco soñecoa janci zuan, eta bere Sacrificioa Ai-ta Eternoari ofrecitzeo prestatu zan.

Amitoa: da estalqui zuri bat, buruñ bera Sacerdoteac artzen duana; eta esan nai du, nola Juduac Jesu-Cristori burla eguiteco ta masallecoac emateco arpeguia estali cioten.

Albac: nola Cristo zuriz janciric Herodesec burlaz Pilatosi biraldu eion.

Cinguloac: nola socaquin gugatic lotu zuten.

Manipulo: esquer besocoac: nola azotatzeko escuac lotu ciozcaten. Esquerrean ori artzen da, Jesusen biotzeco amorioa,



gúgatic azoteac artzean, ta gue zor diogun amorio andia eracusteco.

Estola: lepotic gurutzaturic artzen du eta esan nai du, nola Jesus irugarren aldian Gurutzea artzeco soca gogor andiaquin lepotic lotu zuten.

Casulla: gucien gañean artzen danac, nola burla eguiteco granazco soñecoa janci cioten; edo Gurutzean jositzeko nola tunica joscera baguea quendu cioten, janci edo *Ornamentuac* oyec dira.

Mezae iru parte ditu: *Ofrendaraño* bat: *Paternoster* edo *comuniora* bestea: eta *azquencraño* bestea. Bata da sacrificioraco prestatzea: bestea ofrecio, consagratu, eta comulgatzea.

Irugarrena da Jaunari graciae ematea.

Ondo pensaturic cer aditzera ematen duen misterio oyec, esango dezu:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren icenean Amen Jesus.



MEZA AURRECO ORACIOA.

Trinidade guciz Santa; Aita, ta Se-meia, ta Espiritu Santua; Jaungoico bat bacarra, eta iru Persona cerana. Adoratzten zaitut humiltasun eta errespeto guciarequin. Escaintzen dizut enzutera noan Meza au, lenengo lecuan: Zuri gauza gucien asiera eta itur-buruari becela, honraric aundieta emateco. Bigarrenean: eguin dizquidatzun ontarte eta mesede gucien esquer, zure diñacoac emateco. Irugarrenean: Nere eta lagun urco gucien pecatuen barcacioa iristeko. Laugarrenean: Purgatorioco animen alde. Azque-nean esqueintzen dizut Jesus maitearen ofrenda au, eman deguidazun Ceruero bidean bear eta on izango dedan gucia, batez ere pecatutic alde eguiteco eta bicitzta onean irauteco doaya. Amen Jesus.



**Mezaren astera ta pecatuac
aitortzea.**

*Consideratu nola Jesu-Cristoc gure
pecatuac bere gaiñ artu, ta
orien zorra pagatu zuan.*

ORACIOA.

J auna: entzulera noan Meza au esqueintzen dizut egun dizquidatzun mesede gucien esquerrac emateco; nere ta beste gucien pecatuen barcacioa iristeco; eta indazu Ceruco bidean bear eta on izango dedan gracia; batez ere pecatutic alde eguiteco eta bicitza onean irauteco doaya. Ala izan dedilla.



Introitoan.

*Consideratu nola legue zarreco
Santuac Jesu-Cristo guizon
eguitea deseatzen zuen.*

ORACIOA.

Nere Jesus maitea: nere anima zure amorio santuan iracequi ezazu, nere pecatuac ezagutu ta oriequin zufenditutaco damutasun eguiatzoa nere bici gucian iduqui dezadan. Ala izan dedilla.



Kyrie eleison.

Consideratu nola Irutasun edo Trinidade chit Santuari misericordia escatzen zayon.

ORACIOA.

Jauna: erruqui zaitez nizaz. Jauna:
erruqui zaitez nizaz. Jauna: erruqui
aitez nizaz. Jesu-Cristo: erruqui zai-
ez nizaz. Jesu-Cristo: erruqui zaitez
izaz. Jesu-Cristo: erruqui zaitez ni-
az. Jauna: erruqui zaitez nizaz. Jau-
a: erruqui zaitez nizaz. Jauna: erru-
ui zaitez nizaz.




Gloria in excelsis Deo.

*Consideratu nola Aingueruac
Jesusen jayotzan cantatu
zuen.*

ORACIOA.

Aingueruac alaba dezatela, Jauna,
zure ontasuna zu jayo ciñanean becela.
Orain gure animetan zure graciaz jayo
nai dezu, alabatzen, bedeincatzen,
adoratzen eta glorificatzen zaitugu.

Zure gloria andiagatic graciak ema-
ten dizquitzugu. Gure culpen barca-
cioa escatzen dizugu. Misericordia Jau-
na. Amen.



Dominus vobiscum, ta oracione.

Consideratu nola Jesu-Cristo guizoznai ezagutzen eman ci-tzayen, eta iru Erregueac adoratu zuten.

ORACIOA.

Jauna: Sacerdoteac Santuen bitartez escatzen dizuna, nic ere escatzen dizut. Arren Jauna, arren eta nere erregueac entzun itzatzu. Iguzu emen lurrean zure gracia, eta Ceruan betico gloria, Jesu-Cristo gure Jaunaren merecimenduac-gatic. Ala izan dedilla.



Epistolan.

Consideratu nola Apostoluac penitencia predicatu zuen.

ORACIOA.

Gure Jesus maisu bacarraren aurrean guciae issill bitez. Atoz, Jauna, ta itz eguidazu: Indazu nere animazure Profeta Santuen celo eta amorioazure promesac edo aguinduac cumplitzeko. Ala izan dedilla.



Evangelioan.

*Consideratu nola Jesu-Cristoc
munduan predicatu zuan
Doctrina.*

ORACIOA.

Lurreco bide triste onetan nabillen artean, Jauna, gauza bi chit bear ditut: Argquia eta janaria. Ez arren orie niri ucatu. Zure Evangelico Doctrina nere pausoen argui izan bedi; eta Zure Gorputz Divinoa nere animaren janaria emendic ceruraño falta zadan bidean erori ez nadin. Amen.



Credoan.

*Consideratu nola Evangelioac
ecarri digun Legue Santua,
ta aitorzen du aoac bio-
tzac sinisten duana.*

ORACIOA.

*Esazu Credoa; baña devocio gu-
ciaz, Apostoluac eman ciguten Ceruco
Doctrina becela. Guero esazu: Jauna-
zuc Eliza Ama Santari eracutsi diozca-
tzun sedeco egua guziac sinisten di-
tut. Indazu gracia nere bicitzaco obra
guciak fede bici batequin eguiteco;
guero orien sarian zurequin bici nadin
Ceruan. Amen.*



Ofertorioan.

*Consideratu Jesu-Cristoren Doc-
triñac eman digula Fedea, eta
au aitortzeco laguntasuna.*

ORACIOA.

Jaun Soberanoa: Zure Semearen Sacrificio au Sacerdotearequin batean ofrendatzen dizut zure gloriaric andineraco: Neri eta mundu guztiari zuc eguindako mesedeen graciak emateko: Nere eta mundu guciaren pecatuen satisfactoraco: Neretzat eta nere obligacioco gucientzat bear ditudan laguntza ta gracia guciak zugandic iristeko. Zure Seme gure Jaunagatic. Amen.



Prefacio eta Santuscan.

Consideratu nola Jesu-Cristo astoaren gañean Jerusalenen sartuzanean, Juduac cantatzen cioten: Santua, Santua, etc.

ORACIOA.

Jauna, alabatzen zaitut Ceruco Aingeru guciaquin. Gugana etorri nai dezu. Emən nai dizquitzut bada biotzetic ongi etorri ta bedeincacio guztiac. Santua, Santua, Santua, ta gloriaz beeta zaude guretzat. Jauna, zurea da gloria. Ala izan dedilla.



Canon ta mementoan.

*Consideratu Jesu-Cristoren Pasio
santuaren asiera.*

- ORACIOA.

Zure Seme Jesu-Cristo-gatic esca-
tzen dizut, Jauna, Eliza Santua-gatic,
Aita Santu, gure Obispo, Erregue ta
beste fiel guiac-gatic; Nere guraso,
senide aide eta adisquide N. onelaco-
gatic, onguille ta gaizquelle eta peca-
tari guiac-gatic, zure graciara biur-
turic, zu amatzen gucioc beti bici
gaitecen.



Consagracioan.

Consideratu Pazcoazco arçumearen figura, ta besté figura edo irudi gucien bucaera.

ORACIONA.

Nere Jesus amoriotsua: azqueneko asarian zure Apostoluai eman ciñen zure gorputza ta zure odola. Zure ontasun ta misericordia andiagatic erre-gutzen dizut Sacramentu onetan participante egun nazazula; eta orrela bici-izan zaiteala nigan, ta ni zugan zu beti alabatzen. Ala izan dedilla.



Ostia alchatzean.

Consideratu nola Jesu-Cristo gurutzean alchatu zuen.

ORACIOA.

Adoratzen zaitut, Jesus, nere Jaungoicotzat, ta Ostia Santu orretan adoratzen det zure Gorputz Sagradua, gurutzeko aldarean mundu gucia erredimitzeko ofrecitu zana. Sinisten det zu or zaudela.



Caliza alchatzean.

*Consideratu nola Jesu-Cristoc be-
re zaurietatic Odol preciosoa
issuri zuan.*

ORACIOA.

Adoratzen det, Jauna, zure Odol preciosoa, gure amorez Gurutzean issuria; gure animac garbitzecò zuc emana: Odol precioso orretan esperatzen det nere culpen barcacioa izango dedala. Amen.



Caliza alchatu endorean.

Consideratu oraindic Jesu-Cristo-ren pasioa ta bere eriotza.

ORACIOA.

Zuc nai dezun becela, Jauna, Sacerdotearequin sacrificio au esqueintzen dizut zure Semearen Pasio ta eriotza. Erresurreccio eta Ascencio gloriosaren erreverencion. Ostia garbia, Ostia Santua, Ostia manchagabea, Jauna, ez beguira guri, ezbada zure Seme maite oni; zure bendicioez onequin bat egun gaitean. Amen.



Ostia calizarequin alchatzean.

*Consideratu nola José ta Nicodemus
musec Jesusen gorputza gurutzetic erachi zuen.*

ORACIOA.

Nere Jesus ona: zuc nere pecatuen zorra pagatzeagatic gurutze batean bieitza eman cenduan: indazu, bada, niri ere nere culpac eguiazco penitenciarequin deseguiteco gracia; orientzat ill eta zurequin Ceruan bici nadin. Amen.



Pater nosterrean.

Consideratu Jesu-Cristoc guru-tzean esan cituan zazpi itzac.

ORACIOA.

Esazu Aita gurea, onen zazpi esacriac soseguz pensatuz. Egun oroco Oguia escatzean aditzen da, gure obligacioac ezagutzeko arguia; Sacramentuen laguntzac, animac estadu graciazcoan irauteco, ta gorputzarentzat alimentua. Amen.



Pater nosterra esan ondorean.

*Consideratu nola Jesu-Cristo
Limbora jechi ta an ceuden
animac atera cituan.*

ORACIOA.

Oh nere Jesus maitea! Zure anima
Jaungoicotazunarequin unituric jechi
zan Limbora, justuen animac pena
artatic atera ta gloriaz betetzera: in-
dazu neri ere gracia, nere anima pe-
catuen mendetic atera ta infernuco
penetatic libratzeco lembait len, San-
tu guciaquin Ceruan alabatu zaitzadan.
Amen.



Ostia partitzean.

Consideratu nola Emausco discipuloac Jesu-Cristo ezagutu zuen ogua partitu cienean.

ORACIOA.

Nere Jesus animen guidaria: zure discipulo ta icasleac becela eraman uazazu bide zucenetic: nere biotza ta nere entendimentua bete ta iracequi tzatzu zure arguiz: emen zure voronatea eguiñaz, Ceruco gloria irichi ezadan. Ala izan dedilla,



Pax Domine.

*Consideratu nola Jesu Cristo bere
Discipuloai aguertu eitzayen,
ta paquea eman cien.*

ORACIOA.

*O h Jesus gloriaz betea! Zure pizte
edo resurreccio gloriosoarequin idiqui
cenduan betico bicitzaraco atea, eta
ori aditzeria eman ciñen zure Aposto-
loai esanaz: Paquea izan dedilla zue-
quin. Erregutzen dizut, Jauna, eman
deguiozula nere animari pecatutic gra-
ciara piztu, ta gueyago zu ez ofen-
ditzeco bear duan laguntza. Amen.*



Agnus Dei.

*Consideralu nola Jesu-Cristoc bere
Discipuloai pecatuac barca-
tzeo escu bidea eman cien.*

ORACIOA.

Jaungoicoaren bildots garbia: mun-
duco pecatuac quentzen dituzun Jesus
ona, misericordia guzaz.

Jaungoicoaren bildots garbia: mun-
duco pecatuac quentzen dituzun Jesus
ona, misericordia guzaz.

Jaungoicoaren bildots garbia: mun-
duco pecatuac quentzen dituzun Jesus
ona, zure paquea iguzu. Amen.



Comunican.

*Consideratu nola Jesu-Cristoc berre discipulo aquin jan zuan
Cerura igo baño lenago.*

ORACIOA.

Zu cera, Jauna, gure pauea.
Apostoluai eman ciñen becela, Eliza
Santuari eta guri iguzu: gure gaitz ta
peligro gucietatic libra gaitzatzu. Zure
vorondatea beti eguiteco, ta zugandic
iñoi zere ez apartatzeko gracia iguzu.

Jauna, nic mereci ez det zu nere
echean edo animan sartzea, baña itz
bat esazu, eta nere anima salvatuco da.

Iru bider au esaten da.



Comunio ondorean.

Consideratu nola Jesu-Cristo berre virtutez Cerura igo zan.

ORACIOA.

Jauna: baldin zu beragan artzen zaituana, zuc zure seme edo alaba eguiteraño jasotzen badezu, arren nerri ere favore au eguidazu. Nere naturaleza onec gaitzeraco dauzcan griña macurrac atzera itzatzu. Zure graciaz confesioco Sacramentuan berriro janci nazazu, Comunio espiritualetan beti fede bici ta amorio iracequi batequin recibitu zaitzadan. Amen.



Bendicioan.

*Consideratu nola Jesu-Cristoc
aguindu zuan becela, Espi-
ritu Santua biraldu zuan.*

ORACIOA.

Nere Jesus maitea: zuc aguindu
becela Espiritu Santua su-gar bici ta
mingañen antzean Apostoloetara eterri
zan: eguizu, bada, Espiritu consola-
garri orrec nere biotza ta anima bere
argui ederraz bete, ta amoriozco surtan
iracequi ditzan. Amen.



Azqueneeco Evangelioan.

Consideratu Jesu-Cristoren
Jaungoicotatasuneco ta guizatasuneco misterioac.

ORACIOA.

Nere Jaungoicoa: Nic dedan ta naizan gucia zurea da, ta zuc eman didazu: bada, dan guztia nic zuri biurtzen dizut, zure vorondate santuarequin goberna dezazun. Zure amorioa zure graciarequin indazu; ta orrela aberats izango naiz, eta besteric nai ez det zuc naidezuna baicic. Amen.



CALVARIOAC VISITATZECO ORACIO EGOQUIAC.



VISITA oec estaudu graciazcoan eguin ezquero, irabazten dira indulgencia plenariac, edo barcacio osoa, ecin jaquin diteque cembat diran baña bai dira chit asco: ta irabaci ditezque purgatorioco animentzaco.

SARRERA.

Gure Jesus gozotasunez betea, guri diguzun amorio andiagatic aimbeste tormentu zure pasio santuan sufritu ezquerro, lapur bien erdian jarrita, gurutze izugarria zure bizcar gañean calvariocomendira eraman cenduana, iltze gogorraquin gurutzeari josita, cincilica zaudela azqueneco 'asnasa emateco. Aldapa cruel orretan eraman cinituan trabajuai beguiratuta, arren lagun zaiguzu Jauna, orain ematera goacen pauso necoso oetan ibilli gaitecen aldezaquegun devocioric andienarequin. Baita ere irabaci nai guinduzque ejercicio santu onetan dauzen indulgencia guztiac, Aita Santu Errromacoac nai duten becela eguiñaz: eta guztiac izan ditecela Jauna purgatorioco animen alibioraco, zure Pasio Santua honratzen ta alabatzen degula Amen.

Nere Cristau maitea,
Zaude emen beguira,
Cembañ neque tormentu
Zuc emanac dira.

ESTACIO GUZTIETAN ERANZUTEN DANA.

¡Cein esquer gaiztoaco!
Jesus sinisturic,
Izan gueran zuretzat
Ona damuturic.



Sentenciatu dute
Ya Jesus ona,
Gurutzean ilcera
¡Oh aren pena!

LENDABICICO ESTACIOA.

Jesu-Cristo gure Jaunari iltzeco sen-
tencia eman cioten lecua.

Consideratu ezazu Cristaua lembici-
co estacio onetan, gure Jesus maiteari
bost milla, eta gueyago azote Pilatosen
echean eman, ta alaco crueldadearequin
arantza punta zorrotzac buruan muñeta-
raño sartu ezquero, nola eman cion Jue-
zac sentencia calvarioco mendian iltzeco
guratze batean josita. ¡Nolako poza artu
zuten orduan judu gaiztoac eta batez ere
Escribac eta Fariseoac! Eta cein laster
eguin, ecarri, ta para cioten gurutze izu-
garri ura bere bizcar gañean eraman ce-
zan calvarioco mendira! ¡Oh Jesus, go-
zotasunean pare gabea beste virtute guz-
tietan becela! Iapurric andiena, ta gu-
zonie gaiztoena baciña becela igo bear
cera calvariora bildots humil eta isil bat
eguinican, eriotzaric lotsagarriena, ta
cruelena sufritzera. Zure virtute zoragar-
rizco au bitarteko paratzen dizugula, es-

catzen dizugù Jauna, arren virtute au eracutsi, ta lagun zaiguzula desterratzen gure barrengo arroqueriac; eta ezaguturic gure pecatuac, Zu iltzeco sentencia escribitu eraci zutenac, damutasun andi bat artuta humillatu gaitecen bear degun becela; baita eraman ditzagun isilic eta paquean emengo neque, estutasun, burla, ta lotsagabequeri guztiac, Zuc guertaera onetan ematen diguzun ejemplo eder oni beguiratuta; gure pecatuen zor guztia emen pagatu ezquiero, izan gaitecen Zurequin beti Ceruco Erreinuan. Amen Jesus.

Misericordia Jauna ni pecatariaz: damu det biotzetic Zure ontasuna ofenditua, eta artzen det gogo eguiaz-coa berriz pecaturic ez eguiteco. Aita gurea, Ave Maria, ta Gloria.

Bedeincatua, ta alabatua, izan dedilla Jesusen Pasio santua, ta eriotza; eta Maria Santismaren doloreac. Amen.

Onela acubatzen dira estacio guztiac.



Orain artzen ditu
Gurutze batean,
Gure pecatuac
Bere gañean.

RIGARREN ESTACIOA.

Jesu-Cristo gure Jauna, gurutze pi-sua bizcarrean zuala, lapur bien erdian jarri zuten lecua.

Considera ezazu Cristaua bigarren estacio onetan, gure Jesus maiteari cein gurutze pisua, ta izugarria para cioten bizcar gañean, eraman cezan calvarioco mendiria; eta nola jarri zuten aren Magestadea carcelatic atera cituzten bi lapur gaitzoe-

netacoen erdian gure Jauna gueyago losatzeagatic, eta guizonic gaiztoena izandu zala munduari sinistaracitza gatic. ¡Nola ateraco ote zan Ceruco Aingueruen Erregue ura Pilatos Gobernadofearen eche-tican caletara alako lagun galduen artean, burua arantzaz josita, lepoa macurtuta, beguiac erdi ichututa, gurutze pisu ura gañean zuala, arpeguiua odolez beltztuta, lotsaren andiz lurrera beguira. ¡Oh Isaac eguiazcoa Zure burua sacrificatzeko egurra gañean dezula mendira atera cerna! ¡Oh Jesus, Ceruetaco ta mundu guztiko Erreguea, guri diguzun amorioaren andiz, gure pecatuac mereci duten gurutze pisua artuta, Abrahanen seme culpa gabeac becela, zure burua erretzeco egurra calvarioco mendira daramazuna! arren Jauna trabajuz ta estutasunez betetako aldapa samiñ orretara combidatu gaitzatzu; eta lagundu eramatzen mundu onetan gure pecatuac mereci duten gurutze pisua, pecatu oec bear duten penitencia emen eguin ezquiero, mereci dezagun ce-

ruan Zure arpegui ederra icustea, ta Aingeruac prestatzen dizuten laguntasuna gozatzea eternidade guztian Amen Jesus.



Emen erori zan
Jesus gozoa,
Ecin eramanic
Gurutze pisua.

IRUGARREN ESTACIOA.

*Jesus gurutzearequin lembici erori
zan lecua.*

Considera ezazu Cristaua irugarren estacio onetan Jesus gure Maisu Jauna nola aterra zan Pilatosen ehetik lapur aen erdian calvarioco bideari jarraitzeco: eta

gurutzearen pisu izugarrizco arrec nola bota izan zuan lurrera iru edo lau pauso eman cituan ordurako. Baña gurutze ura baño jemba astunagoa izandu zan Jau-narentzaco gure pecatuen pisua! ¡Nolako naigabeac, estutasunac, eta samintasunac izango cituan bere biotz urriquitsuan, eche artatic atera, ta ain laster erori izan-du zanean lurrera, gure pecatuac gurutze aren gañean cituala! ¡Oh Jesus chit mai-tegarria, gurutze orren pisuarequin neca-tuta ecin bestean lurra jo arterao erori ta zacuscuna, guri aditzena émateagatic cemba costatzen zatzun gure animaç in-fenuco etsayaren atzaparretatik libratzea, ta ceruraco bide zorionecoan jartzea! Biotzeco suspirioaquin, ta beguietako ne-gar malecoaquin escatzen dizugu Jauna, arren arguitu ditzazula gure entendi-meituac, gure pecatuac ezagutzeko, batez ere garbitasunaren contrako gaitzaque-riac bada pecatu ichusi ta nazcagarri onec batez ere bota zaitu emen lurrera; baita biraldu graciac ugari gure biotzetara,

artu dezagun orain bertan zuri emandaco naigabe guztien damutasun andi bat, ate-ra gaitecen pecatuaren mendetic, morti-ficatu ditzagun griña gaiztoac, berriz pe-catuan erori ez gaitecen, eta iraun deza-gun gure azqueneraño zure bildur san-tuan, mandamentu santuac gordetzen, ta gure obligacioac cumplitzen ditugula; merecitzeko onela zure pasio santuaren frutuac ceruco glorian. Amen Jesus.



¡Nor daqui bere ana!
Nola egongo zan,
Semea ecustean
Figura artan?



LAUGARREN ESTACIOA.

*Jesu-Cristo gure Jaunac bere Ama
Santisima topatu zuan lecua.*

Consideratu ezazu Cristaua laugarren estacio onetan, Maria Santissimae jaquin zuanean bere semearen contra nola eman zuan sentencia Pilatos Gobernadoreac gurutzean josita iltzeco calvarioco mendian; eta nola ceramaten calez cale mendian artara lapur bien erdian, ta gurutze ain izugarri ura bizcarrean zuala; bere entrañetako seme bedeincatua nola ote cijoan icusteko deseoren andiz jarraitu cion ondorean, Jaunaren zañetatic eroritaco odol tantoac bidean billatzen cítuala, eta atera citzayon aurrera cale chiqui batetikan samintasunez beteric. Ieus zuanean bada nola cijoan gende pilla, borroko, ta lapur aen artean escuac lotuta, arpegua odolez beltztuta, ichusituta, burrua macurtuta, gurutze ura gañean zuala, ta lurrera beguira samintasunaren

andiz biotza ta beguiac illunduta, erori zan corderie gabe emacume devota baten magalera ya ill ta becela. Eta izango zan mirari andia alako Ama ill ta guelditzea alako semea modu artan icusi ezquero? ¡Oh Maria, Amaric erruquitsuena, eta nai gabez betea, zure semea, zure begquietaco eguzqui eder ura icusi cenduanean ain ichusitua, ain galdua, ta ain eroria bere etsay cruel aen artean! Cembat martirizatu zan orduan zure biotza, ta nolako samintasuna emango cinion zure semeari berari! Au da: Zu ala icusi ta, Cembat erdiratuko citzayon bere biotz amorosoa! ¡Oh Ama penaren andiz negarrez urtua! Sinisturic Señora, gure pecatuac izan dirala Zuen biotz urriquitsuac, eta ain maitegarriac martirizatu izan dituztenac, borrero ain cruelac, ona non gauzeatzun Señora zure aurrean humillaturic, lotsaturic, eta damuturic belaunico jarrita escazen pecatu guztien barcacioa; eta Cerruan zure semearen, ta zure arpegui ederra icusteko gracia. Amen Jesus.



Gurutzea eramaten
Lagun zayozu,
Bada ecin duala
Ecusten dezu.

BOSTGARREN ESTACIOA.

*Jesu-Cristo gure Jaunari gurutzea
eramaten lagundu cioten lecua.*

Consideratu ezazu Cristaua, bostgarren estacio onetan, gure Jesus maitea nola joan ote zan calvarioco mendira gurutze izugarrizco ura bizcarrean zuala, bada gorrotoaren andiz ecin icusi izan zuten bere horreroric cruelenac, uste izanic bidean ilko citzatela, eman cioten Simon

ceritzon guizon bat gurutzea eramateco,edo eramaten laguntzeo. ¡Eta cer gatic? cerren mendira baño lenago acabatu etzedin bildur ciran, eta deseatzen zuten mendi artan illtzen icustea, gurutzean josita lotsagarriric andienean. ¡Nola joan ote zan gure Jesus maitea, infernuco etsayen ministro aec aimbesteraño bildurtu ciran! Dudaric gabe azqueneco asnasaren señale negargarrizcoac ematen citura pauso bacoitzean. ¡Ah Luciferren ministroac! ¡Cembateraño gogortuco dira zuen biotz arri biurtu oriec? Eracusten diozute erruquitasun pisca bat, guero cruelquia go atormentatzen, ta iltzen icusteagatic. ¡Oh Jesus, gure artzai chit maitegarria! bada daramatzu ain nequez gurutze izugarri ori, eta argatic auqueratzen dezu Simon Cirineo eramaten laguntzeo. Arren bada Jauna, artu gaitzatzu gu ere, eta orrec becela pozic lagunduko dizugu; emen egunoro, edo maiz sortzen zaizquin gun gurutzeac, au da, mundoco eramanquizunac, Zure vorondate santuarequin

310

conformatzen guerala, eraman ezquiero,
mereci dezagun Ceruan Zuc gozatzen de-
zun descansua. Amen Jesus.



Arpeguico icerti
Eta odoletan.
Zapi bat buzti du
Iru dobletan.

SEIGARREN ESTACIOA.

*Andre piadosa batec Jesus onari
arpeguia garbitu cion lecua.*

Considera ezazu Cristaua, seigarren es-
tacio onetan Veronica ceritzan emacume
piadosa batec icusiric gure Jesus salvado-
rearen arpeguia ain ichusia, chistuz, au-

311

tsez, izardiz, ta odolez beltztua, eta ain
errucarria, escuetan ceucan zapi garbi
batequin nola garbitu cion Jaunac berac
emandako licenciarequin, eta aren Ma-
gestadeac aditzeria emateagatic emacume
ari, cembat estimatzen cion caridade ura,
zapi artan utzi cion bere arpeguaren
imagiña ispilla batean hecela, emacume
devota arree nai zuan guztian imagiña
ari beguiratzeko, ta gozatzeko. ¡Cemba-
aldiz egongo zan gueroztic ari beguirat-
zko! Eta nolako humildade, amorio, ta errés-
peto edo lotsarequin gordeco zuan echean
ceucan lecuric onenean, eta batez ere
bere biotzaren erdian ¡Oh emacume zo-
riónecoa! Norez izan aldezaquean zure
suertea, Jaunaren arpegui ura biotzean
josita iduquitzeo ¡Oh Jesus biotz eta go-
go onarequin eguiten zaizquizun serbioac
ain ongi pagatzen daquizuna! Arguitu
itzatzu arren gure entendimentuac, eza-
gutu dezagun, cerequin zu gustatuco zai-
tugun: eta prestatu itzatzu gure biotzac,
edo vorondateac, zuc nai dezun guztia

312

eguiteco, biraltzen badiguzu ere naiz gurutzeric pisuena, zure laguntzarequin eraman ezquiero, consideraturic pecatuac animetan utzi izan dizquiguten mancha ciquiñac, garbitzeco dirala emen sortzen zaizquigun trabajiac, ala mereci dezagun zure arpegui ederra ceruan beti icusten egotea, ala berean adoratzen, amatzten, ta alabatzen zaitugula, eta zure betico gloria cantatzen degula Aingueruen, ta santuen compañian. Amen Jesus.



Bigarren aldian
Emen da erori,
Pecatari guztia
Contura bedi.


313

ZAZPIGARREN ESTACIOA.

Jesu-Cristo gure Jauna bigarren aldiz lurrera erori zan lecua.

Considera ezazu Cristaua estacio oñtan, Jesus gure Salvadore maitea, indarrac ya osoró faltaturic, odolezco iturriac lurra bustitzeräño isurita, asnasa ecin arturic cijoala, nola erori zan lurrera bigarren aldiz, izugarrizco gurutze pisu arrec zauri chit audi bat bizcar gañean egün ezquiero. ¡Oh Jesus santutasun guztiaaren iturria bera izanican, gurutze orren astuntasun gueyeguizcoac bigarren aldiz lurrera bota zaituana azqueneco as-nasetan jartzen cerala! Arren Jauna arguitu ezazu nere entendimentua, ta pres-tatu nere biotza ezaguturic nere oraindano-ko pecatuen pisutasuna, nere gaitza-quieriac eta griña chit charrac, artu deza-dan nere amorio propioaren, edo voronda-te gaiztoaren contra gorroto andia; naya-go dedala milla aldiz iltzea ere berriz zu

ofenditu baño, pecatu oetan erortzea baño: eta indazu Jauna gracia Zure erorquera ain nequegarrizco oec beti nere biotzean josita iduquitzeco, egunoro oezaz oroitzenten naizala, eta nere barren guztia nai gabez beteric negar eguiten dedala, emengo hizcita pasatu ezquiero, libratu dezadan nere anima infernuco erorquera beticotic, eta ain negargarrizcotie; baita mereci dezadan Ceruan Zure betico alaitasuna Aingueruai, ta santuai ematen diezuna.
Amen Jesus.



Pecatuagatic
Negar eguiñaz,
Urruquitu zaite
Jesusen penaz.

ZORTZIGARREN ESTACIOA.

*Jesu-Cristo gure Jaunac Jerusalengo
andre piadosa batzuei itz eguin
cien lecuu.*

Consideratu ezazu Cristaua estacio onetan, emacume biotz bera, ta devota batzuec, ecusiric Jesus gure Jaun maitea estadu ain errucarri, ta negargarri artan, azotez zatituric, aranzaz coronaturic, lapur biren erdian, gurutzearen pisutasunac macurturic, eta osoró indar gabeturic, puntuau bein erortzen zala lurrera, beren barren guztiac naigabez, eta samintasunez beteric ceuzcatela, nola jarri ciran negarrez Jaun ari beguira. ¡Oh Jesus bildots humil baten gozotasunez betea! ¿Nola joan ote ciñan Zu calvarioco mendira, emacume aec icustearequin estadu artan aimbesteraño biotz beratu ciranean? Baña Zuc esan ciñien, baceucatela beste motivo andiago bat negar gogotic eguite-

co, esanaz: Jerusalengo alabac: ez nigaric negar eguin, baicican zuen buruac, eta zuen umeacgatic, cerren erri esquer gaiztoco oni guertaera negargarriagoac sortuko zaizca demboraz, eta zuen gañera etorrico dira. ¡Ah Jesus! Badáquigu Jauna, Zuc aditzera ematen diguzun gauza ain negargari ura dala, ez bacarric Jerusalengo erriari gueroz etorri citzayon castigua, baicican eta batez ere pecatuaren erortzea ta pecatuaren iltzea. Castigu onec mereci ditu eguiaz Jauna gure beguietako negar malcoric samiñenac, eta biotz barrengoa suspirioac. Iguzu bada Jauna gracia oraindañoco gure pecatuaren gaiztaquerria ezaguturican, damutasunarequin borratzen ta negar malco samiñaquin garbitzen ditugula, eta emendic aurrera peccatiari gorroto andia artzen diogula, Zure bildur santuan visitzeco; onela mereci dezagun ceruan Zure arpegui ederra icustea, ta gozatzea Amen Jesus.



¡Oh pecatuaren
Pisutasuna,
Jesus iru aldiz
Etzin dezuna!

BEDERATZIGARREN ESTACIOA

*Jesu-Cristo gure Jauna irugarren
aldiz erori zan lecua.*

Considera ezazu Cristaua estacio oinetan, baña biotzetic suspirio samiñac aterratzen zaizquitzula; ta beguietatic negar malcoac ugari botatzen dituzula; Jesu-Cristo gure Jauna ya azqueneco asnasetan jarri ta, nola erori dan irugarren aldiz lurra jo arterao, gorputz guztia odol us-

tuta, belaunetaco icararen aundiz zutiecin egon dalaco. ¡Cein gauza negargarritzoa beiñere iñori gaitzic eguin ez dion guizona besteen gaiztaqueriz estadu artan icustea! Alaz guztiaz ere beguirat, nola tirano cruel aec amorratzent diran gueyago Jaun humil, ta gozoaren contra, leoi aserratua odola icustearequin gueyago amorratzent dan becela. Ez dio batec ere escuric luzatzen erruquiz; eta Jauna bera ecin jaiqui dañaco, laguntzen badiote, barracida, bildur diralaco cein bidean ill ez dedin, eta deseatzen dutelaco calvariooko mendian iltzen icustea cincilika gurutzean josita. ¡Ah borrero cruelac infernuco etsay biurtuac, bildots manso orren odolaz ecin aspertu ceratenac! ¡Oh Jesus, humildadez, ta gozotasunez betea, Zure gorputz sagradua aimbeste aldiz lurrera erori ta, tirano cruelac osticoca erabiltzea nai izan cenduana, gure gorputz gaitztoae mereci zuten castigua Zure Aita eternoari pagatzeagatic! Indazu arren gracia Jau na, munduan bici naizan arte sortzen zaiz-

quidan eramanquizunac pacienciarequin susfrizco, Zue guertaera onetan eman dizazun ejemploari beguiratuta; baita ere eramateco humildade, ta gozotasunarequin nere etsayac eguiten dizquiden desprecioac; onela mortificaturic nere gorputza, ta griña gaitzoac, eta pagaturic nere pecatuen zorra, izan dezadan Ceruan betico zoriontasuna. Amen Jesus.



Orra non daucazun
Larru gorrian,
Zauri bat eguiñic
Gorputz guztian.

**AMARGARREN ESTACIOA.**

*Jesu-Cristo gure Jaunari soñecoac
quendu ciozcaten lecua.*

Considera ezazu Cristaua estacio one-tan, allegaturic Jesus bere Ama Santisi-marequin nolabaitean calvarioco mendira, indarrac galduric, osoro necaturic, eta izardiz beltzturic, izan alditequeanic, er-rucarriena; borrheto gaizto cruel aec nola eman cioten edaten beazun chit samiña-requin nastutaco ardoa. ¡Ceiñ edari gozoa beintzat egarriaren aundiz secatutaco Je-susen entraña legortu aec gozatzeko! Eta guero nola quendu ciozcaten bere soñeco guztiac aimbeste milla persona beguira ceudela, izan alcitequean lotsaric andie-nean utzitzeraño; soñecoaí pegaturic ceuz-can azoteac egindako llagac berrizca-tzen ciozcatela, eta zañetan guelditutaco odol precioso ura ateratzen ciotela. ¡Ay nere anima! ¡Cein icusgarri negargarri-zcoa estadu artan Jaungoicoaren Semea!

¡Oh Jesus, beste virtute guztietañ be-cela, paciencian ere paregabea! ¡Cemba-t sentitu ote cenduan edari eiquin, ta sa-min ura eman cizutenean eguindako des-precio ura! Eta cein lotsaturic arquituco ciñan Zure gorputz sagradua larrugor-rian icusi cenduanean, llagaz josiric, gu-i-zonaren antzic gabe, eta arrac becela lur-raren gañean! Indazu Jauna gracia, mun-duac eguiten dizquidan desprecioac isilic eramateco; baita arguitu ezazu nere en-tendimentua, pecatuac cein estadu lotsa-garrizcoan jartzen duan anima ezagutze-co; Zure graciazco soñeco ederra milla pusca eguinta, Espiritu Santuaren doayac quenduta, icatza baño ere beltzagoa, ta aragui arraz betetako usteldua baño ere nazcagarriagoa paratzen duala, Cerutic desterratua, eta infernurako hidean. One-la ezaguturic nere animaren estadu zori gaiztoa, mereci dezadan beguietako negar malco samiñaquin bere mancha ciquiñac garbitzea; biotzeco suspirioaquin bere lla-

gac sendatzea; eta penitenciarequin orain-dañoco pecatuen zorra pagatzea; guero icusi ta gozatu dezadan Ceruan Zure edertasun Jaungoicozeoa eternidade guztian. Amen Jesus.



Oñ, escuetatic
Iltzez josiric,
Or daucazu Jesus
Penaz beteric.

AMAIAGARREN ESTACIOA.

*Jaungoicoaren Semea gurutzean josi
zuten lecua.*

Considera ezazu Cristaua estacio one-tan, Jesu-Cristo gure Jauna, soñecoac

quendu ta larrugorrian jarri ezquiero, azoteac eguindaco zaurietatic odolezeo iturriac ceriozcala, nola paratu zuten gurutzearen gañean besoac eta ancac zabalik, burnizco iltze cruelaquin zulatuta, gurutzeari jositzeco; nola asi citzaizcan iltzeac sartzen izugarrizco golpeaquin; eta lendabikcico golpe cruel artan nola bere Ama Santisima erori zan lurrera ill ta becela: escuac eta oñac gurutzeari josi ezquiero, nola jaso zuten gurutzea gure Jauna berarequin zuala; eta gurutzea zutic paratzeco, nola sartu zuten golpea zulo batean, Jaunaren tormentuac ugaritzeagatic. Beguiria emen gure Jaunari Ceruen, ta lurraren erdian saerificaturic, bere Aita ofendituaren, ta guizon pecatariaren artean betico paqueac eguiteagatic. ¡Oh Jesus, Zure escu bedeincatuac, eta oin sa-graduac alaco vorondatearequin eman cinducena, iltzez gurutzean jositzeco, gure anima infernuco etsayac bere mendean iduqui izan situanai, betico libertade eguiazcoa emateagatic! Arren Jauna, igu-

324

zu gracia, gure escuac eta oñac ibilli ez ditecen munduko gauza debecatuen billa; eta bai gure sentiduac izan ditecela josiac. Zure bildur santuarequin; gure griña gaiztoac mortificatzen ditugula, oraindañoco oitura ciquiñac utzitzera sayatzen guerala, guardatuaz mandamentu santuac, emen Zure servicio santuan bici ta, guero mereci dezagun Ceruan Zurequin izatea. Amen Jesus.



Emen iltzan Jesus
Guizonagatic.
Acorda zaite beti
Eta gogotic

325

AMABIGARREN ESTACIOA.

*Jesus gure Jauna gurutzean josita,
illtzan lecua.*

Considera ezazu Cristaua estacio onetan, nola Jesus gure bicitzac, calvarioco mendian gurutzean izugarrizco tormentuac cincilica cegoala iru ordu osoetan sufritu ezquero, eman zuan azqueneco asnasa; nola ill izandu zan gu pecatariac salvatzeagatic. Guacen gaur mendi artara gure Maisu Jaunaren azqueneco itzac aditzera; bere doctrina icastera, ta eriotza ain cruel ura consideratzera, biotz barrenean sentitzera. Barcatu nai die biotzeatic bere etsai ta borrero cruelai; escainzen dio Cerua lapur gaitoa izana damutuari: ematen dio bere Ama Santissimari semetzat, eta bere toquian San Juan Evangelista, eracusten digu gure animen cein egarri andia daucan: aditzera ematen digu, gure estutasunetan Jaungoicoa-

gana nola joan bear gueran: cristau onaren egun bearrai nola eranzun bear diegun, esateco eriotzaco orduan: Jauna: egun det zure vorondatea: esaten du azquenic: Ona nere Aita; artzazu nere anima. Au esan ta bertan iltzen da tormentuz inguraturic. ¡Ah Jesus, gugatic sacrificatua! ill cera zu gugatic; eta gu gueldituco guera bieiric? ill cera zu guri izau diguzun amorioaren andiz; eta bicico dirala gure esquergabequeriac? gure gaiztaqueriac? Ez Jauna, ez: baicican zu ill ceran becela, illac izan ditecela gure peccatuac, gure oitura ciquiñac, gure gríña gaiزوac; onela mortificaturic gure sentiduac munduan, zuc ematen diguzun ejemploari beguiratuta, bici gaitecen guero zurequin Ceruan. Amen Jesus.



Gurutze gañetican
Bere amagana,
Jechitzen da emen
Jesus laztana.

AMAIRUGARREN ESTACIOA.

Jesusen gorputz santua gurutzetic jachita amari eman cioten lecua.

Considera ezazu Cristaua estacio onetan, nola Longinos eritzon soldadu ichu arrecc Jesuseن biotz sagradu ura ezpatarequin zulatu ezquiero, Ama Santisimaren anima erdiratzen zuala; José ta Nicodemus, guizon piadoso aec Jaunaren gorputza gurutzetic jachi, eta eman cioten bere

Amari, iduqui cezan besartean, eta biotzarequin josita, icusteco obeto bere llaga cruel aec. ¡Ah Maria, Amaric Martirizatua! ¡Zuc bai esan dezakezu orain: ¡Oh mundutarrac: atozte consideratzera nere naigabe au; eta icusi ezazute izan al ote ditequean onequin berdindu aldi-tequeanic. Icusten eta contatzen diozca buruan arantzac egundako zulo cruel aec; beguiratzen dio azoteac zulatutako gorputz ari; consideratzentzu ditu escu eta oñetako iltze zulo aec; moguitzen ditu batera, ta bestera beso autsi aec: ¿eta Jaunaren begui illunac? ¿eta arpegui ain ichusitu ura? ¿Eta biotzeco llaga sacon ura? ¡Ah Maria, Ama egiaz tormentuz inguratu! Ez daquit, nola biciric iraun aldezaquezun. Señora: gu izan gueralako zure semearen borreroac, eta zu martirizatu zaitugunac; ona emen gatoz damuturic, eta lotsaturic, zuri estutasun orretan laguntzera. Artu gaitzatzu bada arren Señora, zure negar malcoen, eta suspirio samiñen umeac gaitzunbecela, orain galdu dezun

zure Semearen toquian; mereci dezagun Ceruan ere zureac izatea, zure Seme Jaungoicoaren gloria zurequin gozatzen degula. Amen Jesus.



Obi berri bat nai du
Zure biotzean,
Jesusec zu beti
Bici zaitean.

AMALAUGARREN ESTACIOA.

*Jesusen gorputz sagradua sepulturan
sartu zuten lecua.*

Considera ezazu Cristaua estacio one-tan, nola Jesus gure Jaunaren gorputz sagradua eraman zuten sepultura berri batera, bere Ama Santissima ondorean zuala; eta maindire garbi batean estali ezquiero,

330

uquendu chit preciosoarequin guztia gozatuta, sartu zuten sepultura artan here Ama beguira cegoala, eta para cioten gañean izugarrizco losa andi bat. ¡Cemba consideracio, ta cein provechu andicoac eguin bear dituzun emen Cristaua! ¡Sepultura baten barrenean, eta munduaz aztuta, Ceruan Aingueruac adoratzen duten beren Erregueal! Jaungoicoarequin ongi izan ezquiero, ¿cer importa dizu munduac despreciatuagatican? Beguira zure pecatuac nora eraman duten Jaungoicoaren Semea; au da sepulturan enterratzaño. Enterra zaite bada gaur zu ere munduac eracusten dituan atseguntasun engañagarrizcoac despreciatzen dituzula; eta izan zaite beti Jaungoicoarequin. Bai bada Jesus, nere Redentore maitea; nai nuque utzi gaurdanican biotzez mundu zorigaitoko au bere ondasun, atsegui, ta vanidade guztiaquin. Jauna zurequin ongi izan ezquiero, ¿cer dijoaquit munduac icusi nai ez izanagatican? ¿Zu sepulturan eta ni mundo o choraqueri gaiz-

331

toetan? Ez Jauna, ez orrelacorian. Atoz Jesus nere animara: nere biotza izan bedi Zure sepultura berria: billa ezazu nere barrenean Zure betico bicilecua. Nere anima, biotza, vorondatea, entrañac, eta nere sentiduac izan bitez Jauna zureac gaurdanic asi ta eternidade guztian. Eta zu ¡Oh Ama bacartua! Ama semeric gabeal negarrez urtua, suspirioz deseguiña! izan zaite arren nere Ama biotzecoa: artu nazazu arren zure entrañetan, zure Seme galdu dezun aren lecuan. Izan gaitecen orain zu nerequin, ta ni zurequin, izateco guero Ceruan alcarrequin. Amen Jesus.

AZQUENA.

¡Oh Jesus Sepulturan
Guelditu cera gaur,
Guc egun dizayogun
Munduari agur.

Amalau dira calvarioco Estacioac.
Aita santu Benedicto Amalaugarren
nac ala dauca esanic.



JESU-CHRISTO GURE JAUNAREN
BOST LLAGA PRECIOSEN ADORACIOA.



Nere Jesus maitea: Zure pasio santuan, eta eriotza cruel artan nigatic sufritu cinducen, neque, trabaju, desprecio, estutazun, egarri, azote, aranzazco coroa, lotsatasun, gurutze, ta tormentu guztiak, baña batez ere artu cinituan bost llaga precioso aec adoratu nai ditut damutasunaren, eta erruquitasunaren andiz biotza erdiratzen zatadala. Lagundu bada arren zuc Jauna adoracio onetan atera dezadan zuc deseatzen dezun, eta nerik conveni zatadan frutua, onetaraco partzen dizquitzut bitarteko zure Ama Santissimaren doloreac, batez ere zure Pasio santuan sufritu izan cituanac. Amen.

Lembicico adoracioa, ezquerreko oñeco llagari.

Oh nere Jesusen llaga preciosa! Biotz guztitic adoratzen zaitut, eta esca-
tzen dizut Jauna, arren barca dizazula
nere pauso, ta ibillera gaitzoaquin egun
dizquitzudan ofensa guztiac.

Aita gurea, Ave Maria, eta Gloria.

**Bigarren adoracioa, escuico oñ-
eo llagari.**

Oh nere Jesusen llaga preciosa! Biotz guztitic adoratzen zaitut, eta esca-
tzen dizut Jauna, arren barca dizazula
nere itz, eta obra gaitzoaquin egun
dizquitzudan ofensa guztiac.

Aita gurea, Ave Maria, eta Gloria.



**Iruigarren adoracioa, ezquerreco
eskuco Ilagari.**

Oh nere Jesusen llaga preciosa !
Biotz guztitic adoratzen zaitut, eta esca-
tzen dizut Jauna, arren barca dizazula
nere begui eta beste sentidu guziaquin
eguin dizquitzudan ofensa guziac.

Aita gurea, Ave Maria, eta Gloria.

**Laugarren adoracioa, eskuco es-
kuco Ilagari.**

Oh nere Jesusen llaga preciosa !
Biotz guztitic adoratzen zaitut, eta esca-
tzen dizut Jauna, arren barca dizazula
nere memoria, entendimentu, ta voron-
datearequin eguin dizquitzudan ofensa
guziac.

Aita gurea, Ave Maria, eta Gloria.

**Bostgarren adoracioa, sayets sa-
graduoko Ilagari.**

Oh nere Jesusen llaga preciosa !
Biotz guztitic adoratzen zaitut, eta esca-
tzen dizut Jauna, zure Biotza ezkata zor-
rotzac zulatu zuan becela, Zure Ama
Santismarena samintasunez betetzen zua-
la, arren nere Biotza ere Zure amorio
santuac llagatu dezala, arturic orainda-
ñoco pecatuuen damuasun andi bat, naya-
go izan dezadan iltzea, berriz pecatuare-
quin Zu ofenditzea baño Amen.

Aita gurea, Ave Maria, eta Gloria.

Bedeincatua, ta alabatua izan de-
dilla Jesusen Pasio ~~Santigada~~ Ma-
ria Santismaren biotz ~~Martirizazioa~~
Amen.

